

Giza harremanak, botere-harremanak?

Filosofia-arlorako material didaktikoa


Batxilergoko 1. ikasturtea

Egileak: Jorge Urdanoz eta ALBOAN-eko hezkuntza-taldea

Lankideak: Jorge Sanz eta Mikel Berraondo.

AURKIBIDEA

1. ALBOAN -en aurkezpena	5
2. Unitate didaktikoaren sarrera	7
3. Aldez aurreko argibideak	9
4. Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak	11
4.1. Helburu orokorra	11
4.2. Edukiak	11
4.3. Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak	13
5. Proposamen didaktikoa	17
5.1. Ipar-Hego gatazkaren sarrera	17
5.1.1. Hirugarren eta Lehen Munduaz hautematen duguna	19
5.1.2. Garapenari eta azpigarapenari buruzko kontzeptua	36
5.1.3. Hegoaldeko herrialdeetako mitoak eta errealitateak	
5.2. Amerikako giltzarri historikoak: kolonizazioko eta independentziako prozesua	73
5.3. Gaur egungo Amerikari begirada: merkataritza-neokolonialismoa	
6. Unitate didaktikoaren ebaluazioa	107
6.1. Ikasleentzako ebaluazio-proposamena	108
6.2. Irakasleentzako ebaluazio-proposamena	111
7. Bibliografia.	115
8. Sareko beste zenbait baliabide	117



ALBOAN-en aurkezpena

A **LBOAN** Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeak eta pertsonak elkartu diren plataforma da, eta, elkarbanatutako esperientziaz baliatuz, gizartea eraldatzea dute helburua giza garapena, bizitza duina eta justizia pertsona ororen ondare izan daitezen.

APrestakuntza alorraren bidez, **ALBOAN**-ek elkartasunaren kultura sustatzearen alde egiten du apustu. Beraz, mundu zuzenagoa eta gizatiarragoa lortzeko, gizartearen eraldaketan parte hartuko duten “hiritar aktibo, kritiko eta solidarioak” sortzeko konpromisoa gero eta talde eta pertsona gehiagok hartzea lagundu nahi dugu.

Horretarako, hiru eremutan egiten dugu lan:

- EHezkuntza elkartasunean.
- Borondatezko lana.
- Prestakuntza soziopolitikoak.

Alor horietako bakoitzean honakoen bidez egiten dugu lan:

1. Prestakuntza ekimenak sortuz.
2. Elkartasun-esperientziak sustatuz.
3. Elkarguneak eta gogoetarako guneak sortuz.
4. Gure hezkuntza-proposamenak zabalduz.

Gure iritziz, eta topikoetatik harantzago, hezkuntzak ahalmen handia du gizartearen eraldaketan. Beste gizarteratze-eskaeretik “lehia” handia izan arren, eskola oraindik ere baloreak transmititzeko leku garrantzitsua da. Eskolan ere sortzen da kultura, eta ez ezagutza-multzo gisa, baizik eta pertsonak elkarren artean harremanak dituzten moduan, sentitzeko moduan, esanahiak sortzen dituzten, zenbait balorearen inguruan bizitza antolatze moduan. Eta eremu horretan eragin dezakegu hezitzaileok: kulturaren sorreran, elkartasunaren kulturaren sorreran. Elkartasunean bizi diren pertsonetatik abiatuta


bakarrik hartu ahal izango ditugu mundu zuzenagoa eta gizatiarragoa lortzeko aukera emango dizkiguten neurri eraginkorrak.

Arrazoi horiengatik, **ALBOAN**-en garapenerako eta elkartasunerako hezkuntzaren alde egin dugu apustu gogor. Ahalegin horien barnean dago material didaktikoak egiteko proiektua, eta esku artean duzun hau da proiektu horren fruituetako bat.

Bilduma horretako unitate didaktikoak hezitzaile-talde batek egin ditu **ALBOAN**-en laguntzaz eta aholkularitzaz. Prozesuak -luzea bera- hainbat fase izan ditu:

- Irakasle-talde bat motibatzea eta prestatzea.
- Irakasgaien ohiko programetako gaiak aukeratzea.
- Elkartasunerako hezkuntzaren ikuspegia kontuan hartuko duten jarduerak diseinatzea: metodologia aktiboak, partaidetzakoak eta lankidetzakoak, tokiko errealitatea eta errealitate orokorra lotzen dituztenak, eta ekintzara zuzenduta daudenak.
- Jarduerak egitea, gelako esperientziarekin alderatzea.
- Ebaluazioa eta hobetzea.
- Argitaratzea.
- Erabiltzaileen ebaluazioa.

Gure lan-esperientzia eta, batez ere, gure ilusioa biltzen dituen lan hau erabilgarria, iradokitzailea eta sustagarria izatea espero dugu gure itxaropen bera duten hezitzaileentzat: *benetako elkartasunean oinarritutako mundua eraikitzea posible da.*



2

Unitate didaktikoaren sarrera

Aurkezten dizugun unitate didaktiko hau, bi erakunderen elkarlanaren emaitza da: **ALBOAN** GK Eren eta Iruñeko San Ignazio ikastetxearen arteko elkarlanarena. Bi erakundeok helburu bera genuen: irakasgai zehatz batzuetatik guk zabaldu nahi genituen balore eta jarrera batzuekin “konektatzen” zuten material didaktikoak sortzea; hau da, nola transmititu herrialde pobreekiko anaitasuna, espirtu kritikoa, gurea ez bezalakoak diren beste errealitate batzuekiko enpatia, elkarlana, etab. Gizarte Zientzietatik? Nola lotu gai ofizialak eta munduak planteatzen dizkigun galderak?

Erantzun batzuk “Lurra begi-bistan” unitate didaktiko honetan aurkezten ditugu. Material didaktiko hau Derrigorreko Bigarren Hezkuntzako 2. zikloko Geografia Ekonomikoa eta Gizarte Zientziak arlorako diseinatu dugu. Material didaktikoak prestatzeko proiektu orokorrera zenbait irakasgaitako beste irakasle batzuk etorri dira, Anaitasuna benetan egiazko zeharkako ardatz bihurtu eta gure heziketa-lana kutsa dezan; sinetsita gaude anaitasunaren balioa ezin dela gure hezkuntza-bizitzako esparru itxi batera mugatuta geratu.

“Lehorra begi-bistan” unitate didaktikoa praktikan erabili da ikastetxean DBHko 4. mailako Geografia Ekonomikoa eta Etikako ikasleekin. Saioa oso onuragarria izan da. Hala ere, material hau beste arlo batzuetan ere, bai eskolakoetan eta bai eskolatik kanpokoetan, baliagarria izan daitekeela uste dugu.

Hasieratik material hau prestatzeko gidari izan den funtsezko oinarri bat, honakoa izan da: hezkuntzak ikasleen nortasun osoa garatzen laguntzeko premiaren uste sendoa. Kontzeptu honek norbanakoa eta gizartea hartzen dituela iruditzen zaigu, hau da, norbanako gisa guztiok ditugun jarrera eta gaitasunak, eta, halaber, gizartean elkarrekin bizitzeko ditugunak eta geure ezaugarri ditugunak. Gaur egungo hezkuntza-testuinguruan azken alderdi hau ahuldu egin da ikaslearen banakako garapena sustatzearen mesedetan. Bestela esanda, badirudi hezitzaileen ahalegin guztiak ikasleari, honek bere banakako gaitasun eta trebetasun guztiak gara ditzan, laguntzea dela, hau da, arrazoiketa logikoa, gaitasun kritikoa, ikasteko ohiturak, edukiak bereganatzea eta abar garatu nahi izaten dituzte.

Hori guztia oso premiazkoa da, noski. Hala ere, gure ikasleak gizartean bizi daitezen hezte eta prestatzea ere aurrekoa bezain premiazkoa da. Agian epe ertainera aurre egin beharreko funtsezko erronka izango dute. Anaitasunean hezi nahi izateak gure ikasleak gizarterako nola prestatzen ari garen galdetzeraz behartzen gaitu, gizartean dirudienez lehiakortasun ankerra, gero eta berekoikeria handiagoa eta "ahal duenak ahal duena egin dezala" nagusi direla ikusita. Ingurune orokorrangoan "kontra-baloreen" multzo honek, nazioarteko harremanetarako sare konplexuarekin batera, bere oihartzuna munduko ordena erabat bidegabean du eta milioika pertsona ari dira edozein gizakirentzat duintasunik gabekoak diren bizi-baldintzak sufritzen.

Testuinguru honetan "bizitzen jakiteko" trebetasunak eta prozedurak sustatzea ez da lan erraza. Horregatik norbere gizartea eta taldearen bizitza garatzen den espazioa eta lurraldea ezagutzea biziki garrantzitsu bihurtzen da. Ikuspegi horretatik beharrezkoa da inguratzen gaituen munduari begiratzea.

Bizi garen mundua sistema bezala ikusi behar dugu. Sistemako elementuak harreman ekonomikoen, politikoen, kulturalen eta abarren sare estuaz elkarri lotuta daude. Horrela, harremanetako desberdintasunaren emaitza munduko zati handi batean mantendu egiten da, ekosistema gero eta kaltetuarekin eta onartezina diren bazterkeria eta miseriako egoerekin. Egoera honen berri guztiok dugu, noski, NBEk egindako zenbait txostenetatik hartutako datu batzuk azalduko ditugu hemen:

- XXI. mendearen hasieran planetako % 20 aberatsenak munduko sarrera guztien % 80a baino gehiago berak jasotzen du, eta bitartean % 20 pobreenak % 1a baino zerbait gehiago besterik ez du jasotzen.
- Europan eta Estatu Batuetan urtean 17 mila milioi \$ gastatzen ditugu etxeko animalientzako janaritan. Munduko biztanle guztiei oinarritzko elikadura eta osasun-zerbitzua emateko 13 mila milioi \$ beharko lirakekeela kalkulatu da.
- Brasilek bere nazio-aurrekontutik Lehen munduarekin duen kanpo-zorraren interesak ordaintzeko kopuru handiagoa erabiltzen du Hezkuntzan baino.
- Kafearen kilo-laurdenak 1,5 euro balio baditu ere, kafea jasotzen duen nekazariak 0,04 edo 0,05 euro besterik ez ditu kobratzen eta % 10a baino ez da "Hirugarren Munduan" geratzen.
- Munduan 1998an NBEk kalkulatuako soildutako basoen azalera lehorrenen % 26,8ko zen eta urtero % 0,3 gehiago soiltzen da, baina Hegoaldea Iparraldea baino askoz azkarrago ari da oihana galtzen. Iparraldean, berriz, basoaren azalera murriztu ez eta, gutxi bada ere, handiagotzen ari da.
- Munduko pertsona guztiek gizarte aberatsetako kontsumo-mailarekin biziko balira, gurea bezalako 6 planeta beharko lirakeke.

Diagnostiko honetatik abiatuta, aurkezten dugun lana gure ikasleengan Hegoaldeko herrialdez oso hedatuta dauden estereotipo batzuk (askotan irudimenezko talde handiagoen oihartzun izanik) aldatzeko asmoz aurkezten gara. Gai hau ikasgelan erabili denean, normalean lehenik eta behin ondorioak (gosea, pobretasuna, etab.) aipatzen direla ikusten da, baina gertaera horiek oso gutxitan egozten zaizkie kausa batzuei (nazioarteko harremanei, kolonizazioko eta deskolonizazioko prozesuei eta abarri). Horregatik gure helburuetako bat deskribapen hutsekoa den pentsamendutik pentsamendu analitiko eta kritikora igarotzea da. Badakigu pentsamendu analitikoak baino ezin duela bestea maila apalagoan ikusteaz gain anaitasun--ekintza eragin.

Bestalde, zenbait estereotipo sumatu dugu. Gure ustez oso hedatuta daude eta aldatu egin nahi ditugu:

- "Katastrofismo naturala": herrialde horietako status quo deitzen dena kanpoko baldintza kaltegarriek egozten zaienean: lehorteari, landu gabeko lurri, hondamendi naturalei eta abarri.

- "Kultur atzerapena": historiaren garapenaz dagoen interpretazio erabat eurozentrikoa adierazten du eta mendebaldeko kulturak izan duen garapenik izan gabeko beste kulturak nahitaez atzeratuta geratzen direla kontsideratzen da. Konponbidea, beraz, mendebaldeko eredu ekonomikoari heltzea da, hori baita "garapenera" iristeko eredu (ekonomiko) bakarra.

Interpretazio horren ondorio gisa mundua honela banatuta geratzen dela ematen du:


- Herri garatuak: Lehen Mundua, aberatsa, egonkorra, demokratikoa, etengabeko aurrerapeneko kultur tradizio handiarekin.
- Herri azpigaratuak : Hirugarren Mundua, pobreak, hondamenak izateko joera dutenak, diktadurak dituztenak, ezegonkorrak, bortizkeria erabiltzen dutenak, garapena oztokatzen duten kultura atzeratuak dituztenak, aurrerapenaren giltzarri den teknologiarik ez dutenak.

Beraz, iritzi oker hori gure irudimenean indartu egiten da gizarteko komunikabideen bitartea "mundu azpigaratuaz" ematen den ikuspegiarekin. Erremediorik gabeko katastrofismoaren aurrean erraz sortzen da larritasuna edo, kasurik onenean, paternalismoa.

"Bestea" sumatzeko dugun era hau aldatzen ez dugun bitartean, nekez aldatuko ditugu ikasle askorengan gai hauek sorrarazten dituzten apatia eta urruntzea. Era berean, jarrera hori alda daitekeela uste dugu, eta nerabeek gureak ez bezalako errealitateekin enpatizatze gaitasun handia dutela ere bai. Horrela benetan ekintza anaikorra sortzen da bidegabeko errealitate eta egiturak aldatuta.

Hori guztia kontuan izanda, ez dugu ahaztu behar orain bizi garen eta elkarrekiko mendekotasuna hain handia duen munduan denok sare bereko zati garela eta Lurreko edozein lekutan gertatzen denak zuzenean edo zeharka gudan eragina duela. Funtsezkotzat jotzen dugu gure ikasleek bizi den lekuko inguruneaz eta ingurune orokorraz diagnostiko kritikoa egin ahal izatea, jarrera eta prozedura jakin batzuk garatzearen eta horrela mundu zuzenagoa eraikitzen eta orain giza garapen jasangarri deitzen denarekin konpromiso handiagoaz aktiboki parte har dezan.

Beraz, Lurreko egoera orokorra analizatzearen bidez eta errudunak ez eta erantzukizunak aurkitzen (besteak beste geurea ere bai) saiaturik, gu barnean gauzkatzen eboluzio eta garapeneko prozesu konplexuak ulertuko ditugu, eta etengabeko anaitasun-kontzientziako politika izan dezakegu, gure ingurunea aldatzen laguntzeko aukera izan dezagun.



3.

Aldez aurreko argibideak

U.D. honetan erabilitako zenbait kontzepturi buruzko hiru argibide eman nahi ditugu:

Planetako errealitate bikoitza adierazten duen lengoaiari buruz, ezinezkoa gertatu zaigu (U.D.ko laugarren jardueran azaldutakoa gorabehera) “Ipar-Hego”, “Hirugarren Mundua”, “Herri garatuak eta azpigaratuak” eta antzeko esarak ez erabiltzea. Hala ere, badakigu zehaztasuna falta zaiela eta nahiko erlatiboak direla. Agian egokiagoa izango litzateke “herrialde aberastuak” eta “herrialde pobretuak” esatea, zeren bikoiztasun horrek gure munduaren errealitateari objektibotasun handiagoaz erantzuten baitio, baina elkarrizketetan gutxiago erabiliak direnez gero, U.D. ulertzen zailagoa izango litzateke.

Materialean ikusiko duzuenek, Peters-en mapa erabiltzea gomendatzen dugu, eta ez Mercator-en ohizko proiektzioa, ondoko arrazoiak direla medio:

- Peters-en proiektzian, ekuatorea doi-doi maparen erdian azaltzen da eta mundua bi zati berdinetan banatzen du; Mercator-enean, berriz, maparen beheko aldean dago eta Europa geografiko gune bihurtzen da eta ipar-hemisferioari garrantzia handiagoa ematen dio (munduari buruzko ikuspegi eurozentrikoa da argi eta garbi, baina errealitatearekin ez dator bat).
- Peters-en proiektzian maparen azalera osoa eskala berean dago, hau da, mapako edozein zatiren zentimetro karratua errealitateko azalera berari dagokio. Mercator-enean, ordea, lehen azaldu dugunagatik, planetako Iparraldeak neurri handiegiak ditu (hau da, ekuatorearen ondoko kilometro karratua mapan Iparraldeko kilometro karratua baino txikiagoa azaltzen da).

Bestalde, unitate didaktiko hau Geografia Ekonomikoa ikasgaiaren esparruan gauzatzeko dago egina, egileek horrelaxe gauzatu dutelako. Hala ere, moldatzeko aukera handiak dituen material irekia delako, Gizarte Zientzien esparruko beste curriculum-diziplinetatik hartuta eta hezkuntza formalekoa ez den esparruan gaiak edo jarduerak erabil daitezke.

Halaber, azpimarratu egin nahi dugu unitate osoan zehar idazkeran biak hartuta emakumeak eta gizonezkoak berdindatzeko ahalegin berezia egin dela. Formula bakarra ez dago, noski, eta hizkuntza androzentrikoaren ondoan dauden beste zenbait aukera erabili ditugu, Emakunde-ren iradokizunei jarraituz:

- Generiko errealak eta izen abstraktuak erabiltzea.
- Aditzetan eta izenordainetan forma pertsonalak erabiltzea.
- Talde mistoetan, bi genero gramatikalak erabiltzea.
- Barrak fitxa, taula eta antzeko dokumentuetan baino ez erabiltzea.

Azkenik, unitate didaktikoan zehar ikono batzuk azaltzen dira eta honako alderdiak adierazten dituzte:



Irakasleentzako gida



Talde dinamika



Jarduera




Irakasleentzako erantzunak



Banakako dinamika



Dokumentazio osagarria



4

Unitatea lantzeko giltzarri pedagogikoak

4.1. Helburu Orokorra

oogIpar eta Hegoaren arteko bidegabeko harremanetara hurbildu eta esperientziaz ezagutzea, fenomeno orokor batzuek gu bizi garen ingurunean oihartzuna dutela ulertzeko giltzarriak eskainiz, inguratzen gaituen munduarekiko anaitasuneko portaera eta jokabide zehatzak sustatzearren.

4.2. Edukiak

4.2.1. Kontzeptuzkoak

- Globalizazio-fenomenoa.
- Garapena eta azpigarapena (garapen ekonomikoaren mailak, garapen jasangarria...).
- Giza garapeneko indizea.
- Komunikabideen eginkizuna Hegoaldeari buruzko irudi-sortzaile gisa
- Gaur egungo mundua ulertzeko giltzarri historikoak: kolonizazioa eta deskolonizazioa, kanpo-zorra, desberdintasuneko elkartrukea, nazioaz gaindiko enpresak, neoliberalismoa, neokolonialismoa...).

4.2.2. Prozedurazkoak

- Zenbait informazio-iturri erabiltzea.
- Aldez aurretik ideiak identifikatzeko estrategiak
- Talde-lanak (lanak banatzea, ondorioetan bat etortzea...)
- Zenbait informazio-iturritatik lortutako informazioekin gaikako mapak prestatzea.
- Taula estatistikoak irakurri eta interpretatzea
- Giza garapeneko indizeak (G.G.I.) kalkulatu eta analizatzea.
- Elkarrizketak eta eztabaida irekiak.
- Gai monografikoei buruz azterketak eta ikerketa txikiak egitea.
- Rol-jokoak agertokian jokatzeko, simulazioak eta antzezpenak.



Fuente: Levin, 1999.

4.2.3. Jarrerazkoak

- Inguratzen gaituen mundua aurkitu eta ezagutzeko jakin-mina
- Norbera harritzeko eta errealitate berrietara irekitzeko gaitasuna
- Gaur egungo munduan aurre egiteko arazo nagusiez kontzientziaztea, Ipar/Hego harremani dagokienez eta egoera horretan gure parte-hartzea eta erantzukizuna kontuan hartuta
- Ingurumena eta Lurreko bioaniztasuna baloratzea, munduko altxor bezala eta gizarte zein kultura aldetiko aberastasun bezala zaindu eta defendatu behar den aberastasun-iturri direla kontsideratuz.
- Baliabide-eskasia, zanpaketa, miseria, baztertzea... sufritzen duten biztanleria-sektoreekiko anaitasuna
- Munduan kultura, politika, gizarte eta ekonomiaren arloetan dauden harremanen ikuspegi eurozentrikoaz espiritu kritikoa izatea
- Gureak bezalakoak ez diren pertsona eta errealitate sozio-kulturalen aurrean geure estereotipoak aldatzeko gaitasuna, egiazko ezagutzatik sortzen den enpatia sustatuz.
- Deskribapeneko hutsa den pentsamenduaren aurrean pentsamendu analitikoak sustatzea

4.3 Ebaluatzeko irizpideak eta metodoak

1. gaia. Estatuari buruzko teoria

1.1. Boterea eta Aginpidea giza instituzioetan

1, 2, 3, 4, 5 eta 6. jarduerak

	Edukiak	Puntuazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none"> • Instituzioak gizartearen funtsezko elementu gisa. • Boterea eta aginpidea gure bizitzako esparruetan. • Desobedientzia zibila taldeko, politikako eta bakeko ekintza gisa. • Boterea lortzea garapen-prozesu gisa. 	<ul style="list-style-type: none"> • %25 • 25% • %25 • 25% 	Jarduerak zuzentzea
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none"> • Ideiak eta iritziak transmititzeko komunikazio-trebetasunak. • Zenbait informazio-iturri erabili eta analizatzea. • Talde-lana. 	<ul style="list-style-type: none"> • %33 • %33 • %33 	Talde-lana eta banakoaren lana aztertzea
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarriketarako eta entzuteko jarrera. • Talde-lanean lankidetzeta eta erantzukizuna. 	<ul style="list-style-type: none"> • %50 • %50 	Talde-lana eta banakoaren lana aztertzea
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa			

1. gaia. Estatuari buruzko teoria

1.2. Estatu eta legitimitatea: giza eskubideak

7, 8, 9 eta 10. jarduerak


	Edukiak	Puntuazioa	Metodoa
Kontzeptuak	<ul style="list-style-type: none">• Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala.• Giza eskubideen belaunaldiak.• Estatu eskubideen bermatzaile gisa.• Legitimitatea ideia subjektibo eta manipulagarri gisa.• Legezkoatasuna ulertzeko erak.	<ul style="list-style-type: none">• %20• %20• %20• %20• %20	Jarduerak zuzentzea eta ados jartzea aztertzea
Kontzeptuzko edukien azken kalifikazioa			
Prozedurak	<ul style="list-style-type: none">• Zenbait iturri ikertzea.• Talde-lanean kasu praktikokoak analizatu eta ebatzea.• Giza Eskubideen Deklarazioko artikuluen eta kasu praktikoen artean harremanak ezartzea.• Arrazoiketa morala.• Elkarrizketan eta eztabaidan erantzukizunaz eta kritikoki parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none">• %20• %20• %20• %20• %20	Talde-lana eta ados jartzea aztertzea
Prozedurazko edukien azken kalifikazioa			
Jarrerak	<ul style="list-style-type: none">• Giza Eskubideak bermatzeko dagoen premia kontzientzia hartzea.• Jarrera enpatikoa pertsonen eskubideak bortxatzen direnean.• Aktiboki entzun eta parte hartzea.• Iritzietan ados jartzeko gaitasuna.• Tolerantzia eta errespetuzko giroan iritzi desberdinak alderatzeko gaitasuna.	<ul style="list-style-type: none">• %20• %20• %20• %20• %20	Talde-lana eta ados jartzea aztertzea
Jarrerazko edukien azken kalifikazioa			



11. ariketa

	Contenidos	Puntuación	Método
Conceptos	<ul style="list-style-type: none"> • Ciudadanía y estado mundial. • Las instituciones supranacionales y su papel en la resolución de conflictos. • El conflicto del Sahara Occidental. • El conflicto entre el Fondo Monetario Internacional y Perú. • El conflicto entre el pueblo mapuche y Endesa. • El conflicto entre Israel y Palestina. 	<ul style="list-style-type: none"> • 16,6% • 16,6% • 16,6% • 16,6% • 16,6% • 16,6% 	Planes de paz entregado al profesorado por los grupos.
Puntuación final de contenidos conceptuales			
Procedimientos	<ul style="list-style-type: none"> • Reflexión crítica en torno a conflictos mundiales. • Detección grupal de fortalezas, debilidades, amenazas y oportunidades en diferentes situaciones generadoras de conflictos. • Búsqueda de soluciones responsables a conflictos mundiales. 	<ul style="list-style-type: none"> • 33% • 33% • 33% 	Observación del trabajo en equipo en la resolución de conflictos
Puntuación final de contenidos procedimentales			
Actitudes	<ul style="list-style-type: none"> • Conciencia crítica ante la situación actual de la política internacional. • Comprensión de diferentes conflictos mundiales y las causas de su origen. • Espíritu crítico y autonomía de pensamiento para una ciudadanía activa. • Capacidad para llegar a acuerdos en la resolución de conflictos. 	<ul style="list-style-type: none"> • 25% • 25% • 25% • 25% 	Observación de la actitud del alumnado ante conflictos mundiales y trabajo en grupo
Puntuación final de contenidos actitudinales			





5

Proposamen didaktikoa

1. gaia. Estatuari buruzko teoria

1.1. Boterea eta aginpidea giza instituzioetan

1.2. Estatua eta legitimitatea: giza eskubideak



1.1.

Boterea eta aginpidea giza instituzioetan



Irakasleentzako gida

1. Helburuak

- Institutzioek gure gizarte-bizitzarako duten garrantziaz jabetzea.
- Aginpidea eta boterea nozioak bereiztea.
- Boterearen mugak eta desobedientzia-aukera era kritikoan analizatzea.
- Zenbait informazio-iturriren analisi kritikoak egitea.

2. Ariketen segida

ARIKETA: *Instituzio politikoak eta Estatuarenak*

- *Deskribapena:* Ikasleei giza instituzioei buruzko bi testu banatuko zaizkie. Horiek bakoitzak irakurri ondoren, ikasleak bildu egingo dira talde txikitan, proposatutako instituzioak politikoak zein diren eta, gainera, Estatuarenak horietako zein diren bereizteko. Horretarako, aurkezten zaien taula bete beharko dute.
- *Beharrezko materiala:* 1. ariketa.
- *Dinamika:* Banaka eta taldeka.
- *Ikus:* *Irakasleentzako erantzunak.*

ARIKETA: Instituzioak: botere-arazoa

- *Deskribapena:* Gai honetako edukiari abiapuntua mugatu eta eskaintzeko, botereari eta instituzioei buruzko kontzeptuak aztertzen dituen sarrerako jardura proposatzen da. Ikasleek taula betetzeko ariketa erraz baten bidez, instituzioek gure gizarteak lan egiteko funtsezko elementua dela ohartuko gara. Boterearekin estu lotuta daudela ere ohartuko gara.
- *Beharrezko materiala:* 2. ariketa.
- *Dinamika:* Banakakoa eta elkarrekin ados jartzea.
- *Kalkulatutako denbora:* 20 minutu.
- *Ikus:* Irakasleentzako erantzunak.

ARIKETA: Botereari obeditzea?

- *Deskribapena:* Pedro Guerra-ren "Boterearen kontra" abestitik abiatuko da. Kantu horrek edozein motatako ezarpenak zalantzan jartzen ditu eta botereak gure bizitzako esparru guztietan eragiteko eta kutsatzeko duen ahalmena planteatzen du. Berger-en giza instituzioei buruzko testua irakurri ondoren, galdera batzuk proposatzen dira, ikasleak arauak betetzeaz eta desobedientziarako aukeraz gogoeta kritikoa egitera bideratzeko. Azkenean denak elkarrekin ados jarriko dira eta eztabaida txikia sortzeko aukera dago.
- *Beharrezko materiala:* Pedro Guerra-ren "Boterearen kontra" abestia, bibliografía eta Internet.
- *Dinamika:* Banaka eta taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko bi saio.
- *Ikus:* Irakasleentzako erantzunak.



4. ARIKETA: Boterea lortzea eta parte hartzea

- *Deskribapena:* Boterera iristea funtsezko elementua da pertsonak garatzeko eta bizitza duina izateko. Horregatik beharrezkoa da pertsona orok bere garapena definitu eta horretan parte hartzeko sarbidea izan dezan bultzatzea. Ariketa honetan girotzeko agiri bat irakurriko da eta ikasleei bizi izandako bi egoerari buruz gogoeta egitea eskatuko zaie: egoera bat boterea kendu egin diotela sentitu duenekoa izango da, eta bestea, kontrakoa sentitu duenekoa. Taldeka lan egingo dute egoera horietaz, dauden antzeko elementuak eta elementu desberdinak analizatuz. Gero gainerako kideei azalduko dizkiete ondorioak. Ondoren, erantsitako galderekin eztabaidarako bidea irekiko da eta berau aberastu egingo da ondoan doan agiriarekin.
- *Beharrezko materiala:* 4. ariketa.
- *Dinamika:* Banaka eta taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko bi saio.
- *Ikus:* Irakasleentzako erantzunak.

5. ARIKETA: Desobedientzia zibila

- *Deskribapena:* Botere-forma batzuk gizarte-bizitzarako beharrezkoak direla ikusi dugu. Aldi berean kritikarako gaitasuna ere beharrezkoa da arau horiek egoki noiz bete behar diren bereizteko. Orain kontzeptu berria sartuko dugu: desobedientzia zibila, boterearen aurrean dugun legezko eskubide gisa.
- *Beharrezko materiala:* 5. ariketa.
- *Dinamika:* Banakakoa eta elkarrekin ados jartzea.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko saio bat.

6. ARIKETA: Aginpidea edo boterea?

- *Deskribapena:* Botere-kontzeptuaren inguruan ibilbide laburra egin ondoren, haren esanahia mugatzeko unea heldu da. Zenbait arlotako (politika, gizarte, kirol, ikuskizun eta abarretako) pertsonaia ospetsuen argazkietatik abiatuta, ariketa bat proposatzen da eta bertan ikasleek taldetan eztabaidatu egin beharko dute ea irudietan azaltzen diren pertsonen aginpidea edo boterea duten. Gero, elkarrekin ados jartzean, talde bakoitzak gainerakoen aurrean arrazoitu egin beharko du kasu bakoitzean erabaki bat ala bestea zergatik hartu duten.
- *Beharrezko materiala:* Argazkiak eta dokumentazio osagarriak.
- *Dinamika:* Taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikus:* Dokumentazio osagarria.



1. ariketa



Instituzio politikoak eta Estatuarenak

1

Irakurri bakarka ondorengo testuak.

A TESTUA

Giza instituzioak, funtsean, bi motakoak dira:

A) GIZARTEKOAK. Gizarte-instituzioen adibideak honakoak dira: familia, ezkontza, senide-harremanak, etab. Giza komunitate guztiek antolatzen dituzte, era batera edo bestera, bizitzako arlo hauei dagozkien alderdiak. Instituzio gisa ezkontza gizartean gizonen eta emakumeen elkarrekin bizitzeko eta ugaltzeko harremanak ezartzeko era jakin bat da. Gure kulturakoa, adibidez, monogamiakoa da. Badira, ordea, beste ezkontza-mota batzuk ere. Gizon eta emakumeen arteko elkarketa antolatzeke erak desberdinak izan daitezke, baina gai horri buruz beti dago antolamenduren bat: gizona eta emakumea ez dira nahi dutenean eta nahi duten moduan lotzen, hortik zorigaiztoko ondorioak etorriko liratekeelako

(zein arduratuko litzateke seme-alabez?). Beti dago gauzak egiteko jakineko era bat, era zuzen bat (hau da, instituzionalizatutako era bat): ezkontzako instituzioa kultura guztiek dute. Beste kontu bat da instituzio horrek hainbat formazitea: ezkontza monogamoa, poligamoa, etab.

B) POLITIKOAK. Gizarte batekoak diren biztanleen ondasun komunak eta eskubide zein betebeharrak kontrolatu, arautu eta administratzeko ahalmenarekin zerikusia dutenak dira. Edozein kulturatan daude, baina (ezkontza bezala) zenbait eratakoak daude. Instituzio politikoak dira, adibidez, jaun feudala, sultan arabiarra, tuareg nomaden klan bateko buruzagia, inken enperadorea, AEBetako presidentea, etab.

B TESTUA

Badirudi gizarte guztietan beti egon direla instituzio politikoak. Afrikako tribu batean, esaterako, jarduera "politikoa" bertako buruzagiarekin elkar dezakegu, aginpide gorena duelako eta eguneroko bizimoduan sor litezkeen gatazkak ebazteko arduraduna delako. "Estatu" kontzeptua, ordea, askoz ere zehatzagoa da. Europako gizarteetan sortu zen Erdi Aroaren amaieran, XVI. mende aldean, eta ildo horretan hitz hori lehen aldiz erabili zuena MAKIAVELO izan zen. Erraz ulertzeko honakoa esango dugu: tribuan beti botere politikoaren forma bat egongo litzateke, baina "Estatua", ikuspegi

honetatik begiratuta, konplexuagoa da, Industria Iraultzaren eta zientzia modernoaren garapenarekin azaldutako nazioei dagokiena. Estatuaren definizio bat honako hau izango litzateke:

ESTATUA: antolamendu politikoaren era bat da, lurralde jakin batean botere iraunkor eta eztabaidaezina duena. Botere hori instituzio batek baino gehiagok erabiltzen badu ere (instituzio juridikoek, administratiboek...) bat bakarra eta esklusiboa da. Bestela esanda, subiranoa da. Oinarrizko eginkizunak egonkortasunari eta ordenari eustea da, eta horretarako indarkeriaren monopolioa du.

2

Taldetan osatu ondorengo taula, lehenbizi instituzio hauetan politikoak zein diren (1. zutabea) eta bigarrenik Estatuarenak zein diren (2. zutabea) adierazita.

	<i>Politikoak?</i>	<i>Estatua?</i>
<i>Familia</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Alkatetza</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Jaun feudala</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Erromako tenplua</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Siouxen buruzagia</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Egiptoko faraoia</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Ospitalea</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Gobernuko lehendakaritza</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Epaitegia</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Katedralaren arkitektoa</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Txinako enperadorea</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Ogasun Ministerioa</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Enpresa multinazionala</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Aldizkaria</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Parlamentua</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>





Irakasleentzako erantzunak

Irakasleentzako erantzunak

	Politikoak?	Estatua?
<i>Familia</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Alkatetza</i>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<i>Jaun feudala</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Erromako tenplua</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Siouxen buruzagia</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Egiptoko faraoia</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Ospitalea</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Gobernuko lehendakaritza</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<i>Epaitegia</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<i>Katedralaren arkitektoa</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Txinako enperadorea</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Ogasun Ministerioa</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
<i>Enpresa multinazionala</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Aldizkaria</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Parlamentua</i>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>



2. ariketa



Instituzioak: botere-arazoa

1

Instituzioan funtsezko elementuak dira gure gizartearen funtzionamenduan. Horretaz ohartzeko osatu bakarka ondoko taula.

Nork ezartzen ditu arauak?	Non?	Zer tresna ditu ezartzeko?	Norengan?
			Seme-alabengan
	Futbol-partidan	Kanporatzea	
Irakasleak			

Zer gauza komun dutela uste duzu?

27

2

Instituzioek erabakitzen dute horien barnean gaudenean zer egin dezakegun eta zer ez. Adierazi zein ekintza debekatuta dauden ondoko instituzioentzat:

Instituzioa	Debekatutako ekintza	
Futbol-partida	Ezin dugu ...	Adibidez: Eskuaz baloia ukitu
Ikasgela	
Familia	
Epaiketa	
Ospitalea	
Hauteskundeak	
Jatetxea	
Zinea	

3

Pentsa ezazu aurreko instituzioetan muga edo debeku horiek egongo ez balira, zer gertatuko litzatekeen.



Irakasleentzako erantzunak

1 Taula

Nork ezartzen ditu arauak?	Non?	Zer tresna ditu ezartzeko?	Noren aurrean?
Gurasoek	Familian	Zigortzea	Seme-alaben aurrean
Arbitroak	Futbol-partidan	Kanporatzea	Jokalariengan
Irakasleak	Ikasgelan	Notak eta zigortzea	Ikasleak

Zer gauza komun dutela uste duzu?

Boterea

28

2 Taula

Instituzioa	Debekatutako ekintza	
Futbol-partida	Ezin dugu...	Adibidez: Eskuaz baloia ukitu
Ikasgela		Adibidez: Nahi dudanean alde egitea
Familia		Adibidez: Etxera berandu iristea
Epaiketa		Adibidez: Gezurra esatea
Ospitalea		Adibidez: Erretzea
Hauteskundeak		Adibidez: N.A.N. gabe botoa ematea
Jatetxea		Adibidez: Eskuekin jatea
Zinea		Adibidez: Garrasi egitea



Actividad 3



¿Obedecer al poder?

1

Escuchad con atención la canción “Contra el poder”, del cantautor Pedro Guerra, y tratad de completar los espacios de la letra que aparecen en blanco.

Pedro Guerra. Álbum “Raíz”
CONTRA EL PODER

Contra el poder
contra el poder que nos enseña sólo aquella mitad
contra el poder de las verdades
contra el poder de quien conoce pero de más
contra el poder de las canciones guardadas
contra el poder que nunca abraza a los que
contra el poder que nos los pasos
contra el poder que siempre en nombre de la
contra el poder que nos convierte en
contra el poder
que y nada da, que sólo quita
y lo que está
contra el poder...
contra el poder
en cualquier forma que se dé
contra la y mal uso de la fe
desde el poder...
contra el poder que abre una zanja entre el amor y el placer
emparentando el y la
contra el poder que no distingue entre y
contra el poder que compra y vende la
contra el poder que hace del padre ostentador del poder
contra el poder que nos a engañarnos
contra el poder que hace a los hijos reinventar el poder
contra el poder de los que
contra el poder...
contra el poder que no descansa y se detiene a beber
junto a las fuentes del y
contra el poder que nos bendice en el hogar del poder
contra el poder del la y los juegos
contra el poder...

- En la canción, ¿qué características tiene el poder?
- ¿Qué razones encontraréis para cumplir las normas?
- ¿Conocéis alguna institución en la que nadie ostente el poder?
- ¿Consideráis que el poder es siempre algo negativo?
- ¿Qué rasgos creéis que ha de tener una administración de poder para ser catalogada como “justa”?



Irakasleentzako erantzunak

Pedro Guerra. “Raíz”. *CONTRA EL PODER*

Contra el poder
 contra el poder que nos enseña sólo aquella mitad
 contra el poder de las verdades **dobladas**
 contra el poder de quien conoce pero **sangra** de más
 contra el poder de las canciones guardadas
 contra el poder que nunca abraza a los que **pueden pensar**
 contra el poder que nos **vigila** los pasos
 contra el poder que siempre **miente** en nombre de la **verdad**
 contra el poder que nos convierte en **extraños**
 contra el poder
 que **debilita** y nada da, que sólo quita
 y **deshace** lo que está
 contra el poder...
 contra el poder
 en cualquier forma que se dé
 contra la **fuerza** y mal uso de la fe
 desde el poder...
 contra el poder que abre una zanja entre el amor y el placer
 emparentando el **bienestar** y la **herida**
 contra el poder que no distingue entre **morir** y **crecer**
 contra el poder que compra y vende la **vida**
 contra el poder que hace del padre ostentador del poder
 contra el poder que nos **obliga** a engañarnos
 contra el poder que hace a los hijos reinventar el poder
 contra el poder de los que **piensan ganando**
 contra el poder...
 contra el poder que no descansa y se detiene a beber
 junto a las fuentes del **sabor** y el **deseo**
 contra el poder que nos bendice en el hogar del poder
 contra el poder de la **ignorancia** y los juegos
 contra el poder...



4. ariketa



Boterea lortzea eta parte hartzea

1

Ariketa girotzeko

1989an, Bruselan, Europako Komunitateko GKEen Batzar Nagusiak zenbait gomendio plazaratu zituen emakumeak eta elikagai-arazoak, zorra, larrialdi-egoerak, populazioa eta irudia gaien inguruan. Batzarraren txostenak honakoak azpimarratzen ditu:

"Hainbat arlo aztertu arren, nabarmena izan da funtsezko bi hitz Batzar Nagusiko eztabaida guztietan azaltzea: boterea lortzea eta parte hartzea. Beraz, politikari buruzko gomendio guztietan mezu bera dago: emakumeek boterea lortzea eta baldintza berdinekin, bai proiektuetan eta bai politiketan, parte har dezaten segurtatzea."

2

Pentsa ezazu zuk bizi izandako bi egoerez: batean botererik gabe sentitu zinen edo parte hartzen ez zizuten utzi, eta bestean boterea eta parte hartzeko aukera izan zenuela sentitu zenuen.

3

Bi egoerak parekatu, egoera bakoitzeko (boterearekin eta botererik gabe) elementu komunak eta desberdinak atera eta gainerako kideei era originalean aurkeztzen saiatu (antzezuz, abestuz, kontakizuna idatziz...).

4

Gogoeta taldeka egiteko galderak

- Zein dira boterea eta parte hartzeko aukera izandako (boterea lortua zenuen) eta ez izandako egoeretako alderdi komunak?
- Zein dira desberdintasunak? Zergatik?
- Errazagoa al da botererik ez duguneko egoerei antzematea parte hartzen eta erabakitzen duguneko egoerei baino?
- Zer esan nahi du orain "botereak"? Boterea zanpatzailea al da?
- Instituzioek pertsonak boterez hornitu eta botererik gabe utz al ditzakete?



Dokumentazio osagarria

Boterea eta boterea lortzea

Boterea lortzea hitzak emakume-taldeak hasi ziren erabiltzen; horregatik leku askotan hitz hauek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunagatik egiten den borrokarekin lotuta ikusiko dituzu. Hala ere, gaur egun hitz interesgarriak eta argigarriak dira zokoratuta dauden talde guztiak gizartera sartu ahal izateko.

"Emakumeen boterea handiagotzeko egiten diren ahalegin gehienetan boterea mugatua dela dioen ideia egoten da oinarrian: batek gehiago baldin badauka, besteak gutxiago edukiko du." Nik zugar boterea baldin badut, zure boterea handiagotzea nire boterearen kaltetan gertatzen da. Botere hori nagusitasun/mendekotasuneko harremana da, **norbaiten gaineko boterea**. Gizartean onartzen diren indarkeria- eta beldurrarazte-formak dira, erresistentzia aktiborako eta pasiborako bideratzen du eta mantentzeko etengabe zaindu behar da.

Badaude aukerak. **Boterea zerbaitetarako** dela pentsa dezakegu, sortzailea dela eta zerbait egiten uzten duela, boterea lortzeko norbanako-alderdiaren funtsa dela. Indartuta sentitu zireneko egoerak azaltzen dituzten pertsona gehienek, arazoa konpondu, zerbait ulertu edo trebetasunen bat lortu zute-nekoak aipatzen dituzte.

Talde gisa pertsonak bere burua antolamenduaren bidez boterea lortuta sentitzen du eta helburu komun baterako besteekin elkartuta dagoela ere bai. **Boterea norbaitekin** kontzeptuak bere barnean osotasuna norbanakoen batura baino handiagoa dela dioen sentimendua du, batez ere taldea arazo bat konpontzeko elkarlanean aritzen denean.

Beste botere-mota bat **barne-boterea** da, gutako bakoitzaren baitan dagoen gotorleku espirituala eta gizaki peto bihurtzen gaituena. Norbere burua onartu eta norbere burua errespetatzean oinarritzen da, zeina besteak errespetatuz eta berdin gisa onartuz adierazten baita. Kultura tradizioaletan xaman, petrikilo eta jakintsuek botere hori zutela pentsatzen zen eta maiz ibiltzen ziren horien bila aholkua eskatzeko. Ipar Amerikako indigenen batzarretan hitz egin ahal izateko makila edukitzeak hizlari bakoitzaren barne-boterearen balioa adierazten du.

Norbaiten gaineko botereak dualtasun sinpleak behar ditu: ongia/gaizkia, gizona/emakumea, aberatsa/pobrea, zuria/beltza, gu/haiek. Desberdintasunak badira eta talde desberdinek oso bestelako interesak dituzte. Barne-botereak badu gutako bakoitzaren indar eta ahulezien berri eta desberdintasunik ez du automatikoki ematen eta dikotomiatan ere ez du kategorizatzen. **Barne-botereak** norbere burua onartzearen eta norbera errespetatzearen osagarritasuna azpimarratzen du, eta ez dualtasuna eta bestearen zenbait alderdi gudan antzematea.

Botereaz dugun ikusmoldea aldatu beharra dugu eta norbaiten gaineko botereari era sortzailean erresistentzia egin beharra ere bai. Gandhi-ren indarkeriarik gabeko erresistentzia berebiziko adibidea da. "**Boterea zerbaitetarako**", "**boterea norbaitekin**" eta "**barne-boterea**" kontzeptuak eta hauen arteko harremanak aztertu beharra daukagu.



5. ariketa



Desobedientzia zibila

1

Idazlan honetan desobedientzia zibilaren funtsezko ezaugarri batzuk azaltzen dira; baita desobedientzia zibilaren forma zehatz batzuk ere. Irakurri bakarka artikulua eta saia zaitez desobedientzia zibilak dituen funtsezko ezaugarriak ateratzen. Gainera, aukeratu zuk sakondu nahi duzun desobedientzia zibileko gai bat: etorkinei laguntzea, objekzio fiskala, kontzientzia medikoaren objekzioa...

"Herritar onak ez du beti obeditzen"

Ez esanda

URTEAK DARAMATZA IRAKURTZEN, GALDERA BATZUEK ERAIKITAKOAK BESTE BATZUETARA ERAMATEN DUTELAKO. UMEEK NAGUSIEI EZETZ ESATEAREN PODERIOZ BEREN NI-A NOLA ERAKITZEN DUTEN AZALDU NAHIAN HASI ZEN ETA AZKENEAN MARTIN LUTHER KING-EN DESOBEDIENTZIA BELTZENTZAT BAINO EZ ZIREN IKASTETXEAK ONARTZEN ZITUZTENEN OBEDIENTZIA BAINO BIDEZKOAGOA ZELA FROGATU ZUEN. AZKENEAN HONAKOA FROGATU DU: ALEGIA, HERRITARROK ETA ARDIAK BEREIZTEKO ARRAZOAIA, GUK OBEDITZEN ARI GARELA JAKITEA ETA HILTEGIRA GARAMATZAN ARTZAINARI EZ GENIOKEELA JARRAITU BEHAR JAKITEA IZANGO LITZATEKE. HERRIEK ERE EZETZ ESATEN DAKITEN HERRITARREI ESKER EGITEN DUTE AURRERA. ORAIN IRONIA IKERTZEKO DUEN PROIEKTUAK BADIRUDI URRUN ERAMANGO GAITUELA, BAINA BARRE-ALGARAREN BERTUTEAK DEFENDATZEN HORI BAINO SERIOAGORIK EZ DUT INOR EZAGUTU. LLUÍS AMIGUET

autobideko bidesaria ordaintzen ez badut... gaizkile lotsagabea ala eskubide zibilaren heroia naiz?

Desobedientzia anaitasun-gogoetaren ondorio baldin bada... desobedientzia zibileko kasua izango litzateke.

Eta...?

Ikus dezagun: helburua bidesaria aurrezteko besterik ez baldin bada, desobedientzia hori ez da bidezkoa.

Lotsagabea besterik ez naiz.

Bai. Baina helburua bidesariak kenaraztea bada eta kentze horrek guztien egiazko egoera hobetuko balu, bidezkoa izango litzateke. Guztien eskubideak kontuan dituen desobedientzia baino ez da baliozkoa. Norberaren, norbere taldearen, familiaren edo korporazioaren mesederako dena ez da bidezkoa.

Eta bidesaria kentzeak gehienei mesede egiten diela esaten badut? Hori ez al da nahikoa?

Ez. Gehienen eskubideak ez dira "guztien ona". Desobedientziak guztientzat (baita gutxiengoentzat ere) onuragarria den aldaketa izan behar du helburu. Gehienei mesede egiten dien legea, gutxi batzuei kalte egiten diela, ona dela dioen nozioa etika utilitaristaren akatsa da.

Bada, berez ontzat har daitekeela ematen du.

Ikus dezagun: pentsa dezagun zu ijitoa zarela

Ongi.

Eta zure auzoko beste hiru ez direla. Igerilekua eraiki nahi dute, eta estatutuak idazten dituztenean zu kanpoan utzi zaituzte eta igerilekua erabiltzen ez dizute uzten ijitoa zarelako. Utilitaristek honakoa esango dute: gehienentzat mesedegarria denez gero, bidezkoa da. Hala ere, bidegabekeria handia litzateke.

Ados nago.

Beraz, ehuneko 75ak baietza emandako legea gehienentzat mesedegarria izanda ere, kaltetutako gutxiengoak igerilekuan bainua hartzeko eskubidea izango luke. Bidezko desobedientzia zibileko kasu bikaina izango litzateke: obeditu beharrik ez zenuke izango eta, are gehiago, kontzientziaren arabera zure eginbeharra bidezkoa ez den araua ez betetzea izango litzateke, nahiz eta neurria legezkoa eta gehienek hartutakoa izan. Herritar onak ez du beti obeditzen.

Eta zer diozu antiglobalizazioaz?

Azter dezagun alderdi bat: toyotismoa.

Aurrera.

Aldi baterako kontratuak dituzten langile gutxi batzuk botatzea da. Gehienek beren enpleguari eusteko ekonomiaren aldetik gomendagarria izan daiteke, baina etikaren aldetik objektzioak jartzetik badago eta, ondorioz, lanetik bidaltze hori babes-ten duen legeari ez zaio obeditu behar.

Baina gehienentzat aurrerapena da.

Enpresaburuek "egiturazko langabezia" hori behar dute zenbait egoera saihesteko eta Estatuetatik langileak botatzeko legeak lortzen dituzte, komeni zaien moduan langile-kopurua murrizteko.

Ez da hain erraza.

Bai, erraza da. Marxek zioenez, nazioetako gobernuak burgesiaren administrazio-kontseilua besterik ez dira.

Guztien lana eta aurrerapena salbatzeko gutxi batzuk botatzea baliagarria da...

Gaiztoa ere bai. Beti berak izaten dira kaltetuak: emakumeak, gazteak edo 45 urte baino gehiagokoa. Gehien onura mantentzeko gutxi batzuk zokoratu egiten ditu. Kasu honetan bidezkoa dela iruditzen zait desobedientzia zibila, nahiz eta legezkoa izan ez.

Globalizazioaren aurkakoez arrazoi al dute?

Herrialde pobreenen sistemak zokoratutako langileentzat ere printzipio bera erabili ahal izango litzateke... Baina herrialde pobre horiek, gehienak dira!

Beraz, erakuslehoak haustera?

Inoiz ere ez! Desobedientzia zibilean, Gandhik zioenez, bitartekoez helburuek bezain garbiak izan behar dute. Desobedientzia zibilak ezin du apustu makiavelikoa izan.

Indarkeriak edozein helbururi bidezkotasuna kentzen al dio?

Bai. Erabat bai..

Gandhi Otegiren kontra?

Garbi dago Herri baten independentzia defenda daitekeela. Hori bidezko helburua da, baina hilketak bidez ezin da egin.

Estatuak zanpatutako herri, odol, gerra eta traizioen gainean eraiki ziren.

Horrexegatik! Gerra eta hilketaz nazio bat baino gehiagoko Estatua desegin nahi izateak, zalantzan jartzen den Estatu hori eraikitze erabilitako hilketak bidezkoz hartzen dira. Terroristek beren hilketekin bidezko kausa bidezko ez izatea eragiten dute. Ados, pentsa dezagun bidezko kausa dugula.

Ez obeditzeko biderik onena zein da?

...Barrea.

Tiananmen-go tankeen aurrean barre egitea?

Satira eta ironia pistolak baino eraginkorragoak dira botere-gehiegikerien aurka. Irakur itzazu Sokrates-ek sofistekin izandako elkarriketak edo Shakespeare-ren "Lear Erregea". Bufoiak baino ezin dio erregeari zein astakirtena den esan. Freud-ek beste adibide bat eskaini zuen...

Aurrera.

Elkarren lagun ziren bi aberats berrik, pintatzaile ospetsu bati haien erretratuak egiteko enkargua eman zitoten eta arte-kritikari onena gonbidatu zuten festa handi batera artelanak ikustera. Aretoan esekita zeuden bi koadroak erakutsi zizkieten, iritzia emango zuelakoan...

Zer? Gustukoak al dituzu?

Kritikariak bi koadroen arteko tartea seinalatu eta honakoa galdetu zuen: "Eta Jesukristo?"

Fina eta suntsitzailea.

Baina nire tesia maitasunagatik obeditzen ez duen Antigona-ri eskaini diot; izan ere, adeitasun-loturak lege guztien gainetik baitaude. Gaur egun norbanako eskubide batzuk Estatuaren legeen gainetik daudela esango genuke. Baina Antigona-k batez ere bidegabekeriazko legeak ez betetzeko adibidea eskaintzen du.

Ez Hitlerrek eta ez Francok, ez zuketzen jende askoren desobedientzia zibilarekin irauango.

Thoreau kartzelara joan zen, Mexikoren kontrako gerra inperialista ez finantzatzeko eta esklabotza-ren kontra egiteko zergak ez ordaintzeagatik. Arrazoiz utzi zion obeditzeari.

Ramón Camats-i egindako elkarriketa
"La contra"n (La Vanguardia) argitaratua,
2001eko irailaren 8an.

Interesen araberako taldeka (aukeratutako gaiaren arabera), desobedientzia zibilaren ezau-garrieti buruz ados jarri eta desobedientzia zibilean dauden formei buruzko azterketa egin. Era erakargarrian prestatu, gero ikasgelako gainerakoei aurkezteko.

Informazioa lortzeko zenbait web orri

- <http://www.noviolencia.org/objecion.htm>
- www.nodo50.org/racismo/desobediencia.htm
- desobedienciacivil.pangea.org/castellano/queesesp.htm
- <http://www.comcas.es/b90/laobjecion.htm>
- <http://www.euskalnet.net/ga/OF.html>





Aginpidea edo boterea?

1

Orain arte gure inguruan **botere**-forma batzuk badirela eta horien beharra dagoela ikusi dugu. Gainera, **aginpide**-kontzeptuarekin duen harremanaz ohartu gara.

Bi kontzeptuok honela laburbil ditzakegu:

Boterea: norbanakoak edo pertsona-talde batek bere borondatea besteengan ezartzeko duen ahalmena, azken hauen borondatea eta nahia edozein izanda ere.

Aginpidea: pertsona batzuek beste batzuegan eragina izateko duten ahalmena, azken hauek inola ere (ez fisikoki eta ez ekonomikoki) behartu gabe, hau da, ahalmen horren sorrera ekintza-hartzailearen borondatean egonda.

Bi kontzeptu hauetatik abiatuta, hurrengo ariketa proposatzen dizuegu: ondoko argazkietan gizartean eta politikan ospetsu diren pertsona batzuk azaltzen dira. Begiratu arretaz eta taldeka saiatu jakiten ea horietako bakoitzak boterea ala aginpidea duen. Boterearen eta aginpidearen artean dagoen harremanaz gogoeta egingo dugu horrela. Boterea dagoen guztietan aginpideaz erabiltzen al da? Aginpideaz erabilitako boterearen eta aginpiderik gabe erabilitakoaren artean zer desberdintasun dago? Zer gertatzen da boterea bai eta aginpiderik ez dagoenean?...*

36



Bill Gates, munduko pertsona aberatsenetakoa da.




Lady Di, Gales-ko printzesa.

* Pertsonaia hauen biografiak ondoko helbide elektronikoan kontsulta ditzakezue: <http://www.aldeaeducativa.com/aldea/busca-dor9.asp>.




Bill Margaret Thatcher, Britainia Handiko lehen ministro ohia.



Kofi Anan, Nazio Batuetako idazkari Nagusia.



Isabel Allende, idazle txiletarra.




Migel Indurain, txirrindulari nafarra.



Rigoberta Menchú, 1992an Bakearen Nobel saria lortutakoa.




Dalai Lama, buruzagi budista.



1.2.

Estatua eta legitimitatea: Giza Eskubideak



Irakasleentzako gida

38

1. Helburuak¹

- Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala ezagutzea eta hiru eskubide-belaunaldi daudela jakitea.
- Estatuak gure eskubide eta betebeharren bermatzaile gisa duen eginkizuna analizatzea.
- Herritarren eskubideak eta erantzukizunak egoteko premia kontzientzia hartzea.
- Beren eskubideak bortxatzen dizkieten pertsonetako anaitasuna sustatzea.
- Estatuari eskubideen bermatzaile gisa dituzten eginkizunak bete ditzaten exijitza duen garrantziaz ohartzea.

2. Sekuentzia

7. ariketa: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

- *Deskribapena:* Ikasgelako ikasleak 6 pertsona inguruko taldeetan banatu eta bakoitzari ONUren Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren kopia bana emango zaio. Deklarazio hori irakurri ondoren, talde bakoitzak Deklarazioa idatzi zeneko egoera zehatza ikertu beharko du.
- *Beharrezko materiala:* Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta kasu praktikoak.
- *Dinamika:* Taldeka eta elkarrekin ados jartzea.

¹ Ariketa hau egin aurretik komeni da ikasleek ondoko kontzeptu hauek ulertzea: botere politikoa, Estatura, subiranotasuna eta Estatuaren botere klasikoak.

- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko bi saio.
- *Ikus:* Irakasleentzako dokumentazio osagarria eta irakasleentzako erantzunak.

8. ARIKETA: Nire eskubideak, gure eskubideak, haien eskubideak

- *Deskribapena:* Talde bakoitzari 8 kasu praktiko emango zaizkio. Kasu horietan egoera zehatzak daude eta eskubide batzuk bortxatuta azaltzen dira. Ikasleei proposatzen zaien ariketan talde bakoitzak kasu bakoitzean zein eskubide bortxatzen den aurkitzea da; baita eskubide hori Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsaleko zein artikulutan aipatzen den ere. Gero elkarrekin ados jarriko dira. Kasu guztiak irakurriko dira (46 guztira) eta taldeek bakoitzari emandako erantzunak jakinaraziko dira.
- *Beharrezko materiala:* Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta kasu praktikoak.
- *Dinamika:* Taldeka eta elkarrekin ados jartzea.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko bi saio.
- *Ikus:* Irakasleentzako erantzunak.

9. ARIKETA: Hiru belaunaldiako eskubideak

- *Deskribapena:* Giza Eskubideen hiru belaunaldi daudela planteatzen da ariketa honetan eta Estatuak eskubide eta betebeharren bermatzaile gisa duen eginkizunaz gogoeta kritikoa egitera bideratzen da. Lehenbizi ikasleei eskubide-zerrenda proposatzen zaie eta giza eskubideen hiru belaunaldiak kontuan hartuta sailkatu egin beharko dituzte. Gero taldetan, eskubide horien arabera Estatuak duen eginkizunaz eztabaidatuko da. Ariketa elkarrekin ados jarrita amaituko da eta bertan ikasleek gaiari buruz duten iritzia azalduko da.
- *Beharrezko materiala:* Eskubideen zerrenda.
- *Dinamika:* Taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko saio bat.
- *Ikus:* Dokumentazio osagarria.

10. ARIKETA: Aurpegia eta gurutzua

- *Deskribapena:* Legitimitatearen eta legezkoatasunaren kontzeptuen artean dagoen desberdintasunetik abiatuko gara. Lau dilematik abiatuz eta ikasgelako jendea taldetan banatuta, ikasleek bereizi egin beharko dituzte zein jarduera diren legezkoak edo/eta legitimoak.
- *Beharrezko materiala:* Dilema moralak.
- *Dinamika:* Taldeka.
- *Kalkulatutako denbora:* 50 minutuko saio bat.



7. ariketa



Giza Eskubideen deklarazioa

1

Taldeka, irakurri Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala.

2

Ikertu ea Deklarazioa nork idatzi zuen, zein datatan eta hori idazteko zein egoera zehatz izan zen (politika eta gizarte aldetik munduan zegoen egoera)².

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

HITZAURREA

KONTUAN IZANIK munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdin eta ukaezinetan oinarritzen direla;

KONTUAN IZANIK giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotatik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

KONTUAN IZANIK ezinbestekoa dela giza eskubideak Zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia-tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin;

KONTUAN IZANIK ezinbestekoa dela, halaber, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea;

KONTUAN IZANIK Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarritzko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jaso-tzeko erabakita daudela adierazi dutela;

KONTUAN IZANIK Kide diren Estatuak, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarritzko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela;

KONTUAN IZANIK emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdin ulertzea;

² Bibliografia: Leah Levin, Derechos Humanos: preguntas y respuestas, Bakeaz argit./ Ediciones Unesco, Bilbo 1999.

BATZAR NAGUSIAK

Adierazten du

GIZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSAL HAU EGITEN DU Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Deklarazio honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultza dezaten irakas-kuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio-mailan eta nazioarte-mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezten ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatuetako herrien artean eta baita horien eskumenean dauden lurraldeetan ere.

1. ATALA. Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2. 1. ATALA. Gizaki orori dagozkio Deklarazio honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereiziko arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikako edo bestelako iritzi, sorterri edo gizarteko jatorri, ekonomia-maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheratik.

2.2. Ez zaio begiratu gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari ere, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituena.

3. ATALA. Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. ATALA. Inor ez da izango besteren esklabo edo uztarpeko; debekatuta dago esklabotza eta esklaboen salerosketa oro.

5. ATALA. Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

6. ATALA. Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitortu diezaioten eskubidea.

7. ATALA. Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babes izateko eskubidea. Denek dute Deklarazio hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragilean aurka babes berbera izateko eskubidea.

8. ATALA. Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarriko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurso eraginkorra jartzeko eskubidea.

9. ATALA. Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

10. ATALA. Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikeriarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeke.

11. 1. ATALA. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

11.2. Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

12. ATALA. Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan esku-sartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babes izateko eskubidea.

13. 1. ATALA. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzeko.

13.2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzeko.

14. 1. ATALA. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babes bilatu eta izateko eskubidea.

14.2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

15. 1. ATALA. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.

15.2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

16. 1. ATALA. Gizonek eta emakumeek, ezkontinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatiko inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.

16.2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.

16.3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

17. 1. ATALA. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.

17.2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.

18. ATALA. Pertsona orok pentsamendu-kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinismena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinismena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

19. ATALA. Gizabanako guztiek dute iritzi- eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

20. 1. ATALA. Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.

20.2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

21. 1. ATALA. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.

21.2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.

21.3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldian-aldian egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

22. ATALA. Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomia-, gizarte- eta kultur mailako eskubideak aseta izatekoa.

23. 1. ATALA. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzeko, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.

23.2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.

23.3. Lanean ari denak bidezko lansaria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Lansaria horretarako aski ez bada, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.

23.4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

24. ATALA. Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

25. 1. ATALA. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.

25.2. Amek eta hurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

26. 1. ATALA. Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarritzko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarritzko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa tekniko eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi-mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.

26.2. Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkarulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen jarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

26.3. Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza-mota aukeratzeko.

27. 1. ATALA. Pertsona orok du eskubidea elkar-terko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, arte-lanez gozatzeko, eta zientzia-aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.

27.2. Zientzia-, literatura- edo arte-mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien.


28. ATALA. Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Deklarazio honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte-mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

29. 1. ATALA. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.

29.2. Pertsona orok, gainerako herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko legez ezar daitezten mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.

29.3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta irizpideen aurka.

30. ATALA. Deklarazio honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Deklarazio honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo jardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.





Dokumentazio osagarria

Ariketa hau egoki egiteko, beharrezkoa da ikasleek oinarrizko kontzeptu hauek ulertzea.

Estatuari buruzko teoria

1. Botere-nozioa

Boterea norbanakoak edo pertsona-taldeak bere borondatea besterengan ezartzeko duen ahalmena dela esan daiteke, azken hauek duten borondatea edo nahia edozein izanda ere. Botereak gure bizitzako esparru guztiak hartzen ditu: familian, eskolan, bikote-harremanetan, enpresetan eta abarretan erabiltzen da.

Lehen galdera, beraz, honakoa izango litzateke: boterea beti negatiboa eta kaltegarria al da? Gure bizitzan nola edo hala botere-ahalmena duen edozein maila desagerraraztea egokia al litzateke?

Galdera hauek eta botereak izan ditzakeen hainbat eta hainbat aldagai alde batera utzita, hemen oso botere-mota jakin bati helduko diogu: **BOTERE POLITIKOARI**. Botere hori Estatuarekin identifikatzen denez gero, hitz horrekin zer esan nahi dugun aztertuko dugu.

2. Estatua

Estatuaren kontzeptura hurbiltzen garenean hitz horren hiru esanahi bereiz ditzakegu:

- a) Esanahi zabala. Botere politikoa duten gizarteko instituzioen multzoarekin identifikatzen da, hau da, guztien ondasunak eta herritarren eskubide eta betebeharrak kontrolatu, arautu eta administratzeko ahalmenarekin. Badirudi gizarte guztietan izan direla instituzio horiek. Afrikako tribu batean, adibidez, "Estatua" bertako buruzagia dela esan dezakegu; izan ere, aginpide gorena du eta eguneroko bizimoduan sortzen diren gatazkak ebazteko arduraduna da. "Estatua", beraz, botere politikoaren edozein forma izango litzateke.
- b) Esanahi hertsia edo modernoa. Ikuspuntu honetatik "Estatua" askoz ere zehatzagoa da. Europako gizarteetan sortu zen XVI. mende aldera, eta ildo horretan hitza erabiltzen lehen pentsalaria Makiavelo izan zen. Antolatutako edozein giza taldeetan beti izango da jakineko botere-formaren bat, baina ikuspuntu honen arabera "Estatua" konplexuagoa da, Industria Iraultza eta zientzia modernoaren garapenarekin azaldu ziren nazioei dagokiena. Definizio bat honakoa litzateke:

Estatua: antolamendu politikoaren era bat da, lurralde jakin batean botere iraunkor eta eztabaidea duena. Botere hori instituzio batek baino gehiagok erabiltzen badu ere (instituzio juridikoen, administratiboen...) bat bakarra eta eskusiboa da. Bestela esanda, subiranoa da. Oinarrizko eginkizunak egonkortasunari eta ordenari eustea da, eta horretarako indarkeriaren monopolioa du.

Azken definizio honetan funtsezko elementuak hauek dira:

Subiranotasuna: aginpide gorena izateak duen izena da. Estatuak men egiteko gorago mailarik ez dago. Horregatik esaten da Estatua "subiranoa" dela.

Lurraldea: Estatuak bere subiranotasuna esparru geografiko jakin batean erabiltzen du eta espazioan esparru horren mugak argi eta garbi zehaztuta daude. Lurralde horretatik kanpo Estatuak ez du inolako aginpiderik.

Indarkeriaren monopolioa: Estatuaren funtsezko ezaugarria da. Bere subiranotasuna ezartzen duen lurraldean, inongo pertsona isolatuk ezin du bere indarkeria fisikorako ahalmena erabili: horretarako legimitatea Estatuaren instituzioek baino ez dute. Gaur

egun munduko herrialde guztiek Estatuak dute. Beraz, funtsezko galdera honako hau da: Estatuak noiz da legitimak? Hau da, zein baldintza dauden esan dezakegu bidezkoa dela?

3. Legitimitatea

Estatuak legitimak noiz den eta noiz ez argitzeko zenbait teoria daude. Guk horietako bat erabiliko dugu: "kontraktualismo" deitutakoa. Teoria honen pentsalari klasikoak Hobbes, Locke eta Rousseau izan ziren.

Filosofo hauen planteamendua funtsean ondoan adierazitakoa da. Beren gogoetei honako galderarekin ematen diete hasiera: zer gertatuko litzateke Estaturik ez balitz? Beste era batera esanda: Estatuak zergatik da beharrezkoa? Zergatik dago? Eta egongo ez balitz gertatuko litzatekeena pentsatzen dute. Kasu horretan gizon eta emakumeak naturako egoeran egongo lirateke.

Naturako egoeran botere politikorik ez dago. Gobernurik ez dago, ez epailerik, ez polizia, ez inolako instituziorik. Hortaz, gizakiek beren burua defendatzeko, edo besteri eraso egiteko, beren indar fisikoak besterik ez dute. Legerik ez dagoenez gero, argi eta garbi dago indartsuenak nahi duena egingo duela; izan ere, inork eta ezerk ezin dio eragotzi. Hobbesek egoera hori erarik beltzenez deskribatu zuen: harentzat naturako egoeran "gizakia otsoa da gizakiarentzat" (latinez "Homo homini lupus") eta bizitza "bakartia, izugarria eta laburra" da. Inor ez dago seguru. Bizitza eta ondasunak ez daude inolara ere bermatuta, zeren indartsuagoa den edozein azalduz gero hiltzea edo lapurtzea inork ez baitio eragotziko. Pertsona batzuek beste batzuegan duten botere-iturri bakarra indar fisiko hutsa da.

Ondorioz, Estatuak hain egoera tamalgarririk ihes egiteko sortu zen. Oinarrizko ideia hau da: norbanakoak elkartu eta itun bat, kontratu bat (horregatik du "kontraktualismo" izena), sinatzen dute, eta itun horri esker Estatuak azaltzen da. Kontratu orok bere klausulak ditu, hau da, bi alderdientzako baldintzak. Kasu honetan ondorengo hauek dira:

Norbanakoak: konpromisoa hartzen dute inongo egoeran ere beren indar fisikoak ez erabiltzeko. Elkarren artean gatazkak sortzen direnean, Estatuarengana jo beharko dute eta Estatuak erabakiko du arazoa. Horrela, bere borondatea ezartzeko indarra erabil dezaketen bakarra Estatuak da, norbanakoak erabiltzea debekaturik dutelako. Horregatik Estatuak "indarkeriaren monopolioa" esanda definitu ohi da.

Estatuak: konpromisoa hartzen du norbanakoak heren esku utzitako indarkeria baldintza batzuen pean baizik ez erabiltzeko. Ezin du nahi duen bezala erabili. Funtsean indarra ezin du erabili norbanakoen eskubide naturalak defendatzeko ez bada. Eskubide horiek ondoko hauek dira:

1. Bizia. Pertsonaren biziari inork ezin dio erasorik egin.
2. Askatasuna. Estatuak norbanakoen kontzientzia-askatasuna, erlijio-askatasuna eta pentsamendu-askatasuna errespetatu egin behar ditu; irizpide sineste edo ideologia batzuek ezartzeko ezin du indarrik erabili.
3. Jabetza pribatua. Estatuak babestu egin behar ditu norbanakoen ondasunak, errespetatzen ez dituztenak jazarrita eta zigortuta.

Itun edo kontratu honekin gizon eta emakumeek norbanako izateari utzi eta herritar bihurtzen dira: beren Estatuak babestu beharreko eskubide batzuek dituzte.



8. ariketa



Nire eskubideak, gure eskubideak, haien eskubideak

1

Irakurri taldean ondoko kasu praktikoak. Denen artean adierazi horietako bakoitzean zein eskubide bortxatzen den eta eskubide hori Deklarazio Unibertsaleko zein artikulutan aipatzen den.

2

Ohartuko zineten alegiazko kasuak direla, baina funtsezko eskubide bat bortxatzen dela azaltzen dute. Zoritxarrez hori munduko leku askotan egunero gertatzen da. Irakasleak talde bakoitzari 5 kasu emango dizkio. Eskubide horiek bortxatzen diren egiazko 5 kasu aurkitu beharko dituzu. Azkenean talde bakoitzak egiazko kasuak ikasgelako gainerakoei azalduko dizkie eta egoera horiek konpontzeko edo horiei kontra egiteko eraren bat ere bai. Behar den informazioa ondoko web orrietan duzue:

Amnesty International: <http://www.a-i.es/http://www.edai.org>

Eskubideak: <http://www.derechos.org>

1. kasua

Estatuak erabaki duenez, herrialdeak biztanleria handiegia du eta gizartea askoz ere hobeto ibiliko da biztanle-kopurua murriztuta. Horretarako egunero pertsona-kopuru bat

hil egiten du eta zozketa bidez erabakitzen du zein desagerraraziko dituen. Egindako planaren arabera, neurri horrek bi urte besterik ez du iraungo; egoera hobetzen den arte, alegia.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

2. kasua

Zein karrera ikasi erabakitzeko orduan, zure herrialdeko legeak Unibertsitatera ikastera

1,70 metro baino altuagoak diren pertsonak baizik ezin direla joan ezartzen du.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

3. kasua

Zure tutoreak itxuraz arrazoirik gabe zigortu zaitu. Azalpenak ematea eskatu diozunean, zuk lagun bat gogor kritikatu egin zenuen

eskutitza erakutsi dizu. Dirudienez, zu Gorputz Hezkuntzako klasean zinela zure zorroa ireki egin du.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

4. kasua

Zure familiak orube edo lursail bat du hirian. Udalak han biltegi handi batzuk eraikitzea

erabaki du eta lurrak desjabetu egin dizkizue ordainetan ezer eman gabe.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

5. kasua

Zure herrialdeko gobernua herritarrek inoiz ez dute aukeratu eta herritarrek haren erabaketan inola ere eraginik ezin dute izan.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

6. kasua

Zure lagun batek janariak azkar prestatu eta ematen dituzten jatetxe batean lana aurkitu du. Arduradunari hauteskunde sindikalez gal-

detu dionean, aitzakiak emanez erantzun dio. Hurrengo egunean inolako arrazoirik gabe lanetik bota egin dute.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

7. kasua

Aurten zure ikastetxeko matrikula-plazak erdira murriztu dituzte eta zure gelako bost ikasleri ikastetxean ikasten jarraitzea debekatu egin diete. Hamasei urte dituzte, baina lanean hasi beharko dute.

tu egin diete. Hamasei urte dituzte, baina lanean hasi beharko dute.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

8. kasua

Zure arreba, hepatitis harrapatuta, gaixotu egin da. Gaixo denbora asko darama eta gurasoek eta zuk zeuk bizirik ateratzen larri

ibiliko dela uste duzue. Bizi zareten hirian medikurik ez da, ezta osasun-zerbitzuetarako jenderik ere. Beraz, inork ezin dio lagundu.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

9. kasua

Literatura oso atsegin duzu eta arlo horretan lan egin nahi duzu. Zure ametsa Filologia ikastea da eta, ahal izanez gero, idaztetik bizi nahiko zenuke. Zure gurasoek, ordea, Inge-

njaritza ikastera behartu zaituzte zeure gogoz kontra eta irakasleek gomendatutakoari aurka egingez.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

10. kasua

Matematikako azterketa ona egin duzu eta bikain edo oso bikain nota espero duzu. Irakasleak notak eman dizkizuenean zuri oso eskas ipini dizu eta ez dakizu zergatik. Irakaslearekin hitz egitera joan zarenean hark azterketak erakusteko eta berrikusteko ohiturarik ez duela esan dizu. Hori bidezkoa ez

dela erantzun diozu, baina zurekin hitz egiteari uko egin eta ebaluazioa suspenditu egin dizu. Zuzendariaren bulegora joan zara hase-rre, baina irakasleen hitzari aurka egiterik ez dagoela esan dizu, legeak irakasleari, ikasgaiei dagokienez, erabateko boterea ematen diolako.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

11. kasua

Zu bizi zaren hirian bat-batean lurrikara izan da eta etxebizitza, denda, ospitale, etab. sunt-situta geratu dira. Biztanle guztiak etxerik eta lanik gabe geratu dira. Janari, edateko ur eta sendagairik ez dagoelako ondoko hirira joatea erabaki duzue, beste hiri hori osorik dago-

elako. Hiriz aldatzen hasi zareten egunean, ondoko hiriko agintariek beren hiria, inor sar ez dadin, hesiekin inguratu eta zaintzeko bideokamerak eta segurtasun-polizia ipini dituztela sumatu duzue.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

12. kasua

Zure herrialdean erlijioz katolikoa zara, baina erlijio ofiziala beste bat da. Mezatara joatea eta jendaurrean edo ezkutuan otoitz egitea

debekatu egiten dizute. Agindua betetzen ez baduzu, kartzelara eramango zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

13. kasua

Zure herrialdeko gobernua gehiengo handiak aukeratu du. Horretaz baliatuta, hurrengo

hauteskundeak bertan behera utzi eta beti herriaren onerako gobernatzea erabaki du.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

14. kasua

Zure osaba hil ondoren, alarguna (zure izeba) ezer gabe geratu da: diru askorik ez zeukan aurreztuta eta izebak inoiz ez du lanik egin.

Orain, 70 urte beterik dituela, besteek emandako limosnetatik bizitzea beste aukerarik ez du.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

15. kasua

Gau batean zure lagunekin parkean hizketan ari zara. Bat-batean motorretan talde bat etorri eta irainka hasi zaizkizue. Zure lagun bat

jo egin dute eta haien "lurraldetik" ihes egiteko esan dizuete. Egoera hori zenbait asteburutan errepikatu egin da.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

16. kasua

Norbaitek zure ikasgelako arbelean Hizkuntza-irakaslea iraindu egin du. Mendeku moduan irakasleak zuetako bost, edozein,

ikasgelatik kanpora bidali ditu eta irakasgaia iraila arte suspenditu egin die.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

17. kasua

Ume bat Gibraltar-ko itsasartean txalupa batean jaio da. Penintsulara iritsitakoan espainiarra denik ez dute onartu, baina gurasoak beren

jatorrizko herrialdera iritsi direnean agintariek ume hori atzerritarra dela diote eta herrialde horretako biztanleen eskubiderik ez du.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

18. kasua

Zure lagunekin izandako elkarrizketan ozen hitz eginda iritzi bat azaldu duzu. Biharamunean agintariek kartzela edo eskola moduko batera eraman zaituzte eta egunero zuk defen-

datzen zenuen kontrako teoriak entzunarazten dizkizute etengabe. Azkenean, zu konbentzitu zaituztenean, askatu egin zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

19. kasua

Zure neska-lagunak eta zuk uda honetan lan egitea erabaki duzue eta hipermerkatu batean kontratatu zaituzte. Hiru hilabetez hiper-eko kutxan lan egin duzue. Uda amaitu denean

saria eman dizuete, baina harrituta geratu zara zure neska-lagunari, lan bera eginda, zure erdia ordaindu diotela ikusta.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

20. kasua

Biologiako klasean talde-lan bat egitea agindu dizuete. Zure lau kideek "landa-lan" osoa egin dute: landare-laginak bildu dituzte, horien ezaugarriak deskribatu dituzte eta herbarioa prestatu dute. Zuk lanaren laburpena eta ondorioak ordenagailuz pasatzea besterik

ez duzu egin behar, eta hori da irakasleak bihar eskatuko dizuna. Zuk, ordea, zinemara joan eta ikaskideek eskatutako ezer ez duzu egin. Hurrengo egunean ikasgelara esku-hut-sik joan zara eta taldeko guztiek irakasgaia suspenditu egin dute.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

21. kasua

Zure herrialdea gerran ari da. Egun batean militar-talde bat zure ikastetxera heldu da eta zuen beharra dutela esan dizuete. DBHko 4.

ikasturteko ikasgelako denak erreklutatu zaituztete.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

22. kasua

Uda honetan hiper-en salgaiak deskargatzen lana topatu duzu. Egunero lan egiten duzu goizeko 8etatik arratsaldeko 8ak arte. Lehen egunean ohitura enpresatik bazkaltzera ez irtetea dela eta ogitartekoa eramateko esan dizute. Ostirala iritsi denean, aparteko eskari bat dutela eta larunbatean eta igandean ere

lan egin behar duzula esan dizute. Egoera horrek hilabete osoa iraun du. Hila amaitu denean 30 euro ordaindu dizkizute. Kexatzera joan zarenean "besterik ez dago" erantzun dizute. Kontraturik ez dizute egin eta ez daki-zu erreklamazioa nori egin.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

23. kasua

Ikasgelako kide batek diru-zorroa lapurtu diozula salatu dizu. Zu errugabea zara eta badakizu arrazoirik gabe salatu zaituela. Gaia aztertzeko batzordea eratzea eskatu duzu, eta eskatutakoa lortu duzunean batzordeko buru

salatu zaituen mutilaren aita dela ikusi duzu. Aitak, jakina, bere semeari zuri baino askoz ere lehenago sinetsiko dio. Ikastetxetik kanpora bota zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

24. kasua

Karrera amaitu ondoren, zure lagun bat, neska bat, bere senargaiarekin ezkontzera doa, harekin maiteminduta urte batzuk baitaramatza. Hala ere, agintariek ez dute jaiotza-tasa

igotzerik nahi eta ezkontzea debekatu egin diete. Bestela zigor ekonomiko latzak ezarriko dizkiete.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

25. kasua

Informazio Zientzietan lizentziatua zara eta egunkari batean oso gustukoa duzun lana eskaini dizute. Hala ere, zure gogoz kontra,

Estatuak Nortasun Agiriko bulegoan lan egitera behartu zaitu.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

26. kasua

Batxilergoko azken ikasturtea amaitu duzue. Zure lagun onenak zuk baino espediente akademiko askoz ere hobea du, zurea nola-halakoa

delako. Zoritxarrez haren familiak ezin dizkio Unibertsitateko ikasketak ordaindu. Beraz, zu Unibertsitatera joango zara eta hura ez.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

27. kasua

Zure lagun bat eta zu supermerkatu batera sartu zarete. Zuk ezer jakin gabe, zure lagunak zerbait lapurtu du eta korrika ihes egin du. Supermerkatuko jabeak zuri heldu eta lagunaren datuak eskatu dizkizu. Zuk ezezkoa eman diozu. Polizia heldu denean, super-

merkatuko biltegira eraman zaituzte eta han joka hasi zaizkizu zuk haiek nahi dutena esan arte. Esaten ez badiezu, gero eta okerragoa izango dela mehatxu egin dizute. Sare elektrikora konektatutako kable baten bidez hitz egin arte erretzeko mehatxu egin dizute.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

28. kasua

Ikastetxeko horman norbaitek pintada egin du. Zuen tutoreak horren berri eman dizuetenean, zu seinlatu eta zu izan zarela sinetsita dagoela jakinarazi du. Frogatu ezin badu ere, seguruago egoterik ez omen dauka. Zu harripatzeko ahal duen guztia egingo duela agindu

dizu. Zuk ez duzu pintadarik egin eta ez daki- zu egilea zein izan daitekeen ere, baina salaketa horren ondoren lagun guztiek zu izan zarela uste dute eta irakasleek etengabe esaten dizute aitor dezazula zu izan zarela.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

29. kasua

Lau hilabetez ari zara oso gustukoa duzun mutil batekin irteten. Egun batean ikastetxetik etxera iritsi zara eta gurasoek egun horretan zure senar izango dena ezagutuko duzula esan dizute. Orduan etxera hamasei urteko

mutil bat heldu da, lehen inoiz ikusi ez zenuena, bere gurasoekin. Egongelan kafea hartu bitartean, zure gurasoek eta haren gurasoek zuen ezkontzako eguna eta ordua erabaki dute.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

30. kasua

Zure lurraldean natur erreserba baten ondoan zentral nuklearra egin nahi dutela eta, zenbait ikastetxetako ikasleek antolatutako manifestazio baketsuan parte hartu duzu, zentraleko

lanak bertan behera utzi eta energia berriztagarriak erabiltzea eskatuz. Atxilotu eta kartzelara eraman zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

31. kasua

Zure gurasoak multinazional batena den eta bizi zaren hirian dagoen enpresa batean ari dira lanean. Egun batean enpresa itxi egingo dutela iragarri dute, Hego Amerikako herrialde batera eramango dutelako. Zure gurasoak

lanik gabe geratu dira eta etxea saldu egin behar izan duzue. Oso etxebizitza txikia alokatu behar izan duzue, berokuntzarik gabea eta denentzat gela bakarra duena.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

32. kasua

Zure familiako senideak eta zu beste herrialde batera joan zarete bizitzera. Han beste ikastetxe batera joaten hasi zara. Historiako irakaslea iritsi denean Antoñete deitu dizu "espainiar guztiak toreatzaileak direlako".

Irakurtzen eta idazten ba al dakizun eta telebista zer den ba al dakizun galdetu dizu. Zure lagunek "azpigaratutako" herrialdean nola bizitzen den galdetu dizute.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

33. kasua

Azterketa bat egiten ari zara. Galdera baten erantzuna ez dakizu eta "txuleta" ateratzea erabaki duzu. Irakasleak ikusi egin dizu. Ikastetxeko patiora irten zaitezela agindu dizu. Han besoak zabaldua belauniko ipini

zaitu eta letra izugarriz ondokoa dioen kartela ere ipini dizu: "Motza naiz eta neure baliabidez azterketa gainditzeko gauza ez naiz". Horrela egon behar duzu zeure lagunen aurrean jolas-ordu osoan.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

34. kasua

Zure amak zeure herrialdeko gobernuan berebiziko ustelkeria-kasua aurkitu du. Hirugarren Mundukoei laguntzeko bildutako dirua berez armak erosteko ari da gastatzen Defentsa Ministerioa, eta gobernuko goi-mailako agintariek ere beren zatia patrikara eramaten dute. Komunikabide batean salatu du eta

polizia etorri zaio. Zure familia eta zu saiatu zarete Frantziara ihes egiten, baina mugan jendarmeez eragotzi eta zeuen herrialdeko agintarien esku utzi zaituztete, nahiz eta zuek egoeraren berri eman diezuen.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:

35. kasua

Lagun batzuek eta zuk astelehenero bilera egitea erabaki duzue ikasgelako egoeraz eta egon daitezkeen irtenbideez hitz egiteko. Jakin orduko irakasleek erabat debekatu

dizuete bilera horietara joatea; ez ikastetxean eta ez ikastetxetik kanpo. Bilera egin duzuela jakiten badute, zigortu egingo zaituztela adierazi dizuete.

Bortxatutako eskubidea:

Atala:





Irakasleentzako erantzunak

1. kasua

Estatuak erabaki duenez, herrialdeak biztanleria handiegia du eta gizartea askoz ere hobeto ibiliko da biztanle-kopurua murriztuta. Horretarako egunero pertsona-kopuru bat hil egiten

du eta zozketa bidez erabakitzen du zein desagerraraziko dituen. Egindako planaren arabera, neurri horrek bi urte besterik ez du iraungo; egoera hobetzen den arte, alegia.

Bortxatutako eskubidea:

3. atala:

Bizitza-eskubidea.

"Norbanako guztiak dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea."

2 kasua

Zein karrera ikasi erabakitzeko orduan, zure herrialdeko legeak Unibertsitatera ikastera

1,70 metro baino altuagoak diren pertsonak baizik ezin direla joan ezartzen du.

Bortxatutako eskubidea:

7. atala:

Legearen aurreko berdintasun-eskubidea.

"Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babesa izateko eskubidea. Denek dute Deklarazio hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea."

3. kasua

Zure tutoreak itxuraz arrazoirik gabe zigortu zaitu. Azalpenak ematea eskatu dizkiozunean, zuk lagun bat gogor kritikatu egin zenuen

eskutitza erakutsi dizu. Dirudienez, zu Gorputz Hezkuntzako klasean zinela zure zorroa ireki egin du.

Bortxatutako eskubidea:

12. atala:

Intimitate-eskubidea (injerentzia edo eskusartzerik ez).

"Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Nornahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea."

4. kasua

Zure familiak orube edo lursail bat du hirian. Udalak han biltegi handi batzuk eraikitzea

erabaki du eta lurrak desjabetu egin dizkizue ordainetan ezer eman gabe.

Bortxatutako eskubidea:

17.1. atala

Jabetza-eskubidea.

"Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean."

5. kasua

Zure herrialdeko gobernua herritarrek inoiz ez dute aukeratu eta herritarrek haren erabakietan inola ere eraginik ezin du izan.

Bortxatutako eskubidea:

21.1. atala

Gobernuan parte hartzeko eskubidea.

"Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez."

6. kasua

Zure lagun batek janariak azkar prestatu eta ematen dituzten jatetxe batean lana aurkitu du. Arduradunari hauteskunde sindikalez gal-

detu dionean, aitzakiak emanez erantzun dio. Hurrengo egunean inolako arrazoirik gabe lanetik bota egin dute.

Bortxatutako eskubidea:

23.4. atala

Sindikatuetakoa kide izateko eskubidea.

"Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea."



7. kasua

Aurten zure ikastetxeko matrikula-plazak erdira murriztu dituzte eta zure gelako bost ikasleri ikastetxean ikasten jarraitzea debeka-

tu egin diete. Hamasei urte dituzte, baina lanean hasi beharko dute.

Bortxatutako eskubidea:

26.1. atala

Hezkuntzarako eskubidea.

Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi-mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera."

8. kasua

Zure arreba, hepatitis harrapatuta, gaixotu egin da. Gaixo denbora asko darama eta gurasoek eta zuk zeuk bizirik ateratzen larri ibili-

ko dela uste duzue. Bizi zareten hirian medikurik ez dago, ezta osasun-zerbitzuetarako jenderik ere. Beraz, inork ezin dio lagundu.

Bortxatutako eskubidea:

25.1. atala:

Bizi-maila egokirako eskubidea.

Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere."

9. kasua

Literatura oso atsegin duzu eta arlo horretan lan egin nahi duzu. Zure ametsa Filologia ikastea da eta, ahal izanez gero, idaztetik bizi nahiko zenuke. Zure gurasoek, ordea,

Ingeniaritza ikastera behartu zaituzte zeure gogoz kontra eta irakasleek gomendatutako-ari aurka eginez.

Bortxatutako eskubidea:

3. atala:

Askatasun-eskubidea.

"Norbanako guztiak dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea."

10. kasua

Matematikako azterketa ona egin duzu eta bikain edo oso bikain nota espero duzu. Irakasleak notak eman dizkizuetenean zuri oso eskas ipini dizu eta ez dakizu zergatik. Irakaslearekin hitz egitera joan zarenean hark azterketak erakusteko eta berrikusteko ohiturarik ez duela esan dizu. Hori bidezkoa ez dela

erantzun diozu, baina zurekin hitz egiteari uko egin eta ebaluazioa suspenditu egin dizu. Zuzendariaren bulegora joan zara haserre, baina irakasleen hitzari aurka egiterik ez dagoela esan dizu, legeak irakasleari, ikasgaiei dagokienez, erabateko boterea ematen diolako.

Bortxatutako eskubidea:

8. atala

Funtsezko eskubideen defentsa.

"Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarritzko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurtso eraginkorra jartzeko eskubidea."

11. kasua

Zu bizi zaren hirian bat-batean lurrikara izan da eta etxebizitza, denda, ospitale, etab. suntsituta geratu dira. Biztanle guztiak etxerik eta lanik gabe geratu dira. Janari, edateko ur eta sendagairik ez dagoelako ondoko hirira joatea erabaki duzue, beste hiri hori osorik dagoela-

ko. Hiriz aldatzen hasi zareten egunean, ondoko hiriko agintariak beren hiria, inor sar ez dadin, hesiekin inguratu eta zaintzeko bideo-kamerak eta segurtasun-polizia ipini dituztela sumatu duzue.

Bortxatutako eskubidea:

13.1 eta 13.2. atalak

Aske ibiltzeko eskubidea.

"Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa. "
"Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa."

12. kasua

Zure herrialdean erlijioz katolikoa zara, baina erlijio ofiziala beste bat da. Mezatara joatea eta jendaurrean edo ezkutuan otoitz egitea

debekatu egiten dizute. Agindua betetzen ez baduzu, kartzelara eramango zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

18. atala

Kultu-askatasunerako eskubidea.

"Pertsona orok pentsamendu-kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, jardueraz, kultuaz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere."

13. kasua

Zure herrialdeko gobernua gehiengo handiak aukeratu du. Horretaz baliatuta, hurrengo hau-

teskundeak bertan behera utzi eta beti herriaren onerako gobernatzea erabaki du.

Bortxatutako eskubidea:

21.3. Atala

Bere borondatea errespetatzeko Herriak duen eskubidea. "Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldian-aldian egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez."

14. kasua

Zure osaba hil ondoren, alarguna (zure izeba) ezer gabe geratu da: diru askorik ez zeukan aurreztuta eta izebak inoiz ez du lanik egin.

Orain, 70 urte beterik dituela, besteek emandako limosnetatik bizitzea beste aukerarik ez du.

Bortxatutako eskubidea:

25.1. atala

Bizitzeko baliabideak galduz gero, ordaina jasotzeko eskubidea. "Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere."

15. kasua

Gau batean zure lagunekin parkean hizketan ari zara. Bat-batean motorretan talde bat etorri eta irainka hasi zaizkizue. Zure lagun bat

jo egin dute eta haien "lurraldetik" ihes egiteko esan dizuete. Egoera hori zenbait asteburutan errepikatu egin da.

Bortxatutako eskubidea:

5. atala

Tratu ankerrik ez izateko eskubidea. "Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere."

16. kasua

Norbaitek zure ikasgelako arbelean Hizkuntza-irakaslea iraindu egin du. Mendeku moduan irakasleak zuetako bost, edozein,

ikasgelatik kanpora bidali ditu eta irakasgaia iraila arte suspenditu egin die.

Bortxatutako eskubidea:

9. atala

Nolanahi zigortua ez izateko eskubidea.

"Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu."

17. kasua

Ume bat Gibraltar-ko itsasartean txalupa batean jaio da. Penintsulara iritsitakoan espainiarrak denik ez dute onartu, baina gurasoak beren

jatorrizko herrialdera iritsi direnean agintariak ume hori atzerritarra dela diote eta herrialde horretako biztanleen eskubiderik ez du.

Bortxatutako eskubidea:

15.1. atala

Herritartasuna izateko eskubidea.

"Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea."

18. kasua

Zure lagunekin izandako elkarrizketan ozen hitz eginda iritzi bat azaldu duzu. Biharamunean agintariak kartzela edo eskola moduko batera eraman zaituzte eta egunero zuk defen-

datzen zenuen kontrako teoriak entzunarazten dizkizute etengabe. Azkenean, zu konbentzitu zaituztenean, askatu egin zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

19. atala

Pentsamendu-askatasuna.

"Gizabanako guztiek dute iritzi- eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren iritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta nolanahiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa."

19. kasua

Zure neska-lagunak eta zuk uda honetan lan egitea erabaki duzue eta hipermerkatu batean kontratatu zaituzte. Hiru hilabetez hiper-eko kutxan lan egin duzue. Uda amaitu denean

saria eman dizuete, baina harrirtuta geratu zara zure neska-lagunari, lan bera eginda, zure erdia ordaindu diotela ikusta.

Bortxatutako eskubidea:

23.2. atala

Lanean bereizkeriarik ez jasateko eskubidea.

"Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasateko eskubidea."

20. kasua

Biologiako klasean talde-lan bat egitea agindu dizute. Zure lau kideek "landa-lan" osoa egin dute: landare-laginak bildu dituzte, horien ezaugarriak deskribatu dituzte eta herbarioa prestatu dute. Zuk lanaren laburpena eta ondorioak ordenagailuz pasatzea besterik ez

duzu egin behar, eta hori da irakasleak bihar eskatuko dizuna. Zuk, ordea, zinemara joan eta ikaskideek eskatutako ezer ez duzu egin. Hurrengo egunean ikasgelara esku-hutsik joan zara eta taldeko guztiek irakasgaia suspenditu egin dute.

Bortxatutako eskubidea:

29.1. atala

Komunitatearekiko betebeharrak daude.

"Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere nortasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra."

21. kasua

Zure herrialdea gerran ari da. Egun batean militar-talde bat zure ikastetxera heldu da eta zuen beharra dutela esan dizute. DBH-

ko 4. ikasturteko ikasgelako denak erreklutatu zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

3. atala

Pertsonak bizitzeko, aske izateko eta seguru bizitzeko duen eskubidea.

"Norbanako guztiek dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea."

22. kasua

Uda honetan hiper-en salgaiak deskargatzen lana topatu duzu. Egunero lan egiten duzu goizeko 8etatik arratsaldeko 8ak arte. Lehen egunean ohitura enpresatik bazkaltzera ez irtetea dela eta ogitartekoa eramateko esan dizute. Ostirala iritsi denean, aparteko eskari bat dutela eta larunbatean eta igandean ere lan

egin behar duzula esan dizute. Egoera horrek hilabete osoa iraun du. Hila amaitu denean 30 euro ordaindu dizkizute. Kexatzera joan zarenean "besterik ez dago" erantzun dizute. Kontraturik ez dizute egin eta ez dakizu erreklamazioa nori egin.

Bortxatutako eskubidea:

23.1. atala

Bidezko lanerako eskubidea.

"Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa."

23. kasua

Ikasgelako kide batek diru-zorroa lapurtu diozula salatu dizu. Zu errugabea zara eta bada-kizu arrazoirik gabe salatu zaituela. Gaia aztertzeke batzordea eratzea eskatu duzu, eta eskatutakoa lortu duzunean batzordeko buru

salatu zaituen mutilaren aita dela ikusi duzu. Aitak, jakina, bere semeari zuri baino askoz ere lehenago sinetsiko dio. Ikastetxetik kanpora bota zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

10. atala

Epaitegi independenteak entzuna izateko eskubidea.
"Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikierarik gabe jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeke, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeke."

24. kasua

Karrera amaitu ondoren, zure lagun bat, neska bat, bere senargaiarekin ezkontzera doa, harekin maiteminduta urte batzuk baitaramatza. Hala ere, agintariak ez dute jaiotza-tasa

igotzerik nahi eta ezkontzea debekatu egin diete. Bestela zigor ekonomiko latzak ezarriko dizkiete.

Bortxatutako eskubidea:

16.1. atala

Ezkontzeko eta familia sortzeko eskubidea.
"Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia eratzeke eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatik inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere."

25. kasua

Informazio Zientzietan lizentziatua zara eta egunkari batean oso gustukoa duzun lana eskaini dizute. Hala ere, zure gogoz kontra,

Estatuak Nortasun Agiriko bulegoan lan egitera behartu zaitu.

Bortxatutako eskubidea:

23.1. atala

Lana askatasunez aukeratzeko eskubidea.
"Pertsona orok du lan egiteke eskubidea, lana aukeratzeko, lan-baldintza bidezkoak eta egokiak izateke, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzeko."

26. kasua

Batxilergoko azken ikasturtea amaitu duzue. Zure lagun onenak zuk baino espediente akademiko askoz ere hobea du, zurea nolahalakoa delako. Zoritxarrez haren familiak

ezin dizkio Unibertsitateko ikasketak ordaindu. Beraz, zu Unibertsitatera joango zara eta hura ez.

Bortxatutako eskubidea:

26.1. atala

Goi-mailako ikasketetara, merituen arabera, sarbidea berdin izateko eskubidea.

"Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goi-mailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera."

27. kasua

Zure lagun bat eta zu supermerkatu batera sartu zarete. Zuk ezer jakin gabe, zure lagunak zerbait lapurtu du eta korrika ihes egin du. Supermerkatuko jabeak zuri heldu eta lagunaren datuak eskatu dizkizu. Zuk ezezkoa eman diozu. Polizia heldu denean, supermer-

katuko biltegira eraman zaituzte eta han joka hasi zaizkizu zuk haiek nahi dutena esan arte. Esaten ez badiezu, gero eta okerragoa izango dela mehatxu egin dizute. Sare elektrikora konektatutako kable baten bidez hitz egin arte erretzeko mehatxu egin dizute.

Bortxatutako eskubidea:

5. atala

Torturatua ez izateko eskubidea.

"Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere."

28. kasua

Ikastetxeko horman norbaitek pintada egin du. Zuen tutoreak horren berri eman dizuete-nean, zu seinlatu eta zu izan zarela sinetsita dagoela jakinarazi du. Frogatu ezin badu ere, seguruago egoterik ez omen dauka. Zu harra-patzeko ahal duen guztia egingo duela agindu

dizu. Zuk ez duzu pintadarik egin eta ez dakizu egilea zein izan daitekeen ere, baina salaketa horren ondoren lagun guztiek zu izan zarela uste dute eta irakasleek etengabe esaten dizute aitor dezazula zu izan zarela.

Bortxatutako eskubidea:

11.1. atala

Errugabetasun-presuntzioko eskubidea.

"Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio."

29. kasua

Lau hilabetez ari zara oso gustukoa duzun mutil batekin irteten. Egun batean ikastetxetik etxera iritsi zara eta gurasoek egun horretan zure senar izango dena ezagutuko duzula esan dizute. Orduan etxera hamasei urteko mutil

bat heldu da, lehen inoiz ikusi ez zenuena, bere gurasoekin. Egongelan kafea hartu bitartean, zure gurasoek eta haren gurasoek zuen ezkontzako eguna eta ordua erabaki dute.

Bortxatutako eskubidea:

16.2. atala

Ezkongai direnen onespenez baino ez ezkontzeko eskubidea.

"Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik."

30. kasua

Zure lurraldean natur erreserba baten ondoan zentral nuklearra egin nahi dutela eta, zenbait ikastetxetako ikasleek antolatutako manifestazio baketsuan parte hartu duzu, zentraleko

lanak bertan behera utzi eta energia berriztagarriak erabiltzea eskatuz. Atxilotu eta kartzelara eraman zaituzte.

Bortxatutako eskubidea:

20.1. atala

Askatasunez bakean elkartzeko eskubidea.

"Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea."

31. kasua

Zure gurasoak multinazional batena den eta bizi zaren hirian dagoen enpresa batean ari dira lanean. Egun batean enpresa itxi egingo dutela iragarri dute, Hego Amerikako herrialde batera eramango dutelako. Zure gurasoak

lanik gabe geratu dira eta etxea saldu egin behar izan duzue. Oso etxebizitza txikia alokatu behar izan duzue, berokuntzarik gabea eta denentzat gela bakarra duena.

Bortxatutako eskubidea:

25.1. atala

Bizi-maila egoki eta duina izateko eskubidea.

"Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzarora edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere."

32. kasua

Zure familiako senideak eta zu beste herrialde batera joan zarete bizitzera. Han beste ikastetxe batera joaten hasi zara. Historiako irakaslea iritsi denean Antoñete deitu dizu "espainiar guztiak toreatzaileak direlako".

Irakurtzen eta idazten ba al dakizun eta telebista zer den ba al dakizun galdetu dizu. Zure lagunek "azpigaratutako" herrialdean nola bizitzen den galdetu dizute.

Bortxatutako eskubidea:

26.2. atala

Talde etniko eta erlijioso guztien arteko tolerantzia eta adiskidetasunerako hezkuntza.

"Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen jarduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan."

33. kasua

Azterketa bat egiten ari zara. Galdera baten erantzuna ez dakizu eta "txuleta" ateratzea erabaki duzu. Irakasleak ikusi egin dizu. Ikastetxeko patiora irten zaitezela agindu dizu. Han besoak zabalduta belauniko ipini zaitu

eta letra izugarri ondokoa dioen kartela ere ipini dizu: "Motza naiz eta neure baliabidez azterketa gainditzeko gauza ez naiz". Horrela egon behar duzu zeure lagunen aurrean jolas-ordu osoan.

Bortxatutako eskubidea:

5. atala

Tratu bihotz-gogor eta lotsarazlerik ez izateko eskubidea.

"Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere."

34. kasua

Zure amak zeure herrialdeko gobernuan berebiziko ustelkeria-kasua aurkitu du. Hirugarren Mundukoei laguntzeko bildutako dirua berez armak erosteko ari da gastatzen Defentsa Ministerioa, eta gobernuko goi-mailako agintariak ere beren zatia patrikara eramaten dute. Komunikabide batean

salatu du eta polizia etorri zaio. Zure familia eta zu saiatu zarete Frantziara ihes eginen, baina muga jendarmeez eragotzi eta zeuen herrialdeko agintarien esku utzi zaituztete, nahiz eta zuek egoeraren berri eman diezuen.

Bortxatutako eskubidea:

14.1. atala

Jazarpenik dagoenean babes- edo asilo-eskubidea.

"Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea."

35. kasua

Lagun batzuek eta zuk astelehenero bilera egitea erabaki duzue ikasgelako egoeraz eta egon daitezkeen irtenbideez hitz egiteko. Jakin orduko irakasleek erabat debekatu

dizuete bilera horietara joatea; ez ikastetxean eta ez ikastetxetik kanpo. Bilera egin duzuela jakiten badute zigortu egingo zaituztela adierazi dizuete.

Bortxatutako eskubidea:

20.1. atala

Askatasunez elkartzeko eskubidea.

"Nornahik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.."





9. ariketa



Hiru belaunaldiko eskubideak

1

Historian zehar eskubide-sail edo -multzoak elkarren ondoan azaldu dira, politikan, gizartean, ekonomian edo kulturan izandako egoeraren arabera. Horretaz gogoeta egiteko, irakurri bakarka ondoko informazioa.

Hiru eskubide-belaunaldi

Giza eskubideekin erabilitako belaunaldi-kontzeptuak, historiaren arloko irizpideari eta gaien arloko irizpideari erantzuten die. Horien bidez historia garaikideko zenbait unetan azaldu diren eskubide-multzoak argitu nahi dira, belaunaldi bakoitzak mota bereko eskubideak barne hartzen dituela.

Lehen belaunaldia

Iraultza burgesen eta independentzia-gerren garaian azaldu zen Europan eta Latinoamerikan. Eskubide zibilak eta politikoak biltzen ditu. 1948ko Deklarazio Unibertsalean daude eta titulartasuna zein erabilpena norbanakoarena izaten dira. Horietako asko askatasun negatibo, erresistentziako edo aurkakotasuneko deitutakoak dira eta Estatuan nahitaez jarrera abstentzionista duelako definitzen dira.

1. Askatasun-eskubidea.
2. Berdintasun-eskubidea.
3. Duintasun-eskubidea.
4. Bizitzeko eta norberaren segurtasunerako eskubidea
5. Tratu edo zigor anker, bihotz-gogor edo lotsarazlerik ez izateko eskubidea.
6. Esklabotza, morrontza edo giza trafikoaren pean ez egoteko eskubidea.
7. Lege-nortasunerako eskubidea.

8. Justizia-eskubidea.
9. Nolanahi atxilotu edo atzitu ez izateko eskubidea.
10. Defentsarako edo bidezko epai-prozesuaren bermerako eskubidea.
11. Errugabetasun-presuntzioa.
12. Intimitate- edo pribatutasun-eskubidea.
13. Ibiltzeko eta bizilekua izateko eskubidea.
14. Asilo-eskubidea.
15. Herritartasuna izateko eskubidea.
16. Ezkontzeko eta familia izateko eskubidea.
17. Jabetza pribaturako eskubidea.
18. Iritzi- eta adierazpen-askatasuna.
19. Biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
20. Parte hartzeko eskubidea (botoa ematekoa eta funtzio publikora sarbidea izatekoa).

Bigarren belaunaldia

XX. mendearen hasierako iraultza nazionalista eta sozialisten garaiari dagokie, hau da, Estatu jendarmetik ongizate Estatura iragaiteari. Gizarteko, kulturako eta ekonomiako eskubideak biltzen ditu.

1. Lanerako eskubidea.
2. Laneko ekitate, duintasun, segurtasun eta higienarako eskubidea.

3. Sindikatuetan biltzeko, grebarako eta negoziazio kolektiborako eskubidea.
4. Ama langile eta adingabeko langileen babes bereziko eskubidea.
5. Gizarte-segurantzarako eskubidea.
6. Bizi-kalitaterako eskubidea.
7. Osasunerako eskubidea.
8. Hezkuntzarako eskubidea.
9. Kultura, arte eta zientzietarako eskubidea.

Hirugarren belaunaldia

Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen. Eskubide zibil eta politikoen eta eskubide sozio-ekonomikoak lehen izanik, hirugarren belaunaldi honetan herrien eskubide kolektiboak biltzen dira, bidea irekitzen ari den konstituzionalismo pluralista eta solidarioari dagozkionak.

1. Ordena instituzionalerako eskubidea.
2. Herriek askatasunez determinatzeko eta beren aberastasunak eta baliabide naturalak askatasunez baliatzeko eskubidea.
3. Gutxiengo etniko, erlijioso edo linguistikoek beren kultura, erlijio eta hizkuntza izateko duten eskubidea.
4. Langile emigratzaileek beste herrialdeetan egoera bidezko eta duinetan lan egiteko eskubidea.

Eskubideen laugarren belaunaldiaz ere hitz egiten hasi dira, eta hor etorkizuneko belaunaldiek eta beste zenbait subjektu berezik (animaliek edo naturak, adibidez) dituzten eskubideak bilduko lirake, baina oraindik kategoria berri honetarako ez da adostasun garbirik lortu.

Iturria: Valencia Villa, 1997

2

Dokumentazioa irakurritakoan, aipatu taldeka ondoren planteatzen dizkizuegun gaiak. Taldean pertsona bat izendatu ondorioak jasotzeko, gero ikasgelako guztiekin ados jartzean azaldu ahal izateko.

- Irakurri duzuen eskubide-zerrendan, eskubide denak bilduta daudela iruditzen al zaizue? Besteren bat gehituko al zenuke?
- Zein eskubideren gainean du Estatuak subiranotasuna?
- Zein mekanismoren bitartez bermatzen ditu Estatuak eskubide horiek?
- Estatuak beti errespetatzen al dituzte eskubideak? Estatuak eskubideren bat bortxatzen duen adibideren bat aipatu.
- Giza eskubideak defendatzen dituen erakunderen bat ezagutzen al duzue?
- Erakunde hauetako batek egiten duen lana ikertu eta ikasgelako gainerakoei azaldu.

Ondoko web orri hauetan aurki dezakezue informazioa:

<http://www.derechos.org>

<http://www.pangea.org>

<http://www.nodo50.org>

<http://www.hrw.org>

<http://www.a-i.es>



10. ariketa



Aurpegia eta gurutzea

1

Taldeka, arretaz irakurri ondoko definizioak:

Legezkotasuna: lege-multzoa behartuta betearazteko gai den Estatu dagoen lurralde jakin bateko indarreko lege guztiak biltzen ditu. Beraz, legezkotasuna Estatu bateko legeekin identifikatzen da, legeak edonolakoak izanda ere.

Legitimitatea: legezkotasuna ez bezala, Estatuak ezarritakoarekin ez dago nahitaez lotuta. Egoera bat edo gauzez baliatzeko modu bat bidezkotzat edo bidegabetzat jotzeko oinarri gisa erabiltzen dugun printzipio eta balore moralen multzoa da. Ondorioz, legitimitate-kontzeptu bakarrik ez dago eta kulturaren edo pertsonaren aldagaiek aldatu egiten dute.

70

2

Ikuspuntu honetatik lege bat legitimotzat edo ez-legitimotzat har dezakegu. Hori praktikan ikus dezagun. Egiazko lau egoera aurkezten dizkizuegu talde bakoitzak kasu bakoitzaren legezkotasunaz edo/eta legitimotasunaz gogoeta egin dezan. Horretarako, kasua irakurri ondoren, azkenean dauden galderei erantzun. Gero talde bakoitzak bere ondorioak gelako gainerakoei azalduko dizkie bat etortzeko saioan.



1. dilema morala: Justizia o mendekua

2001eko irailaren 11n Dorre Bikiak erori egin ziren bahitutako bi bidaiari-hegazkinak haien kontra talka egin ondoren. Handik gutxira beste bi hegazkinak talka egin zuten Estatu Batuetako helburuen kontra: batak Washingtonen Pentagonoaren kontra eta besteak Pennsylvanian. Hegazkinetako bidaiari guztiak hil ziren. Ordu batzuk geroago World Trade Center-eko 7. eraikina, Dorre Bikien ondoan zegoena, sutan zela erori egin zen. Han zenbat hil ziren argi eta garbi ez da inoiz jakin.

Egun batzuk geroago Afganistango erasoak hasi zen. Bonbaketariek milaka pertsona beren etxeetatik ihes egitera behartu zituzten. Batzuek Pakistan go mugara zeharkatu zuten eta beste batzuk Afganistanen barruan geratu ziren etxetik ihes eginda. Lehendik ere egoera tamalgarrian zeuden Afganistango biztanleak eta bonbaketariek are eta okerragoa zen. Laguntza humanitaria oso nekez iristen zen. Biztanleen egoera oso larria zen. Azaroaren erdialdean Pakistanera egoera negargarrian irit-

Taldean gogoeta egiteko galderak

- Legezkoa al da Afganistani erasotzea? Legitimoa al da? Zergatik?
- Legitimoa dela edo ez dela erabakitzeko zein baloretan oinarritzen zarete? Eta legezkoa dela ala ez dela erabakitzeko?
- Giza eskubideren bat arriskuan jartzen al da? Zein?
- Egoera hobetzeko zer egin daiteke?



dilema morala: Heriotza-zigorra eztabaidan³

Gaur egun munduko 87 herrialdetan legezkoa da heriotza-zigorra eta indarrean dago. Herrialde horietakoak dira, besteak beste, Afganistan, Txina, Estatu Batuak, Arabiar Emirerri Batuak, Maroko, Saudi Arabia, Ekuatore Ginea, etab.

1982an, Mumia AbuJamal⁴, Filadelfiako poliziaren indarkeria eta arrazakeriaren kontra egindako kritikengatik ezaguna zen kazetaria, kondenatu egin zuten Daniel Fulkner polizia-agente zuria hiltzeagatik. 1981eko abenduan gertatu zen, polizia, Mumia eta honen anaiaren arteko tiroketan agentea hil zenean. Lekukoek tiroketako lekutik bi gizon korrika ihesi ikusi zituztela aitortu zuten, baina haiek gertaeretan zerikusirik izan zuten ez zen inoiz ikertu. Mumiari berehala hilketa salatu zioten, eta iritzi publikoa karguak zalantzan jartzen hasi zenean, erruztatuak ospitaleko larrialdi-gelan hilketa aitortu zuela jakinarazi zuen poliziak. Epai-

ketan aurkeztutako frogak zalantzarik izan ziren. Fiskaltzak Mumiaren idazlan politikoak eta egunkarietako artikulatuak erabili zituen heriotza-zigorra eskatzeko, eta ezin frogatu izan zuen salatuaren pistolak (legez erregistratuak) gau hartan tiro egin zuenik. Epaietan salatuaren aurka deklaratuako lekuko batzuek poliziak behartuta gezurra esan zutela aitortu zuten. Defentsak zapaketa politikoa egon izana adierazi zuen, baina Gobernuak ezezkua zioen eta salatua, atxilotu zutenean, sistemarentzat ez zela arriskutsua. 1995. urtean Mumiak Live from the death row ("Heriotza-ilaratik zuzenean") liburua idatzi zuen. Bertan, besteak beste, SCI Greene zentroan kartzelaratuak jasaten zituzten tratu txarrak salatu zituen. Munduko iritzi publikoaren eraginez hilaraztea geroratu egin dute behin eta berriz. Mumiak heriotza-ilaran segitzen du.

Taldean gogoeta egiteko galderak

- Estatu Batuetan legezkoa al da heriotza-zigorra? Legitimoa al da? Zergatik?
- Legitimoa dela edo ez dela erabakitzeke zein baloretan oinarritzen zarete? Eta legezkoa dela ala ez dela erabakitzeke?
- Giza eskubideren bat arriskuan jartzen al da? Zein?
- Ados al zaudete Estatu batek heriotza-zigorra defendatzearekin?
- Egoera hobetzeko zer egin daiteke?

³ Iturria: Amnesty International.

⁴ Informazio gehiago lortzeko: <http://www.mumia.org/mumia.org>

3. dilema morala: Afganistanen emakume izatea⁵

Talibanen gobernupeko emakumea baldin bazarra, ondoko legeen mende egongo zara:

- ✓ Etxetik kanpo lana egitea debekatuta daukazu, zure lanbidea edozein izanda ere. Kabulgo ospitale batzuetan emakume mediku eta erizain gutxi batzuek baino ez dezakete lanik egin⁶.
- ✓ Eskola, unibertsitate edo beste edozein hezkuntza-erakundetan ikastea debekatuta daukate (talibanek neskontzako eskolak apaizgaitegi erlijiosoa bihurtu dituzte).
- ✓ Goitik beheraino estaliko zaituen belo luzea (burka) eraman beharko duzu. Arau hau errespetatzen ez dutenentzat zigorra zartadak, jotzea eta hitzez iraintzea da.
- ✓ Ezkontzatik kanpo sexu-harremanak izandako emakumea jendaurrean harrikatzen dute.
- ✓ Debekaturik duzu edozein kosmetiko erabiltzea; baita azazkalak pintatzea ere.
- ✓ Zure mahram (senarra edo senidea) ez den beste edozein gizoni ez daukazu eskua ematerik.
- ✓ Barre-algara egitea debekaturik duzu (arrotzek ez dute emakumearen ahotsik entzun behar).
- ✓ Debekaturik duzu oinez zoazenean soinua atera dezaketen takoidun zapatak erabiltzea (gizonak ezin ditu emakumearen pauso-hotzak entzun).
- ✓ Debekaturik duzu irratian, telebistan edo edozein bilera publikotan azaltzea.
- ✓ "Emakume" hitza duten kale eta plaza guztietako izenak aldatu egin behar dira. Adibidez, "Emakumeen Lorategia" "Udaberriko Lorategia" bihurtu zen.
- ✓ Debekaturik duzu kaletik zu ikusi ahal izatea. Horregatik zure etxeko leiho guztiak opakuak izango dira. Debekatuta dago gizon jostunek emakumei neurriak hartzea eta emakumeentzako arropa jostea.
- ✓ Gizonen autobus berean joatea debekatuta daukate.
- ✓ Zuri argazkiak egitea edo zu filmatzea debekaturik duzu.

Taldean gogoeta egiteko galderak

- Egoera legezkoa al da? Zergatik?
- Legitimoa al da? Zergatik?
- Legitimoa dela edo ez dela erabakitzeke zein baloretan oinarritzen zarete? Eta legezkoa dela ala ez dela erabakitzeke?
- Arma bidez erasotzea al da arazo honetan konponbide bakarra? Beste irtenbiderik ez al dago?

⁵ Afganistango Emakume Iraultzaileak, www.rawa.org

⁶ "Kabulen eta Afganistango beste hirietan justizian, medikuntzan edo unibertsitatean goi-mailako postuak izan zituztenak dekretuz bota egin dituzte eta beren familiak etxe barruan zaintzera bidali dituzte. (...) Emakumeen segregazioak kostu handia du. Afganistanek gerra baino lehen munduko alfabetizazio-tasa txikienetakoa bazuen ere, 1996an hiriburuko irakasleen % 70 emakumeak ziren, Kabulgo unibertsitatean 8.000 neska zeuden matrikulaturik eta hiriko 63 eskoletara joaten ziren ikasleen % 40 ziren neskak. Orain Afganistango umeen % 95a ez da eskolara joaten eta ikastetxera joaten direnei "oso heziketa txarra" ematen diete, ONUko funtzionarioek adierazi dutenez. Bi urtetan gerrak hezkuntza-sistema bertan behera utzi du." "Kabul, 1422" erreportajetik hartua (El País Semanal, 2001eko maiatzaren 27koa, 1.287. zk.).

4. dilema moralak: "Bakerako" prestatzea⁷

Bigarren Mundu Gerra amaitu zenez gero, 30 milioi pertsona hil dira gure planetan izandako gatazka armatuetan. Horietako 26 milioi arma arinen tiroz hil dira. Arma horiek (eta ez gerra-ontzi handi edo gerrarako hegazkin sofistikatuek) dira bost biktimetatik lauren erantzukizun materiala dutenak. Biktimak, gainera, % 90 zibilak izan dira (emakumeak eta umeak batez ere). Arma arinak, labur esanda, jende gehiena hiltzen dutenak eta biztanle zibilei zuzenean erasaten dietenak dira. Hori da "gatazken desmilitarizazioak" duen ondorioa. Beraz, pertsona zibilak, eta ez militarrik, dira borroka armatu gehienetan hiltzen direnak. Arma arinak pertsona bakarrik edo ibilgailu arinak eraman ditzakeen ohiko armak dira (pistolak, errebolberak, errifleak, karabinak, eraso-errifleak, munizioa, granada-jaurtigailuak, esku-granadak, 82 mm-koak baino mortero txikiagoak, gurdien kontrako eta lurretik airerako misil batzuk, pertsonen aurkako minak, zanpaketarako polizia-materiala, etab.).

Gerra batean ehunka mila edo milioika arma piltzen direnean, **gero bakea arma-pila horrek hipotekatuta geratzen da**, eta ondoren arma horietako batzuk talde terrorista eta paramilitar, gerrilla, talde kriminal, herritar pribatu edo segurtasun-talde pribatuentzat izaten dira.


Ba al zenekien...?:

- ✓ Mundu osoan guztira **500 milioi su-arma** daudela kalkulatu da eta horiez gain polizien eta segurtasun-indarrenak daude.
- ✓ Amerikako Estatu Batuak dira munduan gehien fabrikatzen eta esportatzen dutenak.
- ✓ Herrialde batzuetan, Amerikako Estatu Batuetan adibidez, baliteke pertsona baino arma gehiago egotea.
- ✓ Gaur egun ekoizle nagusi batzuk Alemania, Austria, Belgika, Brasil, Bulgaria, Txina, Egipto, Amerikako Estatu Batuak, Frantzia, Israel, Polonia, Erresuma Batua, Errumania, Errusia, Singapur eta Hego Afrika dira.
- ✓ Amerikako Estatu Batuetako gazte batek Europako edozein gazte baino hamabi aldiz probabilitate handiagoa du tiroz hiltzeko. rir a tiros que cualquier joven europeo.

Taldean gogoeta egiteko galderak


- Zer iruditzen zaizu "Bakean utz zaitzaten zeure burua defendatzeko gauza izan behar duzu" dioen esaldia?
- Arma arinak saltzea eta erostea legezkoa al da?
- Legitimoa al da? Zergatik?
- Egoera hobetzeko zer egin daiteke?

⁷ "Armei agur". kanpainako web orria. Arma arinak kontrolatzeko kanpaina. Amnesty International, Greenpeace, IntermónOxfam eta Mugarik gabeko Medikiak. <http://www.pangea.org/unescopau/catedra/campanya/campanya/campanya.htm>



2.

Harreman-ereduak eta nazioaz gaindiko sistemak



Irakasleentzako gida

1. Helburuak

- Munduko gatazkak hobeto ulertzeko interpretazio-giltzarriak hornitzea.
- Alde batekoak diren edo osoak ez diren informazioen aurrean espiritu kritikoa sustatzea.
- Nazioarteko egoera politikoaz eta gaurkotasuneko gaiez interesa sustatzea.
- Herritartasun aktiborako aldez aurreko baldintza gisa oinarritutako iritzia edukitzea.
- Munduko herritartasun eta Estatuaren gaia planteatzea, oraingo estatuez gaindiko instituzioetatik abiatuta.


2. Ariketen segida

ACTIVIDAD 11: Análisis de casos prácticos

- *Deskribapena:* Zenbait kasu praktikotan "teoria" aplikatzen saiatuko gara; nazioarteko lau kasu aurkeztuko ditugu, non Estatuak era desberdinetako gatazkak baitituzte: Estatuaren arteko gatazkak (Maroko / Sahara, Israel / Palestina); Estatuaren eta enpresa multinazionalen arteko gatazkak (Endesa eta Txile), eta Estatu baten eta nazioaz gaindiko erakunde baten arteko gatazkak (Peru eta Moneta Fondo Internazionala). Ikasleek, unitatearen lehen zatian ikusitakoaren arabera, gatazkan parte hartzen duten alderdiez gogoeta eginda analizatu behar dituzte kasuak. Hortik aurrera elkarriketa egin dezakegu Estatuak herritarren eskubideak bermatzeko dituzten mugez, nazioaz gaindiko erakundearen egiazko eginkizunaz edo botere izugarria duten (enpresa multinazionalen) jokalariei "ez-politikoek".

Ikasgelako jendea taldetan banatuko da eta bakoitzak kasu bat hartuko du. Kasu hori irakurri ondoren, ikasleek planteatutako galderari erantzungo diete eta gero ondorioak elkarren artean adostu egingo dira.

- *Beharrezko materiala:* 11. ariketa.
- *Dinamika:* Taldeka.
- *Ikus:* Irakasleentzako erantzunak.






11. ariketa



Kasu praktikoaren analisia

1

Gaurkotasuna duen gatazka bat analizatzea proposatzen dizuegu. Orain arte ikusi dugun teoria erabiltzeko egiazko kasuetako bat da. Talde bakoitzak nazioarteko gatazka erakusten duen kasu bat izango du. Zuen lana aurkezten zaizuen gatazkari irtenbidea emango dion "bake-plana" proposatzea da. Dokumentazioa arretaz irakurri, kasu bakoitzean dagoen galdera-sortari erantzuteko. Gogoan izan talde-lana dela eta guztion lankidetzeta beharrezkoa dela!



1. taldea	
1. kasua. Mendebaldeko Saharako gatazka	
0. Datu sozio-ekonomiko garrantzitsuenak*	
<p><i>Izen ofiziala:</i> Errepublika Saharar Arabiar Demokratikoa (1976an aldarrikatua).</p> <p><i>Azalera:</i> 266.000 km² .</p> <p><i>Hiriburua:</i> Aaiun.</p> <p><i>Herrialdea:</i> 500.000 biztanle, eta horietatik 170.000 baino gehiago Tinduf-eko (Aljeria) kanpamentuetan errefuxiatuta edo askatutako zonetan nomada gisa bizi dira.</p> <p><i>Jaiotakoan bizi-itxaropena:</i> 44,88 urte.</p> <p><i>Hizkuntzak:</i> Arabiera eta espainiera (ofizialak, ordena horretan) eta hassanera (lurraldeko dialektoa).</p>	<p><i>Erljioa:</i> Islama.</p> <p><i>Baliabide ekonomikoak:</i> Munduko arrantza-erreserba handienetakoa du, baina aberastasun nagusia meatzetakoa da. BuCraa-ko meatzea munduko fosfato-hobi handiena da. Petrolio- eta gas-zundaketak ere badira.</p> <p>Elikagai gehienak inportatu egin behar dira. Merkataritzako eta ekonomiako jarduera osoa Marokoko Gobernuak kontrolatzen du.</p>

*Munduko gida, Iepala 1999/2000.



1. Aurrekari historikoak

Mendebaldeko Sahara 1975. urtera arte Espainiaren kolonia izan zen. 1974. urtean, potentzia kolonial gisa etorkizunik ez zuela ikusita, Espainia lurraldea uzteko behar ziren tramiteak egiten hasi zen. Hasieran bazirudien Espainiak Saharako herriaren **autodeterminaziorako** bideari ekin zioela, horrela lurralde horretan interesei eusteko aukera izango zuelakoan. Gainera ONUk, deskolonizazioaz duen doktrinari jarraituz, 1966. urteaz gero erreferenduma egitea aholkatzen zuen, hau da, bertako herritarrei kontsulta egitea eskatzen zuen, independentzia aukeratzeko bidea eskainiz. Bazirudien Saharako Herriak Herri gisa bere etorkizuna erabakiko zuela.

Hala ere, Marokok zioenez Saharako lurraldea haren subiranotasunaren mende zegoen eta, ondorioz, zuzenbidez berea zuen. Ildo horretan **Nazioarteko Justizia Epaitegian** errekurtsioa jarri zuen gai horretaz erabakia har zezan. Gakoa honakoa zen: ea Espainiarren agintaldia baino lehen Marokok lurralde horietan eskubiderik izan zuen ala, eskubiderik izan ez bazuen, lurraldea bertako biztanle edo sahararrena zen.

Bestalde, Mauritaniak gauza bera egin zuen lurraldearen zati txikiago bati buruz (Marokok gutxi gorabehera bost seiren eskatzen zituen eta Mauritaniak seiren bat). Dena dela, Mauritaniak egindako lurralde-eskeak ez zuen asko iraun; izan ere, 1979. urtean Mauritaniak bere eskakizunei uko egin eta lurraldetik erretiratu egin zen.

Zer gertatu zaio Marokoren erreklamazioari? Haga-ko Epaitegiak (sahararrei entzun gabe, hitz egiteko eskubidea Estatuak baino ez dutelako) 1975eko urriaren 16an irizpena eman zuen. "Adostasun"-dokumentua dela esan daiteke, baina gaia ez da, ez alde batera eta ez bestera ebazten. Marok

kok eta Mauritaniak nolabaiteko lotura historikoa izan dutela onartzen du, baina ONUren jarrera ofiziala aldatu behar denik ez zaio iruditzen, zeinak erreferenduma egin dezatela eskatzen segitzen baitu. Ondorengo gertaerak hauek izan dira:

- Marokok bere erara irakurri zuen epaia eta lehendik prestatuak izan zuten estrategia abiarazi zuen. "**Martxa Berdea**" hasi zen: 350.000 marokorrek lurraldea bakean hartu zuten. Jendetza horretan pertsona zibilak eta indar militarrek zihozten. Zalantza handirik gabe esan daiteke gertaera hura batez ere Marokoko biztanleriaren arreta orduan beren gizartearen zutuzten beste arazo batzuetatik desbideratzeko antolatuta zutela.
- Espainiak, ordura arte mantendu zuen jarrera ofiziala alde batera utzita, lurraldea Mauritania eta Maroko Estatuak banatzea erabaki zuen. "Madrilgo Akordioak" sinatu zituzten orduan, eta badirudi isilpean urtetan ari zirela haiek prestatzen. Akordio horiei esker Espainiak ordain ekonomikoak jasoko zituen fosfatoen edo Marokoko uretako arrantza-kuoten bidez.
- Saharako biztanleek, **Fronte Polisarioak** gidaturik (1973an sortu zen) armak hartu eta ihes egin zuten. Marokoko armada lurraldera sartu eta militarri okupatu zuen. 1976an sahararrek, klandestinitatean, Errepublika Saharar Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zuten (RASD).

Egoerak horrela iraun du orain arte. Maroko eta Fronte Polisarioa gerran ari dira eta lurraldearen zatirik handiena okupaturik dago.

2. ONUren eginkizuna

Espainiaren agintepean ere ONUk erreferenduma egin eta lurraldeak etorkizunean independentzia izatea defendatu zuen.

1975eko azaroaren 6an bertan ONUk Marokori Martxa Berdea erretiraraztea eta bi alderdiek ONUren ardurapean negoziazioei ekitea eskatu zion. 1988an bi alderdien (Marokoren eta Fronte Polisarioaren) konpromisoa lortu zen autodeterminazio-erreferenduma egiteko, baina oraindik ez da egin. Maroko etengabe ari da oztopoak jartzen erreferendumik egin ez dadin.

Nazio Batuen jarrera bertako kide diren Estatuak ikuspegitik ulertu behar da. Kontuan hartu behar da gatazka sortutakoan nazioarteko egoeran gerra hotzeko (1989an amaitu zen) eta blokeen arteko aurkakotasuneko giroa zegoela. Horregatik:

- Hasieran (70eko hamarkadan), Europa gerra hotzean bete-betean zegoela, mendebaldeko potentziek ez zuten Sahararen independentziarik nahi, orduan Fronte Polisarioa Aljeriaren eta Libiaren eraginpekotzat hartzen zelako. Hirugarren Mundukotzat eta Sobietar Batasunaren aldekotzat hartzen zuten. Horregatik Estatu Batuek eta Frantziak Marokoren jarrerari lagundu zioten. Zalantzarik gabe, AEBk Hassan II.ari Martxa Berdearen estrategia prestatzeko laguntza eta aholkuak eman zizkieten.
- Sobiet Batasunak ere, bere ideologiak ustez teoriar zioenari kontra eginez, batez ere Marokori lagundu zion, bien artean zeuzkaten lotura ekonomikoen eraginez.
- Herrialde arabiarrek ere Marokoren alde egin zuten, herrialde ahaltzuenetakoa zelako.

- Egoera horretan sahararrei lagundu zieten baka-
rrak hauek izan ziren:

- OUA (Afrikar Batasunerako Erakundea), zeinak 1984an RASD Estatu independente gisa onartu baitzuen (orduan Maroko erakunde horretatik erretiratu egin zen).
- Aljeria, ondoko potentzia, Marokok ingurura eragina zabaltzerik nahi ez zuelako. Tinduf-eko errefuxiatuen kanpamentua Aljeriako lurretan dago.

Horrek guztiak argitzen du ONUk gatazkako lehen etapan izandako pasibotasuna. Gerra hotza amaitu zenean, ordea, jarrerak aldatu egin ziren. Nazioarteko panorama ez zegoen inguru horretan Estatu independente bat sortzearen hain kontra. Horregatik izan du erakundeak gune horretaz gero eta interes handiagoa:

- 1991. urtean erreferendum-plana berriz abiarazi zen. Orduan **MINURSO** sortu zen, Mendebaldeko Saharan Erreferenduma Egiteko Misioa.
- James Baker-ek, George Bush-en garaian AEBko Estatu Idazkari izandakoa, ONUren agindua hartu zuen gatazka bidera zezan. Bi alderdiek **Houston-go Akordioak** sinatzea lortu zuen. Erreferenduma 1998ko abenduaren 17an egitea aurreikusi zen.
- ONUk gero 2000. urteko uztailean izendatu zuen erreferenduma egiteko, baina 1992az gero Maroko oztopatzen ari da erreferendumera iristeko Bake Plana.

3. Saharako Herriaren oraingo egoera

- Tinduf-eko kanpamentuetan, Aljerian, 150.000 saharar baino gehiago bizi dira pilatuta gatazka hasi zenez gero. Erreferenduma egiten bada, batez ere horiek osatuko dute errolda.
- Mapan ikusten denez, Marokok eusteko harresi modukoa eraiki du. Harresitik ekialdera marokorrek ez dute inolako boteririk ("inorena ez den lurraldea" da).
- Lurraldearen zatirik handiena, ordea, Marokoren agintepean dago. **Amnesty International**-ek honako alderdi hauek salatu ditu:
 - **Desagertutakoak:** 1.000 pertsona baino gehiago okupazioaz gero (1994ko datuak). Batez ere ikasleak eta jende ikasia izan da eta badirudi sahararren kulturaren edozein aztarna suntsitu nahi dutela.
 - **Tortura:** Desagertutakoen ia kasu guztiek dute tortura-gertaerekin zerikusia, Marokoko kartzelatik ihes egitea lortu duten atxilotuek aitortzen dutenez. Inork zigortu gabe aritzen dira torturazaitaleak: edozein ikerketa edo autopsia egitea eskatzen denean, Marokoko agintariek ezezkoa ematen dute. Torturazaitale bat bera ere ez da inoiz kondenatu.
 - **Arrazoirik gabeko atxilotetak:** Edozein aitzakia dela-eta atxilotzen dute jendea: RASDeko bandera eramateagatik, manifestazio batera joateagatik edo ideia politiko jakin batzuk edukitzeagatik. Gehienetan salaketek ez dute, ez oinarririk eta ez zehaztasunik, eta ematen diren epaiak neurririk gabekoak dira.

Gatazka ulertzeko glosarioa

Autodeterminazioa

Politikako eta gizarteko gertaera bat da eta zenbait erataria defini daitezke: helburu moduan, ideia filosofiko moduan, balore moral moduan, ideologia moduan, gizarte-mugimendu moduan edo nazioarteko arauak onartutako eskubide moduan. Mota askotako autodeterminazioak izan daitezke. Nolanahi ere, bereizketa interesgarriena eskubide hori erabiltzeak dituen eragin juridikoak eta politikoak aipatzen dituen da. Kanpo-autodetermi-

nazioa eta barne-autodeterminazioa bereizten dira. Lehenengoa herriek nazioarteko komunitatean beren estatusa erabakitzearen eskubidea da (estatu independentea eta subiranoa, beste estatu independente batekin askatasunez elkartzea), eta bigarrena herriek beren burua gidatzeko gobernu-era askatasunez aukeratzeko duten eskubidea da.

Nazioarteko justizia Epaitegia

Nazioarteko justizia Epaitegia (Mundu Epaitegia ere deitzen zaio) 1945ean sortu zen Nazio Batuen erakunde judizial gisa. Batzar Nagusiak eta Segurtasun Kontseiluak aukeratutako 15 magistratuk osatzen

dute eta herrialdeen arteko arazoak ebazten dituzte. Prozesu horretan Estatuak borondatez hartzen dute parte, baina Estatu batek parte hartzea onartzen baldin badu, behartuta dago Epaitegiaren erabakia onartzera.

Martxa Berdea

Antzinako koloniako lurraldetik espainiarrak egoteko egindako inbasio baketsua.

Fronte Polisarioa

Saharako nazio-askatasunerako mugimendua, Marokotik aske lurraldearen independentzia aldarrikatzen duena.

MINURSO	
Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioa. 1991. urtean eratu zen, su-etena	kontrolatzen du eta autodeterminazio-erreferenduma prestatzeko eginkizuna du.
Houston-go Akordioak	
Houston-en 1997ko irailean sinatu ziren. Bertan autodeterminazio-erreferendumerako data finkatzen da. Akordio hauek ONUren eta James A. Backer-en	(Nazio Batuetako idazkari nagusiaren bake-prozesurako mandatari bereziaren) babespean egin dira.
Amnesty International	
Munduko mugimendua da, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean aldarrikatutako eskubide guztiak eta nazioarteko beste hainbat arau bete daitezten	saiatzen dena. Oro har giza eskubideak sustatzen ditu eta eskubide horiek bortxatzen diren kasuetan kontra egiten dute.

Bake-plana diseinatzen	
<i>Pentsa ezazue nazioarteko begiraleak zaretela eta kasu hau aztertzen ari zaretela. Zuen lana bake-plan bidegarria proposatzea da, gatazkari irtenbidea ematearren. Horretarako, ondorengo galdera-sorta bete:</i>	
<ol style="list-style-type: none"> 1. Kasua irakurri ondoren: <ul style="list-style-type: none"> • Esan azaltzen diren gatazkak zein lekutan dauden. • Gatazkak mailen arabera sailkatu eta garrantzitsuena adierazi. 2. Gatazkan zerikusia duten eragileak zein diren zehaztu. 3. Denbora-lerroa osatu, gatazkako gertaera nagusien datak ipinita. 4. Parte hartzen duen nazioaz gaindiko instituzioari buruz: <ul style="list-style-type: none"> • Zein da? • Zer izaera du? (polítikoa, ekonomikoa, etab.) • Zein arrazoibide teoriko aldarrikatzen du? • Arrazoibide hori bat al dator egiazko praktikarekin? Zergatik? 5. Nazio Batuek erreferenduma egitea proposatzen dute Saharako gatazkaren irtenbide gisa. Analizatu proposamena eta adierazi: 	<ul style="list-style-type: none"> • Bere ahuleziak (alderdi ahulenak). • Bere mehatxuak (arriskuak). • Alde indartsuak (alderdi positiboenak). • Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak). <ol style="list-style-type: none"> 6. Zuen iritziz, Nazio Batuek proposatutako irtenbidetik kanpo besteren bat ba al dago? 7. Prestatu gatazkaren irtenbiderako proposamena eta analizatu, lehengo kasuan bezala, honakoak adieraziz: <ul style="list-style-type: none"> • Bere ahuleziak (alderdi ahulenak). • Bere mehatxuak (arriskuak). • Alde indartsuak (alderdi positiboenak). • Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak). 8. Aurreko bi analisiekin, baloratu aukera onena eta hautatu ikasgelako gainerakoei proposatuko diezuen.



Irakasleentzako erantzunak

A.M.I.A. analisia

Ahuleziak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> • Badirudi ONUk ez duela nahikoa indar Maroko arbitrajea onartzera behartzeko. • James Baker MINURSOren ordezkarri nagusi izendatu izana AEBk zona horretako garrantzi geostrategikoagatik aspaldi sortutako interesen ondorio izan daiteke. • RSADk nazioartean duen onarpena oraindik ere oso mugatua da. • OUAren eta herrialde arabiarren artean gurutzatutako interesak egon daitezke RASDri edo Marokori laguntzearen gaian. 	<ul style="list-style-type: none"> • Martxa Berdeaz gero errolda faltsututa dago eta berez “de facto” martxa horrek dirudienez jarraitu egiten du Marokotik zona horretara. • Inork ez du bermatzen erreferenduma galduz gero Marokok errespetatuko duenik. • Marokok ez du ezer galtzen; aitzitik, asko irabazten du gatazka “estalita” mantenduta. • Marokok lurraldea militarri kontrolatuz segitzen du; galtzeak gainera “erretiratzea” esan nahiko luke. • Marokok boterea irabazten du mehatxu integristaren kontra “tapoi-estatu” gisa, Europako zenbait potentzia bere alde jarrita. • Zaila da Marokok, galtzen badu, trukean “ezer jaso gabe” uztea. Orain “truke-txanpon” moduan etorkinak edo beste lurralde-eskakizun batzuk (Ceuta eta Melilla) aipatzen ditu. • Sahara aberastasun-iturri oparoa da eta horko etekinak orain Maroko ari da jasotzen.
Aukerak	Indarrak
<ul style="list-style-type: none"> • ONUren ebazpenak biek onartzera behartzen du, izateko eskubidea (RASDren aldetik) eta Marokoko erreinuak zona horretan dituen eskakizun historikoak. • Nazioarteko zigor-epaitegiak gero eta gehiago hedatzen eta indartzen ari direlako, Marokok zona horretan giza eskubideak bortxatzeko joera motelaraz daiteke. • Marokon errege irekiagoa dagoelako negoziatziorako aukerak zabaldu egin dira. • Houston-go akordioen ondoren MINURSOk berriz ere indar hartzeak 2000. urteko lehen hilabeteetan bakeari beste bultzada bat eman dio. • Bloke-politika desagertzeak eta “Hegoaldeko mehatxua” desmitifikatzeak zona horren garrantzi geostrategikoa nabarmen jaitsarazi du eta eztabaida interesa duten bi aldeetara mugatzeko aukera dago. 	<ul style="list-style-type: none"> • Alderdiak forma aldetik egoera berdinean daude. • Nazioarteko iritzia (baita Espainiakoa ere) erreferenduma egitearen aldekoa da (Marokoren interesen aurka). • RASD ez da inolako mehatxua Mendebaldearentzat. • Maroko, Tunisiak bezala, eskualdeko Estatu “orekatuenetakoa” da.

2. taldea

2. kasua. Moneta Fondo Internacionala eta Peru

0. Datu sozio-ekonomiko garrantzitsuenak*

	Peru	Espainia
<i>Jaiotakoan bizi-itxaropena (urteak)</i>	68,30	78
<i>Egiazko BPG per cápita (\$)</i>	4.410	15.941
<i>Edateko urik gabeko biztanleria %</i>	33%	—
<i>Bularreko haurren hilkortasun-tasa (bizirik jaiotako mila umeko)</i>	45‰	5‰
<i>Amen hilkortasun-tasa (bizirik jaiotako ehun milako)</i>	280	7
<i>Zenbat mediku ehun mila biztanleko</i>	73	400
<i>Elektrizitate-kontsumoa per cápita (kW.ordu)</i>	837	4.368
<i>Proteinen eguneko kaloria-eskaintza per cápita (gramoak)</i>	2.310	3.295
<i>Analfabetismoa (gizonak) %</i>	5,5%	—
<i>Analfabetismoa (emakumeak) %</i>	17%	/
<i>Guztizko kanpo-zorra (milioi \$)</i>	30.831	—
<i>Zorren zerbitzua / esportazioak</i>	15,3%	—

Iturria: *El Estado del mundo*, 1999, eta PNUD 1999.



Iturria: http://www.masitravel.com/info/mapa_sp.htm

1. Aurrekari historikoak

1960ko hamarkadaren amaieraz gero eta hurrengo hamarkadan zehar, boterean egon ziren gobernu militarrek nazioarteko mailegu-emaileek (Iparraldeko gobernuak eta banku pribatuek) eskaintako erraztasunez aprobetxatuz kreditu handiak eskatu zituzten; garai hartako giro baikorra zela eta, kapital-kopuru handiak eman zizkieten maileguz, gero diru hura

itzultzeko moduz asko kezkatu gabe. Besteak beste Peruko gobernuak diru-kopuru handiak eskuratu zituen eta kasu gehienetan gutxi batzuk aberasteko, faraoien mailako eraikinak egiteko edo armak erosteko izan zen. Perun, esaterako, garai horretan Estatuaren sarreraren % 40a Armadan inbertitu zen. Kanpo-zorraren zama orduan hasi zen.

2. Arazoak eztanda egitea

Atzerriko kreditu-iturriek atsegin zuten Peru, kobre- eta petrolio-hobi ugari zuelako, eta gobernuari mailegu handiak eman zizkioten. 1973an, adibidez, kanpo-zorra 1968an halako bi zen. Zorra gero eta handiagoa zen. 1973an kanpo-zorra ordaintzeko herrialdearen esportazioengatik izandako sarreraren % 20a baino gehiago behar zuten; 1978an zorraren kopurua 1973ko maila jasanezina (600 milioi dolarrekoa) baino bi aldiz handiagoa zen.

1978. urtean Peruko banku-sistemak 1.200 milioi dolarreko zuloa zuen. Kanpo-zorra hazten ari zen; gero eta diru gehiago zor zen eta kreditu gehiago eskatu behar zen; beraz, zuloa gero eta handiagoa zen. Orduan Moneta Fondo Internazionalarekin

"herstura" ekonomikorako ituna sinatu behar izan zuen. Beste era batera esanda, MFIk **egitura egokitzeko planak** proposatzen ditu eta herrialdeak plan horiek onartu egin behar ditu beste kreditu batzuk jaso nahi baditu. Delako herrialdeak, kasu honetan Peruk, "gerrikoa estutzeko" duen gaitasunean oinarritzen dira. Gastuak jaitsi eta sarrerak igo egin behar dira.

Baina neurri horiek herrialdeari mesede handirik ez zioten egin. Esportazioagatik sarrerek oso behera egin zuten eta zorra ordaintzen jarraitu behar izan zuten. Dibisa indartsuen sarrera-apurren erdiak horretarako behar izan zituzten. MFIn eginkizuna ekonomia hartzekodunei ordaintzeko moduan planifikatzea da, eta hori da Peruk egin zuena.



3. Arazoari Estatuak emandako erantzuna	
<p>38 urte zituen Alan Garcia hautatu zuten presidente 1985ean. Aurreko presidentek, Belaunde Terry-k, 1980an boterea eskuratu zuenean, kanpo-zorra 7.000 milioi dolar baino zerbait gehiagokoa zen. Belaunde-k Alan Garcia-ri 16.000 milioi dolarreko kanpo-zorra utzi zion. Gainera Belaunde-k bere agintaldiko azken urtean zorra ordaintzeari ia utzi egin zion eta Alan Garcia-k atzerapeneko beste mila milioi dolarren arazoa eskuratu zuen. Presidente berriak Peruri teoriar ordaintzea zegokion guztia hartzekodunei ordaindu izan balie, 1985ean herrialdeak esportazioengatik izandako sarrera guztien % 95a horretara bideratu beharko zukeen. Hori, jakina, politikoki ezinezkoa da. Orduan Alan Garcia-k kanpo-zorra ordaintzeko esportazioengatik sarreren % 10 baino gehiago ez erabiltzea erabaki zuen. Erabaki horren berri eman zuenean, hartzekodunak alerta gorria piztu zuten eta MFIren aginduei desafio egiten zuenari kontra egiteko prestatu ziren. MFIk ultimatuma eman zuen berehala, atzeratutako kopuruak ordain zitezen. Garcia-k ezezkoa eman zuen. 1986an MFIk Peru etorkizunean kredituak jasotzeko "ez zela gai" aldarrikatu zuen, hau da nazioarteko finantza-komunitatearen "heriotza-musua" eman zioten.</p> <p>Herrialde bat "gai ez direnen" zerrendan azaltzen denean, Banku Mundiala eta gainerako kreditu-iturri publikoak automatikoki kontra azaltzen dira, eta horrez gain banku pribatuak ere bai. Peruk, dolarrik</p>	<p>gabe, ozta-ozta bizi behar izan zuen, esportazioak ahalik eta gehiena baliatuz (baliabide naturalen neurritz gaineko ustiaketa) eta aldi berean inportazioak murriztuz.</p> <p>Kanpo-zorra ordaintzeko diru-kopurua murriztu egin zen, baina ez Alan Garcia-ren gobernuak kalkulatu adina. Peru horrela, munduko kreditu-iturrietatik isolatuta zegoen eta gainera diru-kopuru izugarriak ari zen ordaintzen: Garcia-k kalkulatu baino 2 - 5 aldiz gehiago. Esku-dirua izateko ahaleginean, Gobernuak bankuak eta aseguru-etxeak nazionalizatu egin zituen eta han galdu zuen zeukan fidagarritasun-apurra. 1988an Peruko ekonomia porrot eginda zegoen. Meatzariak grebara jo zuten eta fabriketan zein eraikuntzan jarduera nabarmen jaitsi zen.</p> <p>Egoera hark zer-nolako eragina izan zuen biztanleengan? Urte hartako abenduan enplegua zuten apurrek beren gutxieneko soldatak aurreko urtekoaren erdia balio zuela ikusi zuten. Une batean egiazko soldatak 1970. urteko maila baino beherago jaitsi ziren. 1990ko hamarkadaren hasieran biztanleak itxaropenik gabe zeuden. Herrialdetik ihes egiteko modurik zuenak atzerrirako bidea hartzen zuten eta gehienetan peruar dirudunak ziren. Gainerako jendeak egoera hartan (hau da, biztanleen hirutik bilanik gabe) iraun behar izan zuen.</p>

4. Moneta Fondo Internazionalak arazoari emandako erantzuna	
<p>1990ean gobernura Alberto Fujimori iritsi zen. Hauteskudeetan hautatu eta berehala, programa gogorra ezarri zuen, "MFIren talka-terapiaren" modukoa, eta beste kreditu batzuen bila hasi zen. Neurri berri horietako bat gasolinaren prezioa lehengo maila baino hogeita hamar aldiz handiagotan ipintzea izan zen. Aldi berean, uraren, telefonoaren eta elektrizitatearen gastuak 8 - 12 aldiz han-</p>	<p>diagoak izan ziren. Oinarrizko elikagai batzuen (patataren) prezioak, bestalde, 10 aldiz handiagoak ziren. Ekonomia-ministroak berak zioenez, Peruko biztanleriaren erdiak, 11 milioi pertsonak, pobrezia kritikoa zuen. Fujimori-ren gobernuak hartutako neurriek biztanle gehienez erosahalten kaskarra are eta gehiago jaitsi zuten.</p>

5. Biztanleriaren egoera

Fujimori-ren gobernuak erabilitako MFiren doikuntza-politikak zuzeneko eragin larriak izan zituen eta ditu biztanlerian: enpresak pribatizatzearen ondorioz (dibisa-sarrera areagotzeko hartu zen neurri hori), enplegu-maila nabarmen jaitsi zen eta, ondorioz, erosahalmena ere jaitsi egin zen. Peruarrek zailtasun handiagoak izan zituzten osasun-zerbitzuetara, jantzi eta oinetakoen arlora, garraio eta komunikazioetara heltzeko. Aldi berean elikaduragastua ere jaitsi egin zen premiazko gaien prezioak igota. Ildo horretan Peru zorpetutako herrialdeek kanpo-zorragatik eta MFik erabakitzen dituen neurriengatik populazioek jasaten duten sakrifizioan partaide da. Honakoak dira neurriok: langabezia areagotzea, oinarrizko elikagaien prezioa igotzea, osasunean eta hezkuntzan egindako inbertsioak nabarmen murriztea, azpiegituretan oso gutxi inbertitzea (ur-sistema, estolderia, errepide eta abarretan), esportaziorako baliabide naturalak neurritz gain ustiatzea (basoak soilteza edo biztanle indigenen lurak galtzea, etab.).

Horren adierazgarria da uraren prezioa igotzeak izan zuen eragina. Milioika peruar, batez ere Lima inguratzen duen basamortura baztertutako biztanleak (han ia inoiz ez du euririk egiten), zisternakamioietan eramandako uraren mende bizi dira.

Prezioak igota jendeak ur bera behin eta berriz erabiltzen du (platerak garbitzeko, adibidez) dirua aurreztearren. Maiz garbitzea luxua da eta are eta gehiago berdurak eta frutak garbitzea. Uraren eta garraioaren prezioak igota, kolera eta beste zenbait gaitz (gaitz ezezagunak edo desagertutzat jotzen zirenak) sortu dira.

Biztanleentzat hain ondorio izugarriak izan arren, MFik dioenez Peru "zentzuzko bidera etorri da" doikuntza-politikak ezarrita. MFiko zuzendari ohi den Camdesus-ek aitortu duenez, Peruk "argi eta garbi erakutsi du egin behar dena (doikuntza-politika adierazi nahiz) eta egin behar ez dena (Alan Garcia-k zorrak ordaintzeko diru gutxiago erabiltzea) zer den". "Hemendik aurrera lagun diezaiekegu, eta horixe egingo dugu."

Ez ordea Peruk ongi ordaindurik duen, baina interesen bidez gero eta handiagoa den, zorra ordaindu arte.

Bai MFirentzat eta BMrentzat doikuntzaren gizarte-kostua iragankorra da; izan ere, agindutako egonkortasuna lortu ondoren aberastasunak "gainezka egingo du" eta gizarteko behe-mailetako jendearengana (pobreengana) iritsiko da.



Moneta Fondo Internazionale

Nazioaz gaindiko instituzio ekonomikoa da, II. Mundu Gerra amaitutakoan 1944. urtean Bretton Woods-en sortutakoa: ONUren organigramako zati da. Hasierako helburuak moneten arteko parekotasuna gainbegiratzea, maileguak zituzten herrialdeei laguntzea eta nazioarteko ordainketa-sistema segurtatzea izan ziren. MFI izan zen

dolarra/urrea patroia ezarri zuena, hau da, dolarra urre automatikoki bihurtu ahal izatea ezarri zuena. Beraz, erreferentzia-moneta bihurtu zen dolarra. 178 herrialdek osatzen dute MFI, baina boto-eskubidea egiten duten ekarpen ekonomikoaren arabera da. Bere ekintzetan azpimarratzekoak dira egitura-doikuntzarako planak ezartzea.

Banku Mundiala

MFIrekin batera eratu zen. Herrialdeen hazkunde ekonomikoa sustatu eta garapen-proiektuak finantzatu nahi ditu. MFI bezala, 151 herrialdek parte hartzen badute ere, hauek egindako ekarpenaren arabera dute botoa. Beraz, FMI bezala erakunde hau ere herrialde aberatsek kontrolatzen dute.

Kasu honetan, MFIren kasuan bezala, era demokratikoan lan egiten ez duen instituzioa da eta ber-

tan beto-eskubidea dago. Hartzen diren erabakiei betoa ezartzeko behar adinako partea duen herrialde bakarra Amerikako Estatu Batuak dira.

Erabaki ekonomiko garrantzitsuenak MFI n hartzen dira eta neurri apalagoan BMn.

Egitura-doikuntzako planak

MFIk zorra duten herrialdeei ezarritako politika ekonomikoak, ekonomia saneatu eta nazioarteko lehiakortasuna hobetearren, azkenean herrialde horiek beren kanpo-zorra ordain dezaten. Praktikan politika horiek gizartean kostu izugarria izaten dute biztanle pobreenentzat; izan ere, osasu-

nerako eta hezkuntzarako inbertsio publikoetan murrizketak egiten dituzte. Azken batean, "gerrikoa estutzeko" programak dira eta herrialde pobreenetan berez jasanezina den kanpo-zorraren zama larriagotzen laguntzen dute.

Pobrezia kritikoa

Bizitzeko egunean dolar bat baino gutxiago duten pertsonen duten pobrezia-maila.

Bake-plana diseinatzen

Pentsa ezazue nazioarteko begiraleak zaretela eta kasu hau aztertzen ari zaretela. Zuen lana gatazkari irtenbidea emateko bake-plan bideragarria proposatzea da. Horretarako ondoko galdera-sorta bete

- 1.** Kasua irakurri ondoren:
 - Azaltzen d(ir)en gatazka(k) kokatu.
 - Dauden gatazkek garrantziaren arabera sailkatu eta garrantzitsuena zein den adierazi.
- 2.** Gatazkan parte hartzen duten eragileak zehaztu.
- 3.** Denbora-lerroa egin gatazkako gertaera nagusien datak bertan ipinita.
- 4.** Parte hartzen duen nazioaz gaindiko instituzioaz,
 - Zein da?
 - Nolakoa da izaeraz? (politikoa, ekonomikoa, etab.)
 - Zer arrazoibide teoriko aldarrikatzen du?
 - Arrazoibide hori bat al dator egiazko praktikarekin? Zergatik?
- 5.** Nazio Batuek erreferenduma egitea proposatzen du Saharako gatazkari irtenbidea ematearren. Aztertu proposamena honakoak adieraziz:
 - Bere ahuleziak (alderdi ahulenak).
 - Bere mehatxuak (arriskuak).
 - Alde indartsuak (alderdi positiboak).
 - Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak).
- 6.** Zuen iritziz, Nazio Batuek proposatutako irtenbidetik kanpo besteren bat ba al dago?
- 7.** Prestatu gatazkari irtenbidea emateko proposamen bat eta aztertu, aurreko kasuan bezala, honakoak adieraziz:
 - Bere ahuleziak (alderdi ahulenak).
 - Bere mehatxuak (arriskuak).
 - Alde indartsuak (alderdi positiboak).
 - Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak).
- 8.** Aurreko bi analisiekin baloratu aukera onena eta ikasgelako gainerakoei proposatuko diezuen hautatu.





Irakasleentzako erantzunak

A.M.I.A. analisia

Ahuleziak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none">• Maileguekin egindako inbertsio tamalgarriak.• MFI erakundea bera eta bere kobrantza-politika.• MFIk lekuko ekonomietan esku hartzeari aurka egin ezina.• Herrialdearen azpiegitura politiko eta ekonomiko ahula.• MFIk doikuntzaren gizarte-kostua "iragankortzat" hartzea.	<ul style="list-style-type: none">• Baliabideak neurritz gain ustiatzea.• Zorraren zenbatekoa lehen urteetan izugarri haztea.• Esportazioengatiko sarrerak mailaka jaistea.• Inportazioak murriztea.• Herrialdea kredituak jasotzeko "ez dela gai" aldarrikatzea.• Finantza eta aseguruetakako erakundeak nazionalizatzea.• Soldatek erosahalmena galtzea.• Doikuntzak gizarte-sarea deseginda sortzen den krisia.• Doikuntzak biztanleen bizimoduan duen kostua (osasan-zerbitzuak, horniketak, ura, argia, etab.).
Aukerak	Indarrak
<ul style="list-style-type: none">• Kobre- eta petrolio-hobiak.• Doikuntzaren ondoren beste kreditu batzuk iristea (baina faktore honek ez du esan nahi bizimodua hobetuko denik; aitzitik, berriz ere mehatxu bihurtzen da azkenean).	<ul style="list-style-type: none">• Alan Garcia-k MFiri zergari zegokionez aurre egiteko hartutako erabakia.




3. taldea

3. kasua. EENDESA eta maputxeen arteko gatazka

0. Zerikusia duten eragileak

- **Maputxe Herria.** Maputxe edo araukaniarrak aspaldi-aspalditik bizi dira Txilen. Espainiarren inbasioaren ondoren gogor iraun zuten beren lurraldean independentziara arte Bio-Bio ibaiaz hegoaldeko lurraldean. Txileko Estatuak sortu zenean, erresistentzia ahuldu egin zen eta garaitu egin zituzten. Txileko gizarte-maila apalenera baztertuak izan arren, maputxeek herri gisa kontzientzia eta nortasuna mantendu egin dituzte. Orain, ADMAPU erakundearen gidaritzapean Txileri haien kultura suntsitzeko saioei amaiera ematea exijitzen diote; baita eragindako kalteak ordaintzea ere (batez ere haiei lapurtu zizkieten betiko lurak itzultzea).
- **Txileko Estatuak.** Hiriburua Santiagon duela, 756.945 km²-ko azalera du Hego Amerikako mendebaldeko kostaldean. Txile gaur egun demokrazia "mugatua" da, eta Pinochet-en diktaduratik demokraziarako trantsizioa oraindik ez da erabat sendotu, oraindik ere diktadorearen eragina herrialdeko bizitza politikora heltzen delako. 2000ko otsailaz gero Estatuako presidentea lehen aldiz sozialista bat da (Ricardo Lagos) Salvador Allende gobernutik bota eta hil zuteneko gero.
- **EENDESA.** Arlo hidroelektrikoan diharduen enpresa multinazional espainiarra.



Iturria: Equipo Maíz, 1999.



1. Aurrekari historikoak

ENDESA multinazionalak, bere hango Endesa Chile bazkidearen bidez, Txileko gobernuarekin Bio-Bio ibaian presa eraikitzea kontratatu zuen (Ralco proiektua) eta 5.597 hektarea lur urpean utziko ditu. Beharrezko tramiteak bete ondoren, proiektuak CONAMA (Ingurumen Batzorde Nazionala) erakundearen baimena lortu zuen. Erakunde hori Txileko gobernuarena da eta erabakia 1997ko ekainaren 6an eman zuen. Presa eraikitzeko lanei ekiteko prestatu ziren.

Hasieratik lurralde hartako maputxeen komunitateak lan horren kontra daude; izan ere, 650 familia inguruk beren etxeak eta bizitzeko beharrezko dituzten nekazaritza-lurrik gabe geratuko baitira. Bio-Bio ibaia maputxe herriaren historiari oso loturik dago eta muga egiten du maputxeen pehuentxe komunitateen eta Txileko gobernuaren lurraldeen artean, Herri horrek Txileko Estatuarekin sinatu zuen bakeaz gero.

Gainera proiektua nazioarteko hainbat erakundek ere ez zuen ontzat hartu. Batzuek presa eraikita ingurumen-kostu handia ordaindu beharko zela salatzen zuten. Beste batzuek (**Banku Mundialak**, esaterako) Txileko gobernuak baimena emateko irregulartasunak izan zirela jakinarazi zuen. Berez erakunde horrek lanetarako kredituak bertan behera uztea gomendatu zuen.

CONAMAREN baimenaz gero, lanak berehala hasi ziren. Hala ere, protestak eta gizarte-liskarrak laster hasi ziren. Azkenean indigenen buruzagi batzuk kartzelaratu egin zituzten.

Hiru indigena ukatu egin ziren beren lurrak multinazionalari saltzera eta Txileko justiziarik salaketa aurkeztu zioten: ENDESA eta CONAMAREN kontra zuzenbide publikoa baliogabetzea eskatzen zuten. 1999ko irailaren 8an Txileko justiziak aldeko erabakia eman zien. Lanak geraraztea agindu zuen, irizpen hau emanez:

- Ingurumen-baimeneko baldintzak ez zirela bete
- Txileko lurraldeko indigenak babesten dituen Txileko legea ez zela bete.

Horrek guztiak proiektuaren gastuak igoarazi egin ditu eta aldi berean nazioartean ENDESAREN aurka ospe txarra zabaltzen hasi da.

Txileko gobernuak, ordea, bere Barne Ministroaren bidez (horren mende dago CONAMA) honakoa jakinarazi du: epaileen erabakiarekin ez dagoela pozik eta Ralco zentrala eraikitzeko lanek jarrai dezaten ahal duen guztia egingo duela.



2. Gatazkaren garrantzia

Gatazka hau multinazionala Hegoaldeko herrialdeetan parte hartzen denean sortzen diren egoeren adierazgarri da. Gainera, kasu honetan biztanleria indigenak ere parte hartzen du. Dakigunez, multinazional gehienak zenbait herrialdetako kapital pribatuarekin sortutako enpresak dira eta beren jarduera hainbat nazio eta kontinentetan burutzen dute. Edozein enpresak bezala, dirua irabaztea dute helburutzat. Hegoaldeko herrialdeetatik hiru gauza nahi izaten dituzte: baliabide naturalak, eskulan merkea eta beren produktuentzat merkatu berriak sortzeko aukera.

Orain tartean komunitate indigena bat dagoelako gauzak korapilatu egiten dira; izan ere:

- Urpean geratuko diren eta indigenenak diren lurra lege berezietz babestuta daude (**Txileko 1925ko legea**). Lege horrek honakoak ezartzen ditu:
- "Indigenen lurra komunitate indigenek ez bada ezin dira beretu, hipotekatu, bildu edo berreskuratu."
- Denen adostasuna beharrezkoa da (gehiengoa izatea ez da aski) lurra uzteko erabakia hartzeko.
- Maputxeen aldeko epaiak Txileko legezko oinarri hauek zituen.
- Txileko legeez gain nazioarteko itunak daude herri indigenak babesteko. Dena dela, Txileko gobernuak ez ditu berretsi itun horiek eta herrialde horretan ez dute lege-indarririk.

Auzitegiko epaia izan arren, Txileko gobernuak proiektua burutzearen alde segitzen du. Barne Ministroak, hain zuzen (horren mende dago

CONAMA) auzitegiko epiaz kexu azalduz Ralco zentralako lanak aurrera segi dezaten ahal duen guztia egingo duela aitortu du.

Kontuan hartu behar da enpresa multinazionalak egiten dituzten inbertsioak, oro har, herrialde horientzat erakargarriak direla; izan ere, kapital-kopuru handiak erabiltzen dituztelako ekonomiaren garapenerako motortzat eta hartzaile den herrialdearentzat enplegu-sortzailatzat hartzen baitituzte.

Hegoaldeko herrialdeei enpresa handi hauek ekartzen dizkieten abantailek enpresei botere handia ematen diete. Baliabide ekonomiko handiak, politikariek zuzeneko harremanak eta komunikabideekin ere harreman onar dituzte. Hain botere handia eduki dezaketenez gero, garapen bidean den herrialdearen politika ekonomikoa baldintzatu egin dezakete, enpresa handien ekarpenen mende dagoelako.

Botere horren alderdi ezkutua honakoa da: ezartzen diren Hegoaldeko herrialdean irabazi-goseari beren jarduera ekonomikoak dituen ondorioen ondoan lehentasuna ematea. Gai hori aipatu du Nazio Batuetarako ekonomia, gizarte eta kulturaren arloetan dauden eskubide-bortxaketaz txostena egin duenak. Bere 131. atalean egoera hori salatzen du:

"Nazioaz gairik enpresek mugaz gairik jarduera nagusietan egindako bortxaketak ez daude Estatu bakar baten eskumenen mende, eta Estatuak erabakitako konponbide eta zigorren kontraesan eta eraginik eza saihestearren, bortxaketa horiei arretaz aztertu beharko lirakeke. Estatuak eta nazioarteko komunitateak beren ahaleginak batu egin behar dituzte jarduera horiei eusteko, helburu hori lortzearen legeak ezarrita".

Gatazka ulertzeko glosarioa

Multinazionala

eta abarren arabera), bere produkzioa eta kontrola herrialde bat baino gehiagotan dituen enpresa. Bere egoitzak baldintza ekonomiko onenak dituen lekuetara aldatzen ditu. Beren jarduerak zenbait filialetako partaidetza-sareen azpian estaltzen dituzte (batzuetan, kasu honetan, adibidez, izen bera erabilita) eta inoiz ezin zaio arazoan erantzukizuna enpresaren benetako guneari eskatu. Antolamendu-egitura konplexu honi esker nazioetako legeak gainditu egin ditzakete, eta nazioarteko legeriako edo botere exekutiboko

hutsuneak aprobetxatzen dituzte beren jardueretan ahalik eta gehien arriskatuta beren proiektuetan ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Enpresa horien balioa ezartzen diren herrialdeko B.P.G. baino handiagoa izan daiteke. Batzuetan morrontza ekonomikoa ezartzen dute, presio eginda legeak aldatzeraino edo beren interesen aldeko gobernu-aldaketak eragiteraino. Sasi-estatuak era ditzakete eta ezartzen diren herrialdeetako gobernuek baino botere handiagoa izan dezakete nazioartean.

Banku Mundiala

MFIrekin batera eratu zen. Herrialdeen hazkunde ekonomikoa sustatu eta garapen-proiektuak finantzatu nahi ditu. MFI bezala, 151 herrialdek parte hartzen badute ere, hauek egindako ekarpenaren arabera dute botoa. Beraz, FMI bezala erakunde hau ere herrialde aberatsek kontrolatzen dute.

Kasu honetan, MFIn kasuan bezala, era demokratikoan lan egiten ez duen instituzioa da eta

bertan beto-eskubidea dago. Hartzen diren erabakiei betoa ezartzeko behar adinako parte duen herrialde bakarra Amerikako Estatu Batuak dira.

Erabaki ekonomiko garrantzitsuenak MFIn hartzen dira eta neurri apalagoan BMn.

Maputxeen lurrei buruzko Txileko legea

Indigenentzako legea. Txileko Estatuaren 19523 legea (1993), eta indigenen lurrak komunitate indigenek ez bada ezin direla beretu, hipotekatu, bildu edo berreskuratu dio. Gainera denen ados-

tasuna eduki behar da (gehiengoa edukitzea ez da aski) hirugarrenei lurrak emateko. Beraz, ENDESA multinazionalak dituen asmoak legez deuseztaturik daude.

Iturria: J. Atienza Azcona, 1998.

Bake-plana diseinatzen

Pentsa ezazue nazioarteko begiraleak zaretela eta kasu hau aztertzen ari zaretela. Zuen lana gatazkari irtenbidea emateko bake-plan bideragarria proposatzea da. Horretarako ondoko galdera-sorta bete.

- 1.** Kasua irakurri ondoren:
 - Azaltzen d(ir)en gatazka(k) kokatu.
 - Dauden gatazkak garrantziaren arabera sailkatu eta garrantzitsuena zein den adierazi.
- 2.** Gatazkan parte hartzen duten eragileak zehaztu.
- 3.** Denbora-lerroa egin gatazkako gertaera nagusien datak bertan ipinita.
- 4.** Parte hartzen duen nazioaz gaindiko instituzioaz,
 - Zein da?
 - Nolakoa da izaeraz? (politikoa, ekonomikoa, etab.)
 - Zer arrazoibide teoriko aldarrikatzen du?
 - Arrazoibide hori bat al dator egiazko praktikarekin? Zergatik?
- 5.** Nazio Batuek erreferenduma egitea proposatzen du Saharako gatazkari irtenbidea ematearren. Aztertu proposamena honakoak adieraziz:
 - Bere ahuleziak (alderdi ahulenak).
 - Bere mehatxuak (arriskuak).
 - Alde indartsuak (alderdi positiboenak).
 - Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak).
- 6.** Zuen iritziz, Nazio Batuek proposatutako irtenbidetik kanpo besteren bat ba al dago?
- 7.** Prestatu gatazkari irtenbidea emateko proposamen bat eta aztertu, aurreko kasuan bezala, honakoak adieraziz:
 - Bere ahuleziak (alderdi ahulenak).
 - Bere mehatxuak (arriskuak).
 - Alde indartsuak (alderdi positiboenak).
 - Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak).
- 8.** Aurreko bi analisiekin baloratu aukera onena eta ikasgelako gainerakoei proposatuko diezuen hautatu.





Irakasleentzako erantzunak

A.M.I.A. analisisia


Ahuleziak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none">• Maputxe Herriak Txileko gizartean duen fama.	<ul style="list-style-type: none">• CONAMAREN ingurumen-baimena.• Txileko gobernuak bere legeak saihesteko duen jarrera argia.• Proiektuaren garrantzi estrategikoa eta ekonomikoa.• Delako multinazionalaren boterea.• Herrialdean demokrazia kolokan izatea.• Azken bi hamarkadetan Txileko enpresen erabilpenetan izandako kutsu ultraliberala.
Aukerak	Indarrak
<ul style="list-style-type: none">• Bio-Bio ibaiaren balio historikoa.• Nazioarteko erakundeek proiektua ez onartu izana.• Banku Mundialak Txileko gobernuak baimena emateko egindako irregulartasunak adierazi izana.• Txileko justiziak maputxeen tesien alde erabaki izana.• Txileko gobernuan aldaketa politikoa.	<ul style="list-style-type: none">• Maputxe Herriaren historia.• Indigenen komunitateek egindako protestaren sendotasuna.• Herri indigenak babesteko dauden nazioarteko itunak.• Txileko 19253 legea.• Nazioaz gaindiko enpresen legez kontrako jardueraz nazioartean dagoen giroa.

4. taldea

4. kasua. Palestina eta Israelen arteko gatazka

0. Datu sozio-ekonomiko garrantzitsuenak	
<p><i>Izen ofiziala:</i> Palestinako Autonomia</p> <p><i>Lurralde autonomoak:</i> Gaza: 336 km² Palestinako Agintaritza Nazionalari dagozkionak (eta 42 kolono juduen kokalekuei dagozkienak) eta Zisjordaniaren % 27a.</p> <p><i>Biztanleria:</i> Bost milioi biztanle eskualdeko zenbait puntutan sakabanatuta.</p>	<p><i>Hizkuntza:</i> Arabiera eta frantsesa.</p> <p><i>Erljioa:</i> Islama.</p> <p><i>Barne-produktu gordina biztanleko:</i> Gaza eta Zisjordania: 1.465 dolar/urte. Israel: 18.150 dolar/urte.</p>

98



2. Gatazkaren garrantzia

Aurkitzen dugun lehen arazoa Ekialde Hurbilean dagoen kultur, etnia-, hizkuntz eta erlijio-gurutza-keta da; izan ere, herrialde horietako muga politikoekin ez baitator inola ere bat: musulmanak, xiitak, xiita zismatikoak, druso edo ismaildar... kristau maronita, kopto, ortodoxo eta kaldear... judu.. kurd edo armeniarrek, palestinarrak Israelen, Zisjordania, Gazako zerrenda, Jordania, Libano, Siria eta Kuwait... Kultura, hizkuntza eta erlijioen mosaiko horrek arazo bakoitza, txikia izanik ere, larriagotu egiten du. Palestinarren arazoa, ikusiko dugunez, zona horretako beste bat da; ez da bakarra, baina bai nabarmena.

Palestinarren arazoa "kultur aterki" bereko 5 milioi pertsona sakabanatuta egotea da. Lurrik eta Estaturik gabe geratu ziren 1967ko ekainean **Sei Egune-ko Gerra** deitutakoaren ondoren. Gertakizun hartan Israelgo armadak indarrez hartu zituen ONUk Palestinako Arabiar Estatua eratzeke aurreikusita zituen lurraldeak.

Gatazka zona horretako herrialde arabiar guztietara iritsi zen Israelen Gazako Zerrenda, Sinaiko penintsula (Egipto), Zisjordania (Jordania), Golan-go gainak (Siria) eta Jerusalem hartu zituelako. Israelen hasieran zuen lurraldea baino hamaika aldiz handiagoa bereganatu zuen. Gerra hotzaren testuinguruan, lurraldeak galdu zituzten hiru herrialdeak "sobietarren orbitakoak" izan ziren. Horrek ez zuen esan nahi nahitaez sobietarren aldeko herrialdeak zirenik, baizik eta zenbait arrazoiengatik (ekonomia, estrategia, politika, segurtasun eta abarreko arrazoiengatik) talde horretako herrialdeekin harreman estuagoak edukitzea komeni zitzaizela. Arrazoi horretatik hartu du gatazkak orain arte zona oso hori; izan ere, Siriak Israelen aurrez aurre jarraitzen baitu. Garai hartan ONUko Segurtasun Kontseiluan beto-eskubideko bi polo zeuden (AEB eta SESB) eta erabat legitimotasunik gabe zegoen Israelen okupatutako lurraldeetan Palestinako Arabiar Estatua eratzeke hasierako plana gauzatzeko.

Gerra hotzaren garaietan AEBk eta SESBk gatazka "intentsitate ertaineko" egoeran mantendu zuten, noizbehinkako ekintzen eta Estatu-terrorismoaren bidez, ez ONUk eta ez nazioarteko beste edozein erakundek parte hartzeke aukera izanik. Hala ere, inguruko Iran, Irak, Afganistan eta Kaukasoko errepubli-

ka sobietarretan gatazkak areagotu ahala, integrismoaren aldeko **Fronte Islamdar** arriskutsua eratzeke mehatxua zegoelako, AEBk Ipar Amerikako eta Israelgo **presio-taldea** bultzatu egin zuten negoziazio bidez gatazka konpontzeko, zona horretako musulmanek **integrismorantz** jo ez zezaten.

Une horretan ONUk protagonismo-apur bat irabazi zuen eta Palestinaren Askapenerako Erakundeak (**PAE**) eta Israelen bizitzeko eskubidea zutela elkarri onartzea lortu zuen. Autonomiaren lerro nagusiak definitu zituzten, 1998. urtean autonomia hori erabatekoa izan zedin.

1994. urtean Israelen botere batzuk Palestinako Agintaritzari transferitu zituzten eta 1995ean ituna egin zuten okupatutako lurraldeak hiru zona desberdinetan banatu:

- A ZONA: israeldarrek Palestinako zazpi hiri handitatik 1995 (Yenin, Kalkilia, Tulkarn, Nablus, Ramalah, Belen eta Hebron-dik) erretiratu egingo ziren. Hiri horietako botere zibil eta militarrek Israelen utzi egin zituen bertakoen esku (ikus mapa). Israelen azkenean Hebron ez zuen utzi.
- B ZONA: Zisjordaniako % 23 (ia 450 herrixka palestinar) palestinarren kontrolpean geratu ziren; hala ere, botere militarra israeldarren esku geratu zen.
- C ZONA: Zisjordaniako % 73 Israelen mende geratu zen erabat. 1995ean Gazako aireportua irekitzea onartu zen, baina gero Israelen ezezkia emanda ez zen erabakia bete.

1997an Israelen Hebron-en % 80a itzuli zuen. Puntu horri dagokionez 1994ko akordioak ez zituen bete, eta Zisjordaniatik ez da oraindik erretiratu, akordioa betetzea alde batera utzita.

1998an Israelen Wye Plantation-en beste egutegi bat betetzea erabaki zuen, baina 1999ko urtarilean sinatu eta laster uko egin zion. Orduan Netanyahu presidentea Palestinako Agintaritzaren aldetik armak uzteko gogo falta zegoela adierazi zuen, eta aitzakia gisa, atentatu batzuk aipatu zituen, nahiz eta atentatu horien egile zein izan ziren garbi egon ez. Gazako aireportua ireki egin zen, 1995ean erabakita bezala, baina Israelen atzeratu egin zuen Zisjordania eta Gazaren arteko pasabidea irekitzea.

3. ONUren eginkizuna

Bigarren Mundu Gerraz geroztik, judu etorkin sionisten eta lurralde haietan bizi ziren palestinarren artean zeuden gatazkak ikusita, ONUk zona horretarako bake-plana proposatu zuen, baina juduen Estatuak erabat deuseztatu zuen (ikus mapa) hurrengo urteetan (1967ko Sei Eguneko Gerra).

ONUk harrezkero proposatutako ebazpenak hauek izan dira:

- **NAZIO BATUEN 181. EBAZPENEA:** Bai sionismoa eta bai arabiar nazionalismoa kontuan hartzea proposatzen du eta lurraldea banatzea iradokitzen du. Beraz, Estatu panarabiar handi bat sortzeko asmoari bidea ixten zaio.
- **NAZIO BATUEN 242. EBAZPENEA:** "Bakea lurraldeen truk" deitutakoa; garbi uzten du nork itzultzen duen, baina ez dago hain garbi lurralde horiek nork jasotzen dituen. Zein lur itzultzen diren ere ez dago garbi. Erresuma Batuak lurralde batzuk itzultzea iradokitzen du, baina Frantziak okupatutako lurralde guztiak itzultzea pro-

posatzen du. Ildo horretan NAZIO BATUEN 2625. EBAZPENEAN oinarritu beharko litzateke, eta honek dio autodeterminazioa erabiltzeko formulak Estatu independentea, Estatu elkartua, Estatu-integrazioa edo erreferendumez onartutako beste formularen bat izango direla.

- **NAZIOARTEKO BAKE-KONFERENTZIA:** Biek bizi izateko eskubidea dutela elkarri onartu ondoren, alderdiak indar-berdintasuneko egoeran negoziatzera eser daitezke. Hala ere, indarrez okupatutako lurraldeak halaxe segitzen du Nazio Batuentzat. Horregatik agian Israelek ez du nahiko Nazio Batuek antolatutako bake-konferentziara etortzea, hauek "okupatutako lurraldeez" hitz egiten segitzen badute. Espainiak 1993an "bake-konferentzia batez" eta ez "bake-konferentziaz" (Nazio Batuek, noski) hitz egitea proposatu zuen. Ikusiko dugunez, ONUren eginkizuna berriz ere oso mugatuta dago.

4. ONUren ebazpenen eta proposamenen emaitzak

Ikusiko dugunez, proposamen hauek guztiak hutsean geratu dira zenbait arrazoi direla medio:

1. Alderdi laborista, Simon Peres eta Isaak Rabin buru zirela, 1995. urtera arte negoziazioaren alde azaldu zen. Hala ere, Rabin militante sionista ultraeskuindar batek hil zuenez gero eta eskuineko Likhud alderdia gobernura heldu zenez gero, Benjamin Netanyahu-ren gidaritzapean sionismoak Israelgo gizartea gerrarako prest eta bake-akordioen kontra jarri zuen. Ehud Barak laborista boterera etorri zenean, badirudi berriz ere negoziazio-giroa nagusitu zela.
2. Bi alderdien asmo saihestezina Jerusalem da; hori baita liskarraren erdigunea.
3. Zona horretan integrismo islamdarra areagotzen ari da (Iran, Sobiet Batasun ohiko errepublika, Afganistan eta abarren) eta Israeli atzera eragiten dio horrek lurraldeak itzultzeko orduan.

4. Gerra hotzean Israeli gatazka "itzali gabe" mantentzea komeni zitzaion, bere misil balistikoak eta etekinak ematen dizkion arma-industria mantentzea justifikatzeko. Zer eragin izango luke orain hain industria indartsuak desegiteak? Ez da ahaztu behar munduan Israel dela armagile nagusietakoa.
5. Israelek ez du eragotzi eta ez du eragotzi nahi juduek palestinarrentzat diren lurretan kokalekuak ezartzea. Kolono juduek palestinarren berenak zituzten lurretatik bota egin dituzte. Juduek beren legea ezarri dute eta etxeak eraiki dituzte, Palestinako biztanleen asmoak bortxatuz.

5. Gatazkaren oraingo egoera*

Nazio Batuak historian zehar bigarren mailan geratu dira negoziazio honetan. Amerikako Estatu Batuak eta Errusia oso interesaturik egon dira negoziazio horietan, baina badirudi azkenaldian negoziatzeko bideak Frantzia, Erresuma Batua eta Espainiaren esku utzi dituztela. Hala ere, Israeli amorerik ez emate horrek kalteak eragiten dizkio: Europa eta Japoniako merkatuetan, aspalditik merkatu arabiarrei lotuta egon direnetan, orain negozio-aukerak baztertzen ari zaizkio Israeli. Bestalde, garbi negoziatzen ez duenez gero, **Palestinako Agintaritza Nazionalari** legitimitatea kentzen ari zaio, zeina palestinarren Hamas-ko talde integrista terrorista deuseztatzen ahalegin handia egiten ari

baita. Beraz, beste **intifada** bat (horrela deitzen diote lurralde okupatuetako altxamendu zibil armatuari) sor daiteke. Israelgo armadak 2000ko maiatzean Libano behin eta berriz bonbardatu ondoren, zona horretako Estatu arabiarrek Ehud Barak-en gobernuaren aurkako ekintza-lerroak erabakitzeke ohiz kanpoko bilera egin nahi izan zuten, eta Barak aurreratu egin zitzaizen "eskua luzatua" eta Jerusalem hegoaldeko palestinarren hiru auzo itzultzea aginduta.

Gatazka ulertzeko glosarioa

PAE

(Palestinaren Askapenerako Erakundea) 50eko hamarkadaren erdialdean sortutako erakundea da eta herrialde arabiarrek erabat mendean eduki zuten (hain zuzen Egiptoren interesen mende

egon zen). Azkenean Nazio Askatasuneko Mugimendu bihurtu zen. Zenbait taldek osatzen dute eta alderdi garrantzitsuena Al Fatah izan da.

Palestinako Agintaritza Nazionala

Erakunde honetan ondoko hauek dira kideak:

- Palestinako lurralde okupatuetako eta autonomo-etako biztanleek zuzenean sufragio unibertsalaz aukeratutako 88 kideko kontseilua.

- Agintaritza Exekutiboko presidentea, prozedura beraz hautatua.

Kontseiluaren eskumenak A eta B zonetarako dira, baina zona horietatik igarotzen diren israeldarren-egan ez dute eskumenik.

Arabiarra

Arabiar penintsulako eta Iloga Emankorreko (herrialdeak: Saudi Arabia, Bahrein, Arabiar Emirerri Batuak, Kuwait, Oman, Katar, Yemen,

Palestinako Autonomia, Irak, Israel, Jordania, Libano, Siria) eskualdeak duen etnia eta kultura.

* Informazio hau 2001ean berriz ere gatazka larriagotu baino lehen prestatu zen, eta, ondorioz, kasua eguneratu beharra dago.

Islama	Erljio monoteista nagusia, bi korrante dituena: sunnia (hedatuena) eta xiiia (Iran, Irak eta Bahrein-en gero eta hedatuago dagoena); xiiien zis-	matik ismaildarrak (Sirian eta Yemenen), drusoak (Sirian eta Libanon), alaitarrak (Sirian agintean daudenak) eta zaidiak (Yemenen) sortu dira.
Sei Eguneko Gerra	Israelek 1967ko ekainean egindako gerra, Gazako zerrenda (Egiptoren administraziopekoa) eta Zis-jordania (Jordaniaren administraziopekoa), Golan-go goialdeak (Siriarenak) eta Sinaiko	penintsula (1979an Egiptori itzulitakoa) bereganatu zituenekoa. 1947an ONUk Palestinako Estatu arabiarra sortzeko aurreikusitako lur guztiak okupatu zituen.
Integrismoa	Testu sakratuen letrarekiko oso zorrotza den interpretazio teologikoa, ultrakontserbadorea, bizitza (kultura, politika, gizartea, estetika, etab.)	oinarri erlijiosoetatik abiatuta eraikitzea exijitzen duena. Erljio monoteista guztietan dago (kristautasunean, judaismoan eta islamean).
Fundamentalismoa	Edozein ideologiatako muturreko jarrera; integrismotik bereiztea ez da erraza, baina ideolo-	giako kontzeptuetan gehiago erabiltzen da erlijioetan baino.
Fronte Islamdarra	Erakunde, gobernu, mugimendu, estaturik gabeko nazio eta abarren elkarte, ofizialki eratu eta antola-	tu gabea, Israel eta honen babesle Amerikako Estatu Batuak etsaitzat dituena.
Presio-taldea	Partikularren edota enpresen interes ekonomiko eta politikoen elkargunea, isilpean ahal den era	guztietan erabaki politikoetan beretzat mesedegarri izan daitezten eragiten duena.
Intifada	Palestinako biztanle zibilen Israelgo armadaren kontrako borroka armatua.	
Hamas	Israelen aurkako erresistentzia-mugimendu islamdarra, ekintza politiko gisa terrorismoa erabiltzen duena.	

Bake-plana diseinatzen

*Pentsa ezazue nazioarteko begiraleak zaretela eta kasu hau aztertzen ari zaretela. Zuen lana bake-plan bide-
ragarria proposatzea da, gatazkari irtenbidea ematearren. Horretarako, ondorengo galdera-sorta bete:*

1. Kasua irakurri ondoren:
 - Esan azaltzen diren gatazkak zein lekutan dauden.
 - Gatazkak mailen arabera sailkatu eta garrantzitsuena adierazi.
2. Gatazkan zerikusia duten eragileak zein diren zehaztu.
3. Denbora-lerroa osatu, gatazkako gertaera nagusien datak ipinita.
4. Parte hartzen duen nazioaz gaindiko instituzioari buruz:
 - Zein da?
 - Zer izaera du? (polítikoa, ekonomikoa, etab.)
 - Zein arrazoibide teoriko aldarrikatzen du?
 - Arrazoibide hori bat al dator egiazko praktikarekin? Zergatik?
5. Nazio Batuek erreferenduma egitea proposatzen dute Saharako gatazkaren irtenbide gisa. Analizatu proposamena eta adierazi:
 - Bere ahuleziak (alderdi ahulenak).
 - Bere mehatxuak (arriskuak).
 - Alde indartsuak (alderdi positiboenak).
 - Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak).
6. Zuen iritziz, Nazio Batuek proposatutako irtenbidetik kanpo besteren bat ba al dago?
7. Prestatu gatazkaren irtenbiderako proposamena eta analizatu, lehengo kasuan bezala, honakoak adieraziz:
 - Bere ahuleziak (alderdi ahulenak).
 - Bere mehatxuak (arriskuak).
 - Alde indartsuak (alderdi positiboenak).
 - Bere aukerak (eskaintzen dituen ahalmenak)
8. Aurreko bi analisiekin, baloratu aukera onena eta hautatu ikasgelako gainerakoei proposatuko diezuen.





Irakasleentzako erantzunak

A.M.I.A. analisisa

Ahuleziak	Mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> • Gatazkako alderdi bataren eta bestearen sakoneko interesak ez die irtenbiderik ematen. • Lurrak banatzea besterik ez du proposatzen. • Ez du garbi zehazten zein lur itzultzen diren. • Prozesua arbitratzen ari diren herrialdeak ez dira ados jartzen itzuli beharreko lurraldeez. • Israelek prozesua blokeatu egiten du eta ONUk ez du nahikoa indar arbitrajea onarrarazteko. • Arafat-ek ez du behar adinako bermeaz Palestina-ko Agintaritza Nazionala ordezkatzeko duena bermatzeko. • Palestinako arazoa Israelgo mugetatik kanpo urrutiraino zabalduta dago, eta ez dago garbi Siriak eta Jordaniak nolako borondatea duten eta arazo honetan ezkutuko zein interes dituzten. 	<ul style="list-style-type: none"> • Estatu palestinar handi bat sortzeko arabiarren asmoa baztertu egiten da. • Ez dago garbi itzultitako lurraldean noren esku geratzen diren. • Hitzak aldatzera behartzen du: Israelek ez du onartzen "lurralde okupatuak" esaterik; ezta "bake-konferentzia" esatea ere. • Hamas gero eta gogorragoa da eta PANen gobernuari legitimotasuna kendu egiten dio. • Bake-prozesua ez da Israelgo Likud alderdi eskuindarraren gustukoa; ezta judu ortodoxoen gustukoa ere. • Israelek egoera horretan nahi adina iraun dezake; izan ere, jarrera horrek ez dio inola ere kalte egiten: "pieza mugitzeko" premiarik ez dute. • Erabaki gabe geratzen da "Jerusalem-en auzia", Israel ez baitago mahai gainean gai hori ipintzeko asmoz. • Israelek ez du kontrolatzen ortodoxoek praktikatzeko duten kokalekuen estrategia. • Israelek ezin du bere historian "sakratu" den eta orain PANek nahi duen lurrik eman. Israelek bere segurtasuna A eta B zonak militariki kontrolatuta bermatzen du.
Aukerak	Indarrak
<ul style="list-style-type: none"> • ONUren proposamenak bi aldeak behartzen ditu biek bizitzeko eskubidea dutela onartzera. • Ekialde Hurbil osorako bake-prozesu zabalerako aukera dago. • Palestinako Arabiar Estatua sortzea planteatzen da; asmo historikoekin ez dator bat, baina bideragarria da. • AEBn Israelen alde diren presio-taldeen eragina galtzen dute negoziazio-mahaian. • PAEko zati gogorrena eta indarra erabiltzearen zaleena legitimaziorik gabe geratzen da. • Israelen gobernu-aldaketa izanda PANekin hobeto konpontzen dira. • Bloke-politika desagertuta jokoan dauden aldagaien konplexutasuna murriztu egin da eta eskualdeak potentzia handientzat balio geoestrategikoa galdu egin du. 	<ul style="list-style-type: none"> • Alderdiak forma aldetik maila berean uzten ditu. • Palestinako Arabiar Estatua eraikitzeko prozesua funtsezko etsaiak (Israelek) errespetatu egiten du. • Aurrerapauso bakoitzak indartu egiten du PAN, PAEko zati erradikalaren aurrean.



Dokumentazio osagarria

Estatuaz gaindiko instituzioak

Bigarren Mundu Gerraren ostean, orduan jaiotako "ordena" berria kudeatu beharra ikusi zuten. Ordena berri hartan etorkizunean mundu-mailako gatazkak sortu ahal izatea eragotzi egin behar zen. Horretarako instituzio batzuk sortu ziren eta gaur egun horiek gidatzen dituzte nazioarteko harreman gehienak: Nazio Batuen Erakundeak (**ONU**) nazioarteko politika; Moneta Fondo Internazionalak (**MFI**), Banku Mundialak (**BM**) eta Munduko Merkataritza Erakundeak (**OMC**).

Nazio Batuen sistema - ONU

1945eko urriaren 24an, bakea nazioarteko lankidetzaz eta talde-segurtasunaz gorde nahian 51 herrialdek Nazio Batuak erakundeak sortu zuten. Orain munduko ia Estatu gehienak dira Nazio Batuetako kide: guztira 174 Estatu.

Estatuek Nazio Batuetako kide izatea lortzen dutenean, Nazio Batuen Gutuneko betebeharrak onartzen dituzte. Nazioarteko itun horretan nazioarteko harremanei dagozkien oinarriko printzipioak ezartzen dira. Gutunaren arabera, Nazio Batuek lau asmo dituzte: nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea, nazioen artean adiskidetasun-harremanak sustatzea, nazioarteko gatazkak konpontzeko nazioarteko lankidetzak bultzatzea eta, halaber, giza eskubideak errespetatzea sustatzea eta nazioen ahaleginak egoki bideratzeko gune izatea.

Nazio Batuetako kideak Estatu subiranoak dira. Nazio Batuak ez dira munduko gobernuak eta ez dute legerik ateratzen. Hala ere, Erakundeak nazioarteko gatazketan irtenbideak aurkitzeko eta mundu osoari erasaten dioten

gaiez politikak formulatzeko behar diren baliabideak eskaintzen ditu. Nazio Batuetan kide diren Estatu guztiek, handiek eta txikiek, aberatsek eta pobreek, ikuspuntu politiko eta gizarte-sistema desberdinetakoek, prozesu horretan hitza eta botoa dute.

Nazio Batuek sei organo nagusi dituzte. Horietako bost (Batzar Nagusia, Segurtasun Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Administrazio Fiduziarioaren Kontseilua eta Idazkaritza) New Yorken daude eta Nazioarteko Justizia Epaitegia Hagan dago (Herbehereetan).

Moneta Fondo Internazionala, Banku Mundialaren taldea eta "erakunde espezializatu" deitutako beste 12 erakunde Nazio Batuei lotuta daude lankidetzak-hitzarmenen bidez. Organo autonomoak dira, gobernuen arteko akordioen bidez sortutakoak, eta nazioartean erantzukizun handiak dituzte ekonomia, gizarte, kultura, hezkuntza, osasun eta beste zenbait arlotan

Moneta Fondo Internazionale FMI

MFI erakundea moneta-sistema egonkor mantentzeko sortu zen, hau da, Estatuetakoa monetek bat-batean gorabehera handiak izan ez zitzaten. Zailtasunak zituzten Estatuak beren moneten balioa kontrolatzeko MFIk kredituak eskaintzen zituen ezegonkortasun-aldiak gainditu ahal izateko.

Hala ere, MFIk 70eko hamarkadan eginkizun hori alde batera utzi zuen. 1982. urteaz gero duen eginkizuna zorpetutako herrialdeei kredituak ematea da, horren truke doikuntza ekonomikoaz egiten dizkien gomendioak onartuta. Horrela ezartzen eta kontrolatzen ditu Hegoaldeko herrialde askotako erreforma ekonomikoak. Herrialde horiek behartuta egoten dira eskakizun horiek betetzera kanpo-zorra ordaindu ahal izateko eta bizirik jarraitzeko premiazkoa duten garapenerako kreditu eta laguntzak jasotzen segitu nahi badute.

MFI honetarako sortu zen: nazioarteko lankidetzak sustatzeko; nazioarteko merkataritzaren hazkunde orekatua bideratzeko; moneta-trukearen egonkortasuna sustatzeko; alde anitzeko ordainketa-sistema ezartzen laguntzeko; ordainketa-balantzan zailtasunak zituzten kide ziren herrialdeei, aldi baterako eta behar diren bermeekin, instituzioaren baliabide orokorrak eskaintzeko, eta kide diren herrialdeen ordainketa-balantzaren desoreken denboraldia laburtu eta maila murrizteko.

MFIren jarduera-arloak honako hauek dira:

- **Gainbegiratzeko** prozesuaren bidez MFIk kide diren Estatuak moneten truke-politika

ebaluatzen du, egoera ekonomiko orokorraren analisi globalaren esparruan, eta halaber, kide den herrialde bakoitzak politika ekonomikoan onartutako estrategia ebaluatzen du. MFIk bere gainbegirale-eginkizuna honela betetzen du: kide den herrialde bakoitzarekin IV. atalaren urteroko alde biko kontsulten bidez; munduko ekonomiaren etorkizuna aztertzearen testuinguruan alde anitzeko gainbegiraltzaren bidez, zeina urtean bitan egiten baita, eta arretazko akordioek, gainbegiraltza indartuaren eta programen gainbegiraltzaren bidez. Horien bidez kide den herrialdeari MFIk zuzeneko jarraipena egitea eskaintzen diote, instituzioaren baliabideak erabiltzen ez direnean. (Arretazko akordioek kide den herrialdearen politikaz nazioartean konfiantza sendotu egiten dute. Programak gainbegiraltzaren barruan egon daiteke itzalean dagoen programaren esparruan erreferentzia-adierazleak erabiltzea, baina hori ez da MFIren babes ofiziala).

- **Laguntza finantzarioak** MFIk ordainketa-balantzan arazoak dituzten eta kide diren herrialdeei emandako kreditu eta maileguak barne ditu, doikuntza eta erreformako politiken babes gisa. 2000ko urriaren 31n MFIk akordio finantzarioak egin zituen 90 herrialderen alde eta guztizko kopurua 46.000 milioi IEB edo Igorpen Eskubide Berezikoa izan zen (gutxi gorabehera 58.800 milioi dolarrekoa).

Banku Mundiala - BM

Banku Mundiala MFIekin batera sortu zen eta hasieran gerrak erasandako Europako herrialdeei berreraikuntza finantzatzen aritu zen. Gero Hirugarren Munduko garapen-arazoez arduratu zen eta proiektuak finantzatzeko kredituak eman zituen.

70eko hamarkadan dibisa-premia zuten herrialde askok kreditu-eskaintza ugari jaso zuten banku komertzial pribatuetatik, petrolio-

esportatzaile ziren herrialdeetako dolar-kopuru handiak zituztelako. Denboraldi horretan Banku Mundialaren eta MFIren baliabideen garrantzi handirik ez zuten izan. Baina 80ko hamarkadaren hasieran Hegoaldeko herrialdeek, interesen prezioa igo zelako, zorra ordaindu ezinda geratu zirenean, lehenbizi MFI eta gero BM hartzekodun bankuen interesen zaintzaile izan ziren.

Munduko Merkataritza Erakundea OMC

Munduko Merkataritza Erakundea (OMC) herrialdeen arteko merkataritza gobernatzen duten arauz arduratzen da. Oinarriak OMCren akordioak dira. Munduko merkataritzan aritzen diren herrialde gehienek (beren

parlamentuetan berronetsita) negoziatu eta sinatutakoak dira. Helburua ondasun eta zerbitzuen ekoizleei, esportatzaileei eta inportatzaileei, beren jarduerak burutzen laguntzea da.

Enpresa multinazionalak munduko ekonomiaren egoeran

Enpresa multinazional handiak munduan buru dira berrikuntzan, eta beren produkzio-jarduerak mundu osora hedatzea, garapen bidean diren herrialdeetan dituzten ezagutzak zabaltzeko bide garrantzitsua da. AEBn 1990a eta 1996a bitartean emandako patenteen % 26a herrialde industrializatuetakoko enpresa multinazionalena izan zen. Horrek enpresa hauek duten ezagutza-mailaren berri ematen du. Ezagutza horiek zeharka hedatzen dira, leku bakoitzeko langile eta hornitzaileen ikasketaren bidez eta baliabide teknikoak saltzearen bidez.

Merkataritza-erregimen irekieneko herrialdeek atzeritarren inbertsio lehiakorrenak eta kanporantz bideratutakoak erakartzeko aukera handiagoa dute. Inbertsio horiek, hain zuzen, teknologia eta kudeaketa eraginkorragoak izan ohi dira. Inbertsio horiek jasotzen dituen herrialdearentzat mesedegarri izatea ala ez izatea, neurri batean lekuko hornitzaileen lehiakortasunaren – hauek, aldi berean, beren ahalmenaren eta nazioarteko prezioetan sargai edo input-etara sarbidea izatearen mende daude – eta behar adinako barne-azpiegitura edukitzearen mendekoa izango da

Inbertsioaren bigarren mailako eraginak ere atzeritarren jabegoko establezimenduen eta ekonomiaren gainerakoaren artean dauden harremanen arabera izango da.

1965ean azaldu zirenez gero, "makila" deitutakoek eskaintzen dituzten enplegu-aukerek etengabe gora egin dute: gaur egun ia 3.000 lekutan 800.000 langile baino gehiagori ematen diete lana.

Munduko merkatuak irekitzeari esker nazioarteko teknologia, kapital-ondasunak eta ideiak lortzea errazagoa da eta hazkuntza lasterragoa izan daiteke. Azterketa batzuek diotenez, ekonomia azkar hedatzen ari zitzaizen herrialdeen esportazioak, batez beste, BPGren % 32a ziren; ekonomia motelago hazten ari zen herrialdeetan % 20koa zen. Asiako ekialdeko ekonomien hazkunde azkarraren arrazoietakoa bat herrialde horiek munduko merkatuekin lotura sendoak ezartzeko eta teknologia eskuratzeko gaitasuna izan zen. Erabateko liberalizaziotik hasi (Singapur-en, adibidez) eta esportazioak gogor sustatzerainoko (Koreako Errepublikan, esaterako) politiken bidez lortu zuten.

Oraindik orain Ekialde Hurbileko eta Afrikako iparraldeko herrialdeek esportatzaileei instituzioen pizgarriak eskaini dizkiete merkatu libreko zonak sortuta. Hala ere, zona horietako gehienak gaizki administratuta daude eta inportazioko muga-zergak oraindik ere nahikoa handiak dira. Esportatzaileek sargaien inportazioei (% 35tik % 50eraino) aplikatu beharreko mugazerga izugarriekin topo egin dute eta oso zaila

(edo ezinezkoa) izan da inportazio-baimenak lortzea.

Produktibitatea eta ekonomia haztea, ZIA edo zuzeneko inbertsio atzerritarrari lotutako ideia eta kanpo-teknologietara irekitzearen emaitza ere bada. Gehienetan prozesu hori kanpoan erosten duten enpresen erosketa-sailetan hasten da, produkzioari eta komertzializazioari buruzko ezagutza-iturri garrantzitsua direlako. Hong Kong (Txina), Indonesia, Malaysia, Singapur, Taiwan (Txina) eta Thailandiak gogoz hartu dute ZIA, eta hazkunde handiko denboraldiak ZIAren igoera handiekin oso loturik daude. Igoera horiek, era berean, ZIArentzako ingurune egokiaren eta kanpoko egoera onaren mendeakak dira.

Herrialdeen arteko inbertsioak batez ere produkzioaren bidez egiten dira. Mugarik ez duten enpresa hauek produkzioa kontzentratu eta zentralizatu egiten dute. Kontzentratu egiten dute kapitala ugari dutelako eta salgaiak erruz produzitu eta planeta osora banatzen dituztelako. Industria, merkataritza eta finantzaren arloko jarduerak zentralizatu egiten dituzte, gero eta enpresa gutxiagok negozio-bolumen handiagoa kontrolatzen dutelako.

Multinazionalak diru eta jende asko mugitzen dute. General Motors multinazionalak, adibidez, Austriak baino diru gehiago mugitzen du. Munduko 50 multinazional handienek beren kapitalak batuko balituzte, munduan diru gehien mugitzen duen hirugarren herrialdearen parean egongo lirateke. Ezaugarri horiek dira beren boterearen oinarria. Honako funtzionamendua izan ohi du aipatutako botereak:

1. Etxe sortzaile bat, kapitalaren zati handiena atzerrikoa duena eta ezartzen den herrialdeko kapitala ere hartzen duena. Coca Cola, adibidez, Estatu Batuetakoa da eta Portugalen ezarri da. Estatu Batuetako Coca Cola da etxe sortzailea eta formula eskaintzen du. Portugalgo Coca Cola filiala da eta botilaratzeko fabrika ipintzen du. Produkzioa batez ere helburu den herrialdean (kasu honetan Portugalen) saltzeko da.
2. Beste batzuetan produkzio-jarduera zatikatu egiten da eta zenbait herrialdetan banatzen da. Ikus dezagun: Alemaniako Volkswagenek motorra egiten du, Frantziako Volkswa-


gen-ek abiadura-kaxa eta Brasilgo Volkswagenek automobila muntatu egiten du. Banaketa hori herrialde bakoitzean dauden abantailen arabera egiten dira (soldata txikiagoak edo zerga arinagoak daudelako, adibidez).

Jarduteko bi era hauen artean enpresa handiek nagusi izateko eta kontrolatzeko (eta horren bidez beste herrialde batzuetara hedatzeko) zenbait mekanismo dituzte. Berrikuntzen arloan Hirugarren Munduan erabiltzen den teknologia gehiena multinazionalak kontrolatzen dute. Herrialde garatuetan egiten da ikerketaren zatirik handiena eta gero multinazionalak, beraiek ezarritako baldintzetan, transferitu egiten dute. Hori dute nagusitasunaren gakoa.

Teknologia libre ez dela batetik bestera ibiltzen erakusten duen beste adibide bat patenteena eta teknologia-lankidetzarena da. Patente-sistemaren eginkizuna berrikuntza teknologikoak ez orokortzea da. Hirugarren Munduko herrialdeei ematen zaizkien patenteen % 90a inguru berez Iparraldeko enpresen filialeari ematen zaizkie. Teknologia aurreratua, beraz, enpresa multinazional filialaren lau hormen barruan geratzen da. Hor lekuko biztanleek langile edo teknikari-ikasle moduan lan egiten dute. Beraz, dena etxe barruan geratzen da.

Multinazionalaren barruan barne-merkataritza dei genezakeen fenomenoak sortzen da, hau da, etxe sortzailearen eta filialen artekoa. Etxe sortzaileak filialari teknologia transferitzen diotenean, honek berehala eta konpainiak ezarritako prezioa ordaindu egin behar du. Baina etxe sortzailearen eta filialen artean ez dago merkataritzarik eta merkaturik; izan ere, multinazionalak finkatzen ditu saltzeko eta erosteko prezioak. Horregatik, prezioak puztu ala hustu egiten ditu, bere interesen arabera. Prezioak manipulatu egiten dira, komeni den lekuan mozkinak lortzeko.

Iturria: Banku Mundialaren garapenari buruzko txostena, 1998
Hegoa-Mugarik Gabe Nafarroa, 1997.



6

Unitate didaktikoaren ebaluazioa

Jarraian, ebaluatzeko bi proposamen aurkezten dizkizuegu. Lehen a ikasleentzat da eta irakaslearen helburuaren arabera moldatu egin daiteke.

Gure ustez garrantzitsua da, ikasitako ezagutza, prozedura eta jarrerez gain, ikasleek ere proposamen didaktikoaz ebaluazioa egiteko aukera izatea.

Bestea irakasleentzako ebaluazioa da. Gure material didaktikoak egiten jarraitzeko, ezinbestekoa deritzogu hezitzaileen ebaluazioak edukitzea haiek hobetzen joan ahal izateko.

Beraz, bi ebaluazioak **ALBOAN**-era bidaltzea eskatzen dizuegu:

Aita Lojendio kalea, 2 - 2º • 48008 Bilbo

Bergamín kalea, 32 • 31004 Iruñea

Ebaluazioak eskueran dituzue gure web orrian ere:

<http://www.alboan.org>

Gure posta elektronikoaren helbidetara ere bidal ditzakezue:

alboanbi@alboan.org o alboanna@alboan.org.



6.1.

Ikasleentzako ebaluazio-proposamena

Zein da egindako jardueri buruzko nire iritzia?

Unitate didaktiko honetan erabilitako ariketak, metodoak eta baliabideak baliozkoak direla egiaztatzearen, ondoko galdera-sortari erantzuteko gonbitea egiten dizuegu. Material honen helmuga eta protagonista diren ikasleak baino hoberik ez dago ebaluatzeko. Gainera, galdera horietan behin eta berriz azpimarratzen da unitate osoan nagusitu den ideia: ikasleak ikasketa-prozesuan duen arduraz jabetu behar du.

110

1. Balioztatu 1etik 4ra ondoko ariketak:¹

	1	2	3	4
1. ariketa: Instituzio politikoak eta Estatuarenak				
2. ariketa: Instituzioak: botere-arazoa				
3. ariketa: Botereari obeditzea?				
4. ariketa: Boterea lortzea eta parte hartzea				
5. ariketa: Desobedientzia zibila				
6. ariketa: Aginpidea edo boterea?				
7. ariketa: Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala				
8. ariketa: Nire eskubideak, gure eskubideak, haien eskubideak				
9. ariketa: Hiru belaunaldiko eskubideak				
10. ariketa: Aurpegia eta gurutzea				
11. ariketa: Kasu praktikoaren analisisa				

¹ Ariketa bakoitzaren ebaluazioa hura amaitutakoan egitea komeni da

2. Zer abantaila ikusten dizkiozu taldean lan egiteari?

3. Eta zein zailtasun edo alde txar?

4. Alderatu eskola horiek ohikoekin. Zein desberdintasun ikusten dituzu?
Zure ustez, horrela gehiago ikasten al da?

5. Beste zein gaitan gustatuko litzazuke erabiltzea eskola emateko modu hori?

6. Zure ustez ahoz adierazteko gaitasuna hobetu egin al da unitatearen hasieratik alderatuta?

- noez da hobetu
- hasieran bezala
- zerbait
- asko



7. Zure ustez ideiak idatziz adierazteko gaitasuna hobetu egin al da unitatearen hasieratik alderatuta?

- ez da hobetu
- hasieran bezala
- zerbait
- asko

8. Zein da atentzioa gehien eman dizun ariketa? Zergatik?


9. Aztertutako gaien alderdiren batez zenuen iritzia aldatu al da?

10. Oro har, zer iruditu zaizu unitate didaktiko hau?

	Handia	Nahikoa	Ertaina	Txikia	Batere ez
Interesgarritasuna					
Originaltasuna					
Aspergarritasuna					
Baliagarritasuna					
Zailtasuna					

11. Zein gai iruditu zaizu interesgarriena? Eta interes txikienekoa?

12. Gustatuko al litzaizuke beste gairen bat lantzea? Zein?



6.2.

Irakasleentzako ebaluazio-proposamena

Irakasleentzako inkesta

Ikastetxearen izena

.....

Izen-deiturak

.....

Lan egiten duen hezkuntza-alorra eta -maila

.....

Gauzatutako unitate didaktikoaren izenburua

.....

Esperientzian parte hartutako ikasle-kopurua

.....

Beste irakasleren batek parte hartu al du unitate didaktikoa gauzatzen?

.....

.....

.....

.....

a) Ebaluazio kuantitatiboa

Eman 1etik 4rako kalifikazioa ondoko kontuetan (kalifikazio gutxienetik handienera: 1= ez edo gutxi baloratua / 4= bai edo asko baloratua). 1= ez edo gutxi baloratua / 4 = bai edo asko baloratua)				
Gaiak	1	2	3	4
• Erabilitako materiala oso eraginkorra da ikasleen arteko elkartasuna bultzatzeko edukiak, jarrerak eta prozedurak sustatzeko				
• Materiala gauzatzea zaila egin zait				
• Ikasleen erantzuna positiboa izan da				
• Proposatutako jarduera gehienak gauzatu ditut				
• Materialeko edukiak nire ikasgaiaren programara egokitzea erraza izan da				
• Interesgarria da gai horiek curriculumeko arloka lantzea				

b) Ebaluazio kualitatiboa

ALBOAN-en materialak aberastu al du anaitasunerako hezkuntzaz duzun ikuspegia?
Zergatik?

Proposatutako zein ariketa gauzatu dituzu?
Ariketaren bat prestatu al duzu materialetik abiatuta?

Zenbat baloratzen duzu material didaktikoaren egitura? Unitatearen osaketa positibotzat hartzen al duzu: irakasleentzako gida eta ikasleentzako gida?

Zailtasunen bat topatu al duzu? Zein? Nola konpondu duzu?

Balioetsi ikasleen erantzuna. Zerk harritu zaitu gehien?

Zein alderdi direla esango zenuke positiboak materialean eta esperientzia didaktikoan?

Zein alderdi sartuko zenituzke haiek hobetzeko?

Zure iritziz, eskolan zer beharko litzateke praktikan ikasleen artean anaitasuneko eduki, prozedura eta jarreraren transmisioa gauzatzeko?


Zein esperientzia arrakastatsu edo kalitatezko material didaktiko ezagutzen dituzu arlo horretan?

GKEk zer ekarpen egin dezaketela uste duzu eskolan anaitasunerako hezkuntza sustatzeko?

Zure ustez, interesgarria al da **ALBOAN**-ek material mota hau eskaintzen jarraitzea? Zergatik?


Zure ustez, interesgarria al da hainbat ikastetxetako irakasleak elkartzea beste ikastetxeetan gauzatu diren esperientzia didaktikoak partekatzeko?





Bibliografía

- Akal (1999). *El Estado del mundo, 1999*. Madrid: Akal.
- Atienza Azcona, J. (1998). *La deuda externa y los pueblos del sur*. Madrid: Confer, Manos Unidas, Cáritas eta Justicia y Paz.
- Cavanagh, J. (1994). *Alternativas al orden económico global*. Barcelona: Icaria.
- Centro Nuevo Modelo de Desarrollo (1994). *Norte. Sur: la fábrica de la pobreza*. Madrid: Hezkuntza herrikoa.
- CIP (1997). *Las raíces de los conflictos*. Madrid: CIP.
- CIP (2000). *Papeles de cuestiones internacionales*. Madrid: Icaria.
- Equipo Maíz (1999). *Diez plagas de la globalización neoliberal*. San Salvador: Equipo Maíz.
- Hegoa (1996). *Bajo el mismo techo*. Iruñea: Hegoa – Mugarik Gabe.
- Instituto del Tercer Mundo (1999) *Guía del mundo*. Montevideo: Instituto del Tercer Mundo.
- Levin, L. eta Plantu (1999). *Derechos Humanos: Preguntas y respuestas*. Bilbo: Bakeaz/Ediciones Unesco.
- Oraá, J. eta Gómez Isa, F (1997). *La Declaración Universal de los Derechos Humanos*. Bilbo: Instituto de Derechos Humanos, Universidad de Deusto.
- Pollard, M. (1994). *Naciones Unidas*. Zaragoza: Edelvives.
- GNBP (2000). *Informe sobre desarrollo humano 2000*. Madrid: Mundiprensa.
- Valencia Villa, H. (1997). *Los Derechos Humanos*. Madrid: Acento Editorial.



8

Sareko beste zenbait baliabide

Hainbat gai lantzeko orduan dokumentazioa osatzeko interesgarriak izan daitezkeen Interneteko web orrien zerrenda bat ematen dizuegu. Gainera, hainbat bilatzailetan begira dezakezue:

www.google.com • www.yahoo.com • www.altavista.com

eta **ALBOAN**-en Interneteko web orrian unitate honi buruz informazio gehiago topa dezakezue:

www.alboan.org

119

I. Desobedientzia zibila

<http://desobedienciacivil.pangea.org>

<http://www.noviolencia.org/objecion.htm>

<http://www.nodo50.org/racismo/desobediencia.htm>

<http://www.comcas.es/b90/laobjecion.htm>

<http://www.euskalnet.net/ga/OF.html>

II. Giza Eskubideak

<http://www.hrw.org>. HUMAN RIGHTS WATCH.

<http://www.iidh.ed.cr>. INSTITUTO INTERAMERICANO DE DERECHOS HUMANOS.

<http://www.a-i.es>. AMNISTÍA INTERNACIONAL.

<http://www.pangea.org/ai-cat/educadors/>

<http://www.edai.org>

<http://www.derechos.org>

<http://nodo50.org>

III. Nazioarteko gatazkak

<http://www.nodo50.org/utopiacontagiosa/conflictosinternacionales.htm>

Mendebaldeko Sahara

<http://www.eurosur.org/guiadelmundo/paises/sahara/>

<http://www.nodo50.org/fpolisario/>

Perú eta FMI

http://www.masitravel.com/info/mapa_sp.htm

<http://www.imf.org/external/spa/>: FONDO MONETARIO INTERNACIONAL

<http://www.news.bbc.co.uk/hi/spanish>

Israel eta Palestina

<http://www.cip.fuhem.es>. CENTRO DE INVESTIGACIÓN PARA LA PAZ

http://www.hrw.org/spanish/press/2000/israel_victimas.html

Maputxe indigenak eta Endesa

<http://www.derechos.org/nizkor/espana/doc/endesa/>